

ttipi-ttapa



Lucia Etxeberria
aztarnariak «aste eta
hilabete gogorak»
aurreikusi ditu / 8



Josetxo Ezkurra
Doneztebeko
erremontistarekin
solasean / 24



Pello Sarratea
almandoztarra
herriko alkate
izendatu dute / 41


SINADURAK

 JON
ABRIL
OLAETXEA / 3

 AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3

 ENAUT
IPARRAGIRRE
ZINKUNEGI / 4

 MADDI ANE
TXOPERENA
IRIBARREN / 4



INTSUMISIOAREN AHOTSAK

90eko hamarkadan derrigorrezko soldaduskari ezetz erran zioten eskualdeko zortzi lagunentzako testigantzak bildu ditu TTIPIK-TTAPAK, baita *Ez dugu nahi. Intsumisioaren ahotsak Euskal Herrian* liburuaren egilea den Edurne Elizondo beratarrenak ere. / 11

PATXI CASCANTE / DIARIO DE NOTICIAS

Magna Erdizera begira

Erdizen meategia egiteko proiektua berriartu du Magnak. / 44

BERA LESAKA

Agenda 2021

OTSAILA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

LESAKAKO
UDALA

12

ORTZIRALEA

HITZALDIA AITORTZAREN BILA

Hizlariak Izaskun Rekarte eta Amaia Izko
19:00 Harriondoa Kultur Etxeko
Txokobiko Aretoa
Antolatzailea Egia Ur Azalera

LESAKA

13

LARUNBATA

MERKATUA BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA

10:00-13:30 Beralandetan

BERA

20

LARUNBATA

ANTZERKIA LURRUN MINEZ (GALDER PEREZ)

18:30 Kultur Etxean
Iraupena 70 min
Sarrera 7€

BERA

27

LARUNBATA

EKITALDI FAMILIARRA TXOMIN & TXISTUMAN DESKONTZERTUAN

18:30 Kultur Etxean
Sarrera 3€ (sarrerak aitzinetik Agara prentsan salgai)
Iraupena 60 min
Antolatzailea Ricardo Baroja eskola publikoko guraso elkartera
Laguntzaileak Berako Udala eta Berako Kultur Batzordea

BERA

Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan CIEsek Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.

ttipi-ttapa
32.000 irakurle

SEXUAREN ARABERA

%60,3
EMAKUMEAK

%39,7
GIZONAK

ADINAREN ARABERA

Urteak	14-19	20-24	25-34	35-44	45-54	55-64	+64
%	11,2	1,8	13,9	14,1	18,9	15,3	24,7

IKASKETA MAILAREN ARABERA

%16,3
Oinarrizko ikasketak

%41,2
Unibertsitatea

%10,7
Oinarrizko batxillergoa

%31,8
Goi mailako batxillergoa

Diario de Noticias 10.000 irakurle

Diario de Navarra 7.000 irakurle

Bertze batzuk 5.000 irakurle

Gara 1.000 irakurle

Berria 1.000 irakurle

DATU ITURRIA: CIES, 2020ko metatuak

SINADURA: Ttipi-Ttapa

2 ttipi-ttapa | 775 zk. | 2021-02-11



NIRE TXANDA

JON ABRIL OLAETXEA

Hobeak

Koronabirusa orain urtebete etorri zenean, gizarte hobearen gurea hartu genuen lelotzat. Baina emaitza ez da izan esperotakoa, eta errudun bila hasi gara. Gazteak paratu ditugu jopuntuan, batez ere. Gaizki jokatu duten gazteak baino anitzez ere gehiago ikusi ditut xintxo-xintxo ibili direnak. Eta gaizki aritu direnen artean, anitzek, aspaldi utzi zioten gazte izateari.

Politikarien kontra ere aritzeko aitzakiarik ez zaigu falta izan. Agintariek ausartago jokatzea nahi izan dut, maiz, eta, hala ere, ezin ditut denak zaku berean sartu: trakets, baldar aritu dira batzuk; ahal bezala erantzuten aritu izanen dira gehientsuenak; bertze batzuk, aitzitik, sekulako inplikazioarekin fin-fin aritu dira. Eta eskertu nahi ditut, bereziki, inguruko alkate eta zinegotzietako anitz.

Hobeak izan nahi badugu, bertzeen akatsak eta errudunak bilatu beharrean, geure onena atera eta elkarri laguntzeko ahalegina egin beharko dugu, komunitate gisa arituz. Oroitu, jokoan dugunak ez duela parekorik: osasuna.

«BERTZEEN AKATSAK BILATU BEHARREAN GEURE ONENA ATERA BEHAR DUGU»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Proporzionaltasunaren neurria

Leonardo Da Vincik, bertze hainbat artelanen artean, dotore marraztu zuen gizakiaren proportzio perfektuaren irudia, beso eta hankak zabal-zabal. Donostian, birusaz *babesteko*, masailezurra hautsi dio gazte bati ertzainak pilota batekin, modu proporzionalean. Barakaldon, sudurra sindikalista bati, borraz. Proportzioa, ipurdia bezala, bakoitzak berea.

NABARMENTZEKOAK



ITSASO ELIZAGOIEN
ETXALARKO MUSIKARIA



PELLO SARRATEA
ALMANDOZKO ALKATEA

Maite duen horixe eginez, hau da, musika joz, bertze aldi batez Carlos Nuñezekin bira egin du Itsaso Elizagoien etxalartarrak. Otsailaren 7an eman zuten azken saioa Madrilan.

Azken 20 urteotan alkate izan den Luis Roldani lekukoa hartuz, Pello Sarrateak Almandozko alkate kargua hartu du. «Herria hobetzeko» lan egin nahi du gazteak.

ATZERA BEGIRA



2011-02-03 · TTIPI-TTAPA · 535 zk.

Agirre 'Ni ere pilotari' txapelketan irabazle

Iera Agirre leitzarrek maiz erakutsi du pilotan ederki moldatzen dela. Gaur egun, esku-pilotarekin dabil, baina duela zenbait urte palarekin egin zen ezagun. Duela hamar, adibidez, *Ni ere pilotari* txapelketan txapeldun izan zen. Hala bildu zuen orduko TTIPI-TTAPA aldizkariak. Hainbat kategoriatan 70 bat emakumezko parte hartu zuten txapelketan, tartean, hainbat leitzarrek –argazkian–. Agirrek finalera ailegatu eta, Rebeka Kontinekin bikotea osatuz, txapela janzteko lortu zuen. «Txapelketa bikaina» izan zela adierazi zion TTIPI-TTAPARI. Gehiago ere bai: «Nafarroan 70 bat neska palan jokatzeko ikustea oso pozgarria da eta txapelketan parte hartu dugun pilotari guztion ilusioak eta gogoak are handiagoa egin du txapelketa».



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,
Izaskun Rekarte, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemakalariak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maidar Petirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorena, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorena, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte
2021eko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerrekako 40€
Leitza 30€
Hego Euskal Herria 48€
Ipar Euskal Herria, Europa 94€
Amerika eta Australia 140€



KOLABORAZIOAK

EÑAUT IPARRAGIRRE ZINKUNEGI

Akaberaren hasiera

Nik garbi ikusten dut. Oraindik akaberara ailegatzea aunitz kostako baldin bazaigu ere, ailegatu gara akaberaren hasiera. Norbaitek hala pentsatu ahal izan badu, ez naiz birus nazkagarri honetaz ari, ez. Gure bizi baldintzez eta gure bizi mailaz ari naiz: Gure soldatez, lan postu finkoez, ongi bizitzeko segurtasuna izateaz, finean. «Gure» erraten dudanean, langileoz ari naiz.

Orain dela 30 urte gaztea zenak bazuen bizi maila on bat lortzeko esperantza, gaztetatik lan finko bat lortu eta urte batzuetan bere etxea eskuratzea, seme-alabak izan eta diru arazorik ez izatekoa... Oparoaldiaz mintzo ziren komunikabideak urte haietan... Baina gaur egun zer? Egundak izan garenon hiztegia krisia, langabezia, langileontzat kontaezina diren zifretako erreskateak, lantegi itxierak, pobrezia, EREak, orain ERTEak... ageri dira.

Birusak sorturiko arazo guztiez gain, arazo ekonomikoak ere gogor kolpatu gaitu azken urtean. Garrantzitsua da aipatzea krisi hau ez dela birusaren ondorio. Gizartearen baitako zatiketa ekonomikoa gero eta nabariagoa da: Alde batetik, bankari, enpresari handi eta politikari profesionalak daude, zeinen negozio ekonomikoak lehenetsi diren uneoro; bertze aldean langileria xumea dago, zeinaren pobrezia eta

«LANGILERIA ANTOLATUAK BAKARRIK ALDA DEZAKE EGOERA»

askatasun eza handitzen ari den momentu historiko honetan.

Zer espero dezakegu gaur eguneko gazteok etorkizunaz? Ba deus onik ez! Europa gainbehera historikoan sarturik dago, eta bertako

langileok sufrutuko dugu gainbehera hori. Geroz eta langabezia handiagoa, aipaturiko gainbeheraren eta robotizazioaren ondorioz. Soldata geroz eta tikiagoak. Geroz eta kontrol sozial handiagoa, teknologiaren bidez (segimendu biometrikoa, adibidez). Zuzenbide estatuaren akabera. Karrika gero eta militarizatuagoak (dagoeneko ikusten dugun moduan, polizia gorilak bezala karriketan, kontrolen areagotzea, mugen hesteak...). Politikan parte hartzeko eta antolatzeke debeku etengabea. Ziur aski, baita mugikortasunerako ere. Baina lasai, hau guztia ez da arazoa, arazo bakarra Covid-19a da.

Pello Apezetxeak aitzineko TTIPI-TTAPA bateko orri hauexetan erran zuen gisan, «Legeak eurek sortu, eurek aldatu, eta betearazi edo ez betearazi eurek erabakitzen baitute. (...) Erabaki guztiak agintarien esku daude», burgesen esku. Noren aldeko erabakiak hartuko ditu ba burgesak? Burgesaren aldekoak, jakina. Denak ez gara berdinak. Burgesak daude, agintariak, eta langileok gaude, zanpatuak. Langileria antolatuek bakarrik alda dezake hau, sozialismoaren aldeko borrokak.



MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

Ur azalera

Duela berrogei urte atxilotu eta torturatu zuen Espainiako Polizia Nazionalak Joxe Arregi. Otsailaren 4 batez atzeman, eta ia hamar egunez eduki zuten Madrilin inkomunikatua. Ergo, torturatua. Hil eta gutira Juan Kruz Unzurrunzagak eta Bixente Ameztoik atera zizkioten argazkiak euskal herritar anitzen memoria kolektiboan gelditu dira gaurdaino: oin zolak haragi bizitan, eta gorputz osoko azala beltz; erreta, kolpatua.

Argazkiek baieztatu baina ez zuten egin Arregik berak hil aitzineko orduetan Carabanchelgo ospitalean zituen kideei adierazi ziena: «Oso latza izan da». 1981eko otsailaren 13an hil zen, autopsiaren arabera, bronkopneumoniak jota. Santi Brouard medikuak adierazi zuen *bainuontziak* baino ezin izan ziola eragin. Torturak, alegia.

Arregiren oroimenez antolatzen da ordutik Torturaren Aurkako Eguna Euskal Herrian, otsailaren 13an; tamalez, haren azal errearen argazkiek ez baitzuten Espainiak urteetan izan duen zapalkuntza formarik ankerrena eten. Urte guti batzuk geroagoa atera zen Mikel Zabalzaren gorpua Bidasoa ibaiko ur azalera, duela 36 urte, eta Paco Etxeberriak zainduta-ko autopsiak erakutsi zuenez, ez zen bertsio ofizialak zioen gisan Endarlatsan itota hil, Intxaurrendoko kuartelean baizik; berriz ere, *bainuontziaren* ondorioz. Horrela erantzun zion

«TORTURA SOSTENGATZEN DUEN SISTEMAK BERE HORRETAN DIRAU»

Guardia Zibilak Zabalzaren amari Intxaurrendora semeaz galdetzeraz joan zenean: «Zoaz objektu galduen bulegora». 2021a da, eta familiak oraindik ez du ikerteta ofizialik jaso.

Bizirik iraun dutenek ere badute zer sufrutua euren larruazalean, torturak epe luzerako markak uzten baititu pairatu behar izan dutenengan. Eta anitz ditugu inguruan: eskualdean, zehazki, egiazaturiko 90 kasu. Mattin Sarasola eta Igor Portu lesakarrak torturapean egindako deklarazioen ondorioz daude kartzelan. Estrasburgoko auzitegiak Espainia zigortu zuen 2018an, biei «tratu anker eta iraingarria» emateagatik; eta zer egin du Espainiak? Guardia Zibilak absolbitu.

Aldi bakarra balitz... Baina Estrasburgoren hamaika kondena ditu pilatuak Espainiak: azkena, *Aztugal* kasuko hirugarrena, Iñigo Gonzalez Etayo barañaindarrarena. Estrasburgok hiru aldiz zigortu baitu Espainia polizia operazio horretan atxiloturikoen torturak aski ez ikertzeagatik. Eta argi dio epaiak: «Ikerteta ofizialik ezean, torturaren debekua ez litzateke eraginkorra praktikan, posible bailitzateke estatuko agenteek euren kontrolpean dituztenen eskubideei burla egitea, zigorgabetasunaz baliatuta». Fernando Grande Marlas-ka zen gazte horien atxilotetak agindu zituen epailea. Eta non dago orain? Espainiako Barne ministroa da.

Zorionez, tortura salaketarik ez dugu entzun azken hamar urteotan, baina ezerk ez du segurtatzen berriro gertatuko ez denik, tortura sostengatzen duen sistemak bere horretan baitirau. Horregatik atera behar dugu behingoz egia, ur azalera.

11 GALDERA LABUR

JON ELIZONDO ETXEKONANEA URROZKO GAZTEA

«Lehenago baloratzen ez genituen gauza anitz estimatzen ikasi dugu»

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

24 urteko gazte urroztarra.

Zein dira zure zaletasunak?

Herriko gazte batek izan ohi dituen zaletasunak, lagun artean garagardo batzuk lasai hartzea.

Herria utzi eta Leioara joan zinen zure ikasketak egitera...

Bai, Leioan Ingeniaritza Kimikoa ikasi nuen.

Zergatik aukeratu zenuen gradu hori?

Kimikak eguneroko bizitzan duen garrantziaz interesaturik, eta aldi berean, Ingeniaritzak eskaintzen dituen aplikagarritasunak bultzaturik aukeratu nuen gradua. Kimika graduarekin zerikusia duen gradua bada ere, hainbat konpetentzia lantzen dira.

Bertsozale eta euskaltzalea omen zara...

Bertsolaritza arras gustokodut eta posible dudan guztietan saiatzen naiz euskal kulturarekin lotutako ekitaldietara joaten.

Ikasketak medio, Urroztik Bilboko Duestu auzora joan zinen...

Lau urte pasa nituen bertan. Hasiera batean aldaketa handia izan zen, Urrozen baserri batean bizitzetik, Bilbo bezalako hiri batera aldatzea. Esperientzia arrunt aberasgarria izan zen, kanpora irekitzera lagundu didana.

Aldaketa handia sumatu duzu?

Hirietako eta herriko jendeak ez daukate zer ikusirik. Urroko herritarrok elkar ezagutzen dugu. Bilbon, berriz, ez ditut nere blokeko bizilagun guztiak



ere ezagutu, pentsa! Hala ere, Deustu auzoak herri kutsua ere badu, nahiko auzo herrikoa da.

Zer du Urrozek bertze herriek ez dutena?

Begi-bistakoa da Leurtzako urtegiek ematen diotela Urrozeri bere izaera bereizgarria.

Zer falta du?

Gaur den egunean ez dut uste ezer falta duenik. Aurten dena bat ireki da; horrez gainera, ostatua ere badago, parke bat, plaza eta frontoia.

Nola bizi izan duzu bestarik gabeko urte hau?

Besta egiterik izan ez badugu ere, bertze hainbat plan egiteko aprobetxatu dugu. Onartu beharra da, lehenago baloratzen ez genituen gauzak anitz estimatzen ikasi dugula. Eta hori ere garrantzitsua da.

Amets bat?

Aktualitatearekin bat datorren ametsa; ea pandemia aitzinean ezagutzen genuen normaltasunera lehenbailehen bueltatzen garen.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Merkealdia

IRAKURLEAK MINTZO

Lesakako Andra Mari zaharren egoitzan egiten dugun lanaz harro**Laura Apeztegia Alzugarai**

Nekatuta, aspertuta eta nazkatuta gaude egoitzetan egiten den lanaren eta baliabide gabezien inguruan entzuten den desinformazioaz.

Andra Mari Zaharren Egoitzan erizain lanetan aritzen naiz, Lesakako Udalarena den irabazi asmorik gabeko erakunde publikoan eta Lares Navarra elkarteko kide dena. Elkarte honetan dauden Nafarroako beste 40 egoitzetan bezala, sektore hau modu berezian bizi dugu. Gure helburu bakarra egoiliarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzea da eta egunero beraien arima uzten duten langileentzat kalitatezko enplegua sortzea.

Argi utzi nahi dut oso ongi lan egiten dugula. Orain dela urte batzuk pertsonarengan oinarritutako arreta-eredua ezartzen hasi ginen eta gaur egun horrela jarraitzen dugu, ez baitugu ulertzen beste modu bateko zainketa. Formakuntza egin, hortarako prestatu eta egunero bertakoen bizitza nola hobetu pentsatuz etortzen gara lanera. Gure helburua laguntza behar duten pertsona horiek guran jarri duten konfiantzari erantzutea da.

Pandemia gure artean egon arren, ospakizun ugari izan ditugu: urtebetez, Josefinaren 100 urteak, San Juan jaia, San Ferminak, Olentzero eta Errege Magoen bisita, besteak beste. Hau da, egoitzako familia handiaren eguneroko bizitza keinu txikiekien pozten saiatu gara.

Covid-a jasan dugu eta asko sufritu dugu, baino ez diogu maitasun eta sensibilitatearekin zaintzeari utzi, are gehiago, gogo gehiagorekin egin dugu, beraien beldurrekin bat egiten genuelako. Senitartekoek eta egoiliarrek bazekiten haiekin geundela eta harremanetan egon gara une oro.

Zorionez garai hori gainditu dugu eta orain txertaketa prozesuan murgilduta

gaude, laister kalean egongo garelakoan.

Horregatik guztiagatik, gure lana iraintzen duten pertsoneri errespetua eta zuhurtzia eskatu nahi diegu.

Eskerrak ematen dizkiet nire lankide, zaintzaile, erizain, sukaldari, teknikari, administrazioko langile, zerbitzu orokorretako langile, boluntario eta Lesakako Osasun Zentroko langile guztiei beren lan guztiengatik.

Milaka urratsez oso aurrera egin dugu**Mikel Mundiñano Larraza eta Fran Balda Araña** | NAFARROAKO SAREREN IZENEAN

Aurtengo urtarrileko erronka ez zen makala. Helburua, argia, handia: euskal presoen etxeratze prozesuaren baitan, jendarte-bulkadari bidea ematea. Zailtasunak, agerikoak. Gaitzaldiari elurtea gehitu zitzaion. Jendea atera, mugitu eta biltzeko oztopo asko. Posible ote jendarte honen gehiengo zabal baten gogoia ikusgarri egitea? Eskura genituen lanabes guztiak martxan jartzeko unea zen: sormena, antolaketa gaitasuna, auzolana... Eta bai, emaitza ikusgarria izan da oso. Zuri esker.

Nafarroan, 80 herri eta auzotan egin ziren mobilizazioak. 330 boluntariok parte hartu zuten antolaketa lanetan... Milaka eta milaka herritar elkartu ginen. Ehunka argazki eta bideotan betiko jaso eta zabaldu da balentria. Ikusi nahi duenarentzat ikusgarri; ez ikusiarena egitea nahiago luketenentzat, saihetsezin.

Iruditzen zaigu gu geu garena lortutakoaren garrantziaz jabetu behar dugun lehenengoak. Hainbeste maite dugun mendizaletasunetik hartutako metafora erabiliz, amesten dugun gailurra zapaltzeko gainditu beharko ditugun zailtasunak begi-bistan ditugunean, onuragarria da bidean gelditu, burua altxa, atzera begiratu eta dagoeneko egin dugun bide zatiaren tamainaz jabetzea, gehiago delako ibili duguna gailurrera iristeko geratzen zaiguna baino.

Gaur, presoen korapiloa askatzeko erronka da herri honetan aniztasun

gehien, indar gehien eta kontsentsu gehien biltzen dituen jendarte-erronka. Ukaezina den errealtate honek erakusten du jendartearen gehiengo zabalarentzat, eragile sozial, politiko eta sindikal nagusi nagusientzat, presoen korapiloa askatzea dela elkarbizitza eta konponbideari lotzen zaion aldagaia; jendarte honek etorkizun berri bati begietara begiratzeko duen urgentiari, politika alderdikoien lehiatik atera eta herri gisa hartu behar den erronka dela. Oso esanguratsua da ETaren biktima izandakoak ere gero eta modu agerikoagoan ari direla salbuespenezko espetze politika amaitzearen alde bat egiten.

Hauxe baita gailurrera iristeko egiteko dugun bidea irekitzeko gakoa. Denok konfiantza izatea gailurrera iritsitakoan denok izanen garaile, denok ikurrak jartzeko tokia egonen dela, inork ez duela gailurra berarentzat eta bere ikurrentzat bakarrik hartu nahi izanen. «*Piececitos heridos / por los guijarros todos / ultrajados de nieves / y lodos!*». Gabriela Mistralen hitz hauek balio dezakete bidearen gogortasuna irudikatzeke: denok ditugu oinak zaurituak, minduak; denok behar dugu ahalik eta azkarren iritsi gailurrean soilik aurkituko dugun atsedean eta zaintza gunera. Bidea ere gero eta garbiago ageri zaigu aurrean: salbuespeneko espetze politikaren aroa atzean utzi behar da; urrunketa amaitu, gaixoak eta adinduek kaleratu. Gailurrera eramanez gaituen bidea egiteko heldulekuak ere finkaturik daude: presoak elkarbizitzan txertatzeko akordio zabala edo eta 7/2003 legearen aplikazio malgurako tresnak adostea.

Tira, amaitu da ibilitakoaz jabetzeko egindako etenalditxo. Ekin diezaiegun berriz ibiltzeari. Oraindik bidera gehitu ez direnei egin diezaiegun tokia; ez da inorentzako gailurrik egonen, baldin eta denok eroso egoterik ez badugu. Ez du zentzurik orain egin daitezkeen urratsak gerorako uzteak, denbora alferrik galtzeak hodei beltzen eta ekaitzen etorrera besterik ez du ahalbidetuko.

Zatoz gurekin! Izan Bidea!

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.




Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58



PRENTSATIK BILDUTAKOAK



«Euskalduntzeko bitarteko publiko eta doakoak garatzea aldarri feminista bilakatu da. Euskalduntzea ez baita soilik ideologikoa, klase kontua ere bada (...) Gure ardura ez da (gaitasunik ere ez dugu) feminista guztiak euskalduntzea, baina aldiz, gure aukeren barruan dago bertaratutako feminista ez euskaldunak euskararekiko, euskal komunitatearekiko eta Euskal Herrian dauden feminismoekiko begirunea eta aitortza izatea».

SAIOA IRAOLA URKIOLA

EUSKAL HERRIKO BILGUNE
FEMINISTAKO KIDEA, LEITZARRA I
ARGIA. 2021.01.24



«Limurtu hitza hiztegitik desagerrarazi behar dugu. Ezin dugu beti eder eta polit egon gizonak guregana hurbiltzeko, eta gauza bera erdaldunekin. Erabili beharko genukeen hitza interpelatu da (...) Bi erronka feminismotik euskara erdigunean jartzeko (...) Batetik, zapalketa ikusaraztea inportantea da, zeren zapalketa normalizatzen badugu ezin gara ahaldu. Bertzetik, ikasi behar dugu hizkuntza zapalketan ematen diren erasoak salatzen».

ELURRE IRIARTE BAÑEZ

BAZTANGO MUGIMENDU FEMINISTAKO
KIDEA, ARIZKUNDARRA I
ARGIA. 2021.01.24

BOTA BERTSOA

**JUAN ANTONIO
LEKUONA
SALABERRIA**
GOIZUETAKO
BERTSOLARIA

**Birusa eta Umore Ona**

Neurria: Zortziko handia.

*Bizitzak hainbat aldarte ditu
batzuk txarrak bestek onak
egoerara ohitu behar ta
hor izaten dira lanak.
Adibidetzat balioko du
gure talden sortu denak.
Abestuz ongi pasatzen gunun
orain paron gaude denak.*

*Umore Ona da abesbatza
gure herriko kuttuna
sakratua zen ostiralero
gure entsaio eguna.
Ikasitako dena ondoren
kontzertutan zen entzuna
orain elkartu ezinik gaude
horixe da daukaguna.*

*Erori eta altxatzea da
zuzen eta bidezkoa
guk ere hori egingo dugu
beraz, zerbait balizkoa.
Festa egun bat prestatu eta
dantza, kanta umorezkoa.
Gora Umore Ona, Gora Goizueta
birusarik gabekoa!*

GOITI ETA BEHEITI

**Zaborrak nonahi
eta mendiak
hondatuak**

Iruritatik Artesiagarako bidean ateratakoa da goiko argazkia, zaborra nonahi... Beheitiko irudia, berriz, Lesakatik bidalitakoa da, Agiñan ateratakoa, autoekin mendia hondatua ageri da... Zergatik atzentzen ote zaigu denona dena denok zaindu beharrekoa dela?





Lucia Etxeberria Aranz goizuetarra Iruñeko Refena eraikinean aritzen da aztarnari lanetan.

«Zinez garrantzitsua da zintzoki kontaktuen zerrenda osoa ematea»

LUCIA ETXEBERRIA ARANAZ GOIZUETAKO AZTARNARIA

Pandemia hasi zenetik Covid-19ari lotutako kontuekin ari da lanean goizuetarra. Besteak beste, joan den maiatzetik aztarnaria da. Lehenbiziko, bigarren eta hirugarren olatuen lekuko izaten ari da

G. PIKABEA | GOIZUETA

«Aste eta hilabete gogorak» heldu direla dio Lucia Etxeberria Aranzek (Goizueta, 1997). Eta badaki zertaz ari den, pandemiaren hasieratik, 2020ko martxoaren 16tik, Covid-19aren bueltan ari delako lanean: «hasieran, telefonoaren beste aldean herritarren zalantzak argitzen» ibili zen, baita «positiboen jarraipena egiten» ere, «osasun arloko profesionali PCR probak kudeatzen» ere aritu da. Erizaina da ikasketaz, joan den maiatzaz geroztik aztarnari ari dena, Iruñeko Refenan 200 laguneko aztarnarien lantaldean. Lehenbiziko, bigarren eta hirugarren olatuen lekuko izan da eta gaur

egungo datuen atzean «harremanak zabaldu» izana dagoe la uste du: «Abendu hasieran kasu bakoitzak batz best hurbileko bost kontaktu zituen, eta Eguberrietan positibo bakoitzak batz best 20 kontaktu zituen». Horregatik «elkar babesteko ardura» eskatu du. **Nola azalduko zenuke zure lana?** Kasu positibo bakoitzaren inguruko aztarnari segitzean datza gure lana, zein eremutan kutsatu den ikertu eta positibo izanik inguruko zein kutsatu ahal izan dituen baloratzea. Hurbileko kontaktuak identifikatzen ditugunean, PCR proba baterako deitzen diegu, isolamendurako azalpenak ematen dizkiegu eta behar

izanez gero laneko baja kudeatzen dugu.

Profesional nahikoa zarete?

Nafarroan aztarnari ari garenak 200 lankide inguru gara, Osasunbideko zerrendetan dauden administrariak, gizarte langileak, osasun hezitzaileak eta erizainak. Militarrak ere izan daitezke aztarnari. Oinarrizko formakuntza jaso dugu baina protokoloak momenturo egokitzen dira eta batik bat lanean ikasten dugu. Plantilla zabala gara eta Nafarroan egunean eguneko kasu guztiak egitera ailegatzeko gara. Bigarren olatua, ordea, oso gogorra izan zen, egun bateko edo biko atzerapenarekin hasten baitakenuen kontaktuen ikerketa,

eta horrek egoera asko okertu zuen.

Lan gogorra da?

Egiten dugun dei bakoitzean Covid-19aren eragina zuzenezuzenean ezagutzeko aukera daukagu. Covidagatik ospitalean dagoen gaixoaren senidearekin hitz egiten dugu, edota hurbileko baten galera izan duenarekin; isolatzeko zailtasunak dituztenekin edota ingurukoak kutsatu izanagatik errudun sentitzen den zainzailearekin. Ez nuke esan lan erraza denik, baina pixkanaka komunikatzeko gaitasuna edo enpatia landu dugu eta batez ere lankideen laguntzarekin gure osasun mentala zaintzen ikasi dugu.

Zein zailtasun izaten dituzue?

Egoera sozial eta ekonomiko konplexu batean gaudela esan beharrik ez dago. Kontuan izan behar dugu pertsona positibo bakoitzak bere egoera duela etxean, familian, lagunartean edo lantegian eta honek isolamendua egiteko garaian eragiten du. Badago isolamendua erraz egin dezakeen jendea, gela bakar bat komun propioarekin daukana, baita telelana egin dezakeena edo ingurukoan laguntzaz erosketak eta janaria aseguratua dituenak. Baina beste aldetik, pisu batean familia bat baino gehiago elkarrekin bizi diren kasuak daude, isolamendua ongi egin ezin dutenak; isolatuz gero lanean kaleratuak izanen direnak, isolatuz gero hilabete bukarara ailegatuko ez diren familiak edota familiarik edo lagunik ez dutenak erosketak egiteko. Horrelako egoerak ez dira errazak eta isolamenduaren beharraz jardutea konplexua izaten da.

Hortaz, badira konplikatzen diren kasuak...

Konplikatzen diren kasuen artean, zahar egoitzetan birusa eragiten ari den kaltea aipatuko nuke. Zahar egoitzetan osasun langileak betitik aritu dira buru-belarri lanean, baina garai hauetan are gogorrago lan egitea tokatzen ari zaie.

Egoitzetako egoerak oso latzak dira bai egoiliarrentzako, bai senitartekoentzako baita langileentzako ere. Hainbeste kutsatu eta hildako egotearen arrazoiak hainbat izan daitezke, isolamendu egokia egiteko egoitzen espazio falta, langile eskasia edota lan-kargaren gorakada.

Zer iruditzen zaizkizu administrazioak hartutako neurri murriztaileak?

Positibo kasuen gorakadak zuzenean ospitalizatuen kasuen gorakadan islatzen dira, baita lehen arretaren lan-kargan ere. Eta beste eremu horiek kaltetu ez daitezzen ezinbestekoa da egunerokoan prebentzio neurriak hartzea.

Nolakoa izan da Eguberrien ondorengo itzulera?

Abendu hasieraz geroztik etorriko zenari aurre egiteko presatzen aritu gara, kontaktuen jarraipena finduz eta ahalik eta hurbileko kontaktu gehien identifikatzen saiatuz. Zenbat eta jarraipen zorrotzagoa izan, orduan eta positibo gehiago atzemanen dira, eta horretan aritu gara. Oraingoz, ez gara aurreikusitakoa gainditzera ailegatu, baina argia da kasuen goranzko joera eta datozen asteak funtsezkoak izanen dira bilakaera ikusteko.

Positibo kopurua goraka doa, bai eskualdean bai Nafarroan...

Abendu hasieran kasu bakoitzak bataz beste bost hurbileko kontaktu zituen, eta Eguberrietan positibo bakoitza bataz beste 20 kontaktu izatera igaro zen. Positibo direnen %70 beste positibo baten hurbileko kontaktu izandakoa da eta gainerako %30ak ez daki non kutsatu den. Beraz, gure harreman sozialak zabaldu diren honetan eskualdean edo Nafarroan ikusi ditzakegun ondorioak etorri dira.

Aztarnari hasi zinetik nolako bilakaera izan du zure lanak?

Osasun Kontseiluan hasi nintzen lanean, Nafarroako Covid-19aren telefonoa izenez ezagutzen denean. Hasiera batean herritarrek zalantzak



Lucia Etxeberria goizuetarra ezkerrean, lankide batekin hizketan.

argitzeko deitzen zuten eta orokorrean, garai hartan, Covidaren inguruko ezjakintasuna gailendu zen, beldur eta antsietate handia izan zuen jendeak. Osasun arloko zalantzak argitzen ere aritu ginen, baita telefonoz positibo jarraipena egiten ere. Hilabeteak pasatu ahal, sintomen inguruko ezagutza zabaldu zen eta batik bat osasun hezkuntza egin genuen. PCR probak jasotzen hasi ginenean, berriz, osasun profesionali probak kudeatzen hasi ginen. Gerora, PCRak zabalitzen hasi zirenean, aztarnari lanean hasi ginen.

Oporrik izan duzu?

Bai. Abenduan eta urtarrilean aukera izan dugu.

Jendeak arazorik gabe onartzen du agindutakoa?

Orokorrean jendeak agindutako neurriak betetzen ditu. Arzoren bat egonez gero, herri bakoitzeko osasun etxearekin batera kudeatzen eta konponbidea bilatzen saiatzen gara.

«PANDEMIAK GURE ZILBORRAZ HARATAGO BEGIRATZERA BEHARTU GAITU»

Zenbateraino da garrantzitsua kontaktuak azkar identifikatzea?

Kontaktuak tipula baten geruzak bailiran irudika ditzakegu, positiboa tipularen erdian kokatuz. Oso garrantzitsua da lehen geruzan dauden kontaktu guztiak ahalik eta azkarren identifikatzea eta isolatzea. Lehenengo geruzako kontakturen bat berandu identifikatuz gero, birusa bigarren edo hirugarren geruzetara azkar hedatu daiteke. Beraz, gure lana erlajuaren kontrakoa da. Kontaktuak zenbat eta azkarrago identifikatu, orduan eta positibo gutxiago egonen dira identifikatu edo isolatu gabe.

Zein da herritarren kezkarik nagusia?

Orokorrean inguruko adinekoak babesteak kezkatzen ditu.

Radar aplikazioa martxan da?

Bai, funtzionatzen du, betiere positibo eman aurretik aplikazioa mugikorrean baldin baduzu. Positibo emandakoan deskargatzea ez da baliagarria, jada isolatuta egoen beharko

«HARREMANAK ZABALDUTAKOAN ONDORIOAK ETORRI DIRA»

zenukeelako eta ez duelako lokalizatuko 48 ordu lehenagotik egon zaren jendea.

Mezurik TTIPI-TTAPAKO irakurleei?

Jada ni bezainbeste edo gehiago jakinen dute Covid-19aren inguruan. Hona ailegatzeko lan asko egin dugu, baina hau ez da bukatu eta denok elkarlanean segitu behar dugu Covid-19arekin amaitu arte.

Kutsatze-katea eteteko zein gomendio emanen zenuke?

Elkar babesteko osasun neurriak jarraitzeko eskatuko nuke. Momenturen batean neurriak jarraitu ez badira eta otorduak edo topaketak egin badira, gerora positiboren bat azaltzen bada, zinez garrantzitsua da zintzoki kontaktuen zerrenda osoa ematea, ez baitago transmisio-katea eteteko beste modurik.

Nolakoak espero dituzu hurrengo asteak eta hilabeteak?

Gogorrek, lan askokoak.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Pandemiak gure zilborraz haratago begiratzera behartu gaitu, begirada gure herritarrengan edo hurbilekoengan jarriz. Besteek egiten dutenak guran eragin zuzena duela ikusi dugu, baita alderantziz ere. Beraz, ahulenak kaltetuek izan ez daitezzen, elkar babestea denon ardura da.

Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*NORK NAHI DU TXIKLE?

Artikulu zehaztua behar denean ez erabiltzea ez da zuzena. Aunitzetan, maileguetan egiten da huts hori. Baina euskaraz badira bertzelako formak:

-*Nork nahi du txikle? > Nork nahi du txiklea?

-*Tori karamelu > Tori karamelua.

-*Entsaladari tomate ematen diozu? > Entsaladari tomatea ematen diozu?

-*Zuk zer hartuko duzu? Zurito? > Zer hartuko duzu? Zurittoa?

Bakean utzi du

ala **Bakean utzi dio?**

Bakean utzi esapidea Iparraldean *du* aditzarekin (Nor-Nork) da eta Hegoaldean *du* edo *dio* (Nor-(Nori)-Nork).

Euskaltzaindiak ez du deus hobetsia, bi moldeak zuzenak eta egokiak dira.

-Bakean utzi du /
Bakean utzi dio.

-Utz nazazu bakean /
Utz iezaazu bakean /
Utzidazu bakean.

Biak ongi egonik ere, Euskaltzaindiaren arabera, ez da komeni testu berean modu nahasian erabiltzea.

Hizki-zopa

Oilategian sartu gara gaur! Bila itzazu han ikusi edo aditu ditugunak! Zortzi hitz dira! Denak ezagunak dituzu?

- gandor
- moko
- txita
- oilanda
- arrautza
- oilaloka
- kukurruku
- luma



Nola erran?

BIKOTE ≠ BIKOTEKIDE

Adiera ezberdinak dituzte.

-Bikoren sinonimo da *bikote*:

-Bi lagunez osatutako taldea.

-Kantari-bikotea.

-*Bikotekide*, berriz, *bikote* bateko kidea da, eta (*bikote*-) *lagun* du sinonimo.

-Erratzuko ostatu batean nengoela, nire *bikotekidea* izanzen zena ezagutu nuen.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

Intsumisoaren ahotsak 30 urte beranduago

Intsumisioaren mugimendua sortu zenetik 32 urtera, borroka hura gogoan, soldaduskari ezetz erran zioten eskualdeko zortzi lagunentzako bildu dituzten TIPI-TTAPAK. Gaiari buruz liburu argitaratu zuen Eburne Elizondo beratararekin ere mintzatu da TIPI-TTAPA

G. PIKABEA

Duela 32 urte hasi zen dena, 1989ko otsailean, hainbat gaztek derrigorrezko soldaduskari ezetz erran ziotenean. Gutti batzuk hasi zuten intsumisioaren bidea, baina agudo zabaldu zen bazter guztietara, baita gizartean babes zabala jaso ere. Hego Euskal Herrian 10.000 bat gazte egin ziren intsumiso, tartean beraien esperientzia TIPI-TTAPARI kontatu dioten Mikel Altzuart, Imanol Iturria, Oskar Astibia, Xabi Ospital, Ramon Telletxea, Patxi Urroz, Aitor Ruiz de Larrinaga eta German Arburua.

12 urte beranduago, 2001eko abenduaren 31n, Espainiako Gobernuak derrigorrezko soldaduska kendu zuen. Jose Maria Aznar presidente zela, armada profesionalizatzea erabaki zuten. Baina hori baino lehen sortutako mugimendua handia izan zen, «garrantzitsua» Eburne Elizondo Mitxelena (Bera, 1972) hitzetan. Horren lekuko da *Ez dugu nahi. Intsumisioaren ahotsak Euskal Herrian* bere liburu (Gatuzain-Txalaparta).

Gatuzain argitaletxetik hartu zuen liburu idazteko proposamena kazetariak. Kontatu digunez, «borroka haren bidea ezagutarazteko intsumiso talde baten aspaldiko nahia zen». Hortik abiatuta, 40 elkarrizketa baino gehiago egin zituen, intsumisoei, senideei, eta orduko epaileei eta abokatuei. Lan haren emaitza izan zen liburu.

Hamar urte pasatu dira geroztik, baina gogoan du intsumisioaren mugimenduaren aniztasunak «harritu» zuela.

«Kanpotik mugimendu bateratua zela uste nuen, baina elkarriketak egiterakoan, hainbat iritzi eta talde zeudela konturatu nintzen, aunitzetan kontrako estrategiekin, eta 20 urteren buruan, taldeen arteko aniztasunak irauten zuela ikusi nuen». Halere, «horren gainera, bat egin eta elkarrekin aitzinera egin zuten. Batasun horri esker lortu zuten lortu zutena».

Gizartearen babesa gakoa

Gizartearen babesa nabarmendu du, eta «arrakastaren gaioetako bat» hori izan zela dio, «bertzela, akabo». Babes horren gibelean, batetik, «irudimena» dagoela aipatu du: «Protesta hagitz ikusgarriak egin zituzten eta horrek jendearengan sinpatia piztu eta lagundu zuen». Bertzetik, «soldaduskak fami-

lia guztiei eragiten zenez, horrek jendeak mugimenduarekin bat egitea erraztu zuen».

Hortik haratago, intsumisioen «ausardia eta indarra» azpimarratu ditu: «bidezkoa jotzen ez zuten lege baten kontra borroka azken muturreraino eraman zuten. Aunitzek aunitz zuten jokoan baina legeak ezarritako ondorioak onartu zituzten».

Kartzelak

Nafarroan mugimenduak izan dako bilakaera «bitxia» ere hizpide izan du, «epaiketa aunitz izan zirelako eta jende aunitz espetxeratu zutelako. Iruñeko espetxean intsumiso pila elkartu ziren eta horrek bertze dimentsio bat eman zion mugimenduari». Gehiago ere bai: «kartzela borrokarekin segitzeko erabili zuten. Kartzelan ba-

tzarrak egiten segitu zuten, eta soldaduskaren aurkako kanpaina indartzeko baliatu zuten».

Herri ttikiak eta emakumeak

«Herri ttikietan mugimendua ere zein neurritan bat egin zuten» ere erakutsi nahi izan zuten liburuan, eta hala, «eskualdeko intsumiso batzuen kontakizunak bildu nituen». Oskar Goñi eta Tobi Ruiz beratarak aipatu ditu eta «pasadizo bitxiak berri» izan omen zuten. Adibidez, «Oskar Goñik bidaia bat egiteko zuela eta, asteburu batean bere partez kartzelara bertze lagun bat joan zen».

Emakume antimilitaristen rola ere aztertu zuten, eta «ikus-puntu kontrajarriak» bildu zituen. «Patricia Moreno abokatuak, erraterako, emakumezkoek ez zutela rol berezirik izan erran zidan, soldaduska gizonen egin behar izateak borrokaren protagonista bilakatu zituela». Elizondok ere «mugimendua gizonzkoek gidatu zutela» uste du, «baina gizartean sortu zen babes sarean emakumezkoek rol garrantzitsua» bete zutela dio. Mabel Cañada ere aipatu du: «bere ustez, emakumezkoek protestetan parte hartuz, mugimenduaren dimentsioa zabaldu zen, ez zelako soldaduskaren aurkako mugimendua bakarrik izan, militarren aurkakoa ere izan zelako».

Mugimenduaren arrastoa

Liburuaren eskuartearen, Elizondok «desobedientzia zibilaren bide hark bertze mugimenduetan arrastoa» utzi zuela ondorioztatu du, nahiz eta argitaratu zuenean, «jendeak gaiaren berririk ez zuela ikusteak zer pentsatua» eman zion. Gaur egun egoera bertzelakoa dela dio: «gaia berriz mahai gainean jarri dute eta pozgarria da».

Bertzetik, «armadak segitu izana batzuentzat porrota izan zela» onartu du, eta bere ustez, «lortu zena ez zen behar bezala ospatu». Elizondorentzat, ordea, «ospatzeko modukoa izan zen, eta bada mugimendu hartatik zer ikasi». —>

«MUGIMENDUAREN ANIZTASUNAK HARRITU NINDUEN»

EDURNE ELIZONDO, KAZETARIA

«GIZARTEAREN BABESA GAKOA IZAN ZEN»

EDURNE ELIZONDO, KAZETARIA



Xabi Ospitalen abxiloketa salatzeako Erratzun egin zuten manifestazioa, 1996an.



German Arburua Apeztegia zugarramurdiarra.

«Intsumisioaren mugimenduak gizartearen babes zabala lortu zuen»

Soldaduskari ezetz errateko «arrazoi aunitz» bazituela iritzita erabaki zuen German Arburua (Zugarramurdi, 1972) intsumisio egitea: «Ni ez naiz espainola eta ez diot fitsik zor Espainiari eta gainera ez naiz armadaren aldekoa». Nahiz eta inguruan «bertzeek bezala egin beharko nuela» aditu eta «etxekoek sekulako beldurra» sentitu, «argi» izan zuen. Orduko oroitzapen onak ditu eta mugimenduak «gizartearen lortutako babes zabala» azpimarratu du: «haiek bai garaiak!». Ez zen espetxean egon, «nire garaian, epaiketa militarra egin ziguten eta kartzelan sartu ez nintzen guti haietakoa izan nintzen». Intsumisioari esker «soldaduska derrigorrezkoa ez izatea» lortu zela uste du, baina bere irudiko, «borroka ez da finitua. Nire helburua armadarik gabeko Euskal Herri librean bizitzea da».



Aitor Ruiz de Larrinaga Idoate elizondoarra.

«20 urte beranduago armadarekin akitzeko gerrak hor segitzen du»

«Antimilitarista» delako eta «armaden eta haien baloreen kontra» dagoelako egin zen intsumisio Aitor Ruiz de Larrinaga (Elizondo, 1972). Soldaduskari ez ezik, justiziari ere planto egin zion: «ez nintzen ez auzitegietako zitazioetara joan, ez epaiketara, ez kartzelara». Urtebeteko kartzela zigorra paratu zioten baina horri ere kasurik egin ez, eta «hiruzpalau urtez bilatu eta atxilotzeko agindutik ihesi, gordeka han eta hemen ibili nintzen, amnistia eman arte». Bere hitzetan, «intsumisioa mugimendu antimilitaristak une jakin batean soldaduska profesionalarekin akitzeko erabilitako estrategia bat izan zen, eskualdean babes guti eta hemendik kanpo mugimendu indartsua eta oihartzun handikoa izan zena». Borroka hura «garaipen bat» izan zelakoan dago, «baina armadarekin akitzeko gerrak hor segitzen du».



Patxi Urroz Telletxea urroztarra Iruñeko Intsumisioaren Parkean.

«Egunero daude intsumisio izateko aukerak»

Patxi Urrozen (Urroz, 1973) ustez, «intsumisioa zapaldua izateari kontra egitea da eta egunero daude intsumisio izateko aukerak». Hori horrela dela sinetsita eta «antimilitarista eta euskal herritarra» sentitzen delako erabaki zuen «Espainiako armadan sartzeri uko egitea». Kartzelara bidali zuten horregatik eta «hamar bat egunez bigarren graduari eta 14 hilabetez hirugarren graduari» eduki zuten: «Hagitz gogorra zen». Gainerakoan, borroka «baketsua eta zabala» izan zela dio, «garaipen handi bat», nahiz eta «militarismoari lotuta oraindik egiteko aunitz» dagoela uste duen. Hartu zuen «babes handia» ere ez du atzenda, eta «min» egin ziotela ere onartu du. Baina esaldi ezagun bat aipatuz, argi du «ezinezkoa dela pentsatzen dutenek ez lioketela saiatzin ari denari trabarik egin behar».



Ramon Telletxea Mitxelena lesakarra.

«Zuzenean soldaduskari kontra egin nahi izan nion»


Ramon Telletxeak (Lesaka, 1973) «betitik garbi» zuen ez zuela soldaduskarik eginen eta «zuzenean» intsumisio egin zen: «Ez nuen objektiorik eta deus nahi, ez nuen zeharka libratu nahi». Ondorioak luze gabe etorri ziren. Iruñeko kartzelara eraman eta «handik atera gabe ia hilabetea egin nuen». Graduz aldatutakoan Martutenera lekualdatu zuten eta urtebete egin zuen han. «Derrigorrezko soldaduska intsumisioari esker desagertu» zelakoan dago, eta «lorpen handia» izan zela dio. Baina «militarrik gabeko mundu bat» amestuz segitzen du, nahiz eta «utopia» izan. Mugimenduak lortutako «erabateko babes» eta «karrikako indar handia» ere nabarmendu ditu. Ez du halakorik sumatzen orain, baina bere irudiko, «orduko egoera politikoarekin mugimenduak aldeko osagarri guztiak zituen».



Xabi Ospital Agerrebere erratzuarra Iruñeko Intsumisioaren Parkean.

«Egoerak gain hartu zielako kendu zuten soldaduska, ez nahi zutelako»

Xabi Ospitalek (Erratzu, 1976) etxean aditu zituen soldaduska-ko lehen kontuak, tartean, «anaiak ezta erotuta ere ez egiteko erran zidan». Hala egin zen intsumiso. Kode penala erreformatu berrian, zigorra aukeran izan zuen. Baina berria «pozoi-indutako goxokia» zela eta, «euskaraz, kode zaharra» aukeratu zuen. San Roken bete zuen zigorra, «19 egun atera gabe eta bederatziz hilabete gauak eginez pasatu nituen». Babesa ere ez du atzendua: ez «Erratzuko manifa jendetsua», ez «intsumisioaren aldeko mugimendu handia. Hura gabe ez litzateke inposaketa desegin izanen. Egoerak gain hartu zielako kendu zuten, ez nahi zutelako». «Helburu nagusia» lortu zela dio, baina ez dena: «oraino mundua militarrek menperatzen dute». Halere, «garai-penak tantaka heldu direnez, lortutakoa aldarrikatzekoa da».



Oskar Astibia Baleztena leitzarra.

«Garbi erakutsi genuen Euskal Herrian ez dugula militarrik nahi»

Oskar Astibia (Leitza, 1972) ere intsumisio egin zen, «antimilitarista naizelako eta ez nuelako soldaduskara behartuta joan nahi». Trukean zigorra jaso zuen, eta bere horretan onartu ordez, «protestatzeko auzitegiko sarreran eskuak kateatu nituen». Behin kartzelan sartuta, «15 hilabete egin nituen: zazpi hilabete hirugarren graduari, zortzi bigarren graduari eta gainerakoa kalean prebentibo». Halere, ez zen babesik gabe sentitu: «barrote artean eta kalean sumatu nuen bultzada». Horregatik azpimarratu du «gizartearen mugimendua», bere hitzetan, «ezinbestekoa» izan zena. Garai haiek gozotik eta gazitik izan zutela ere onartu du: «indarra eta ongi ari ginela sentitu nituelako gozoa eta espetxean askatasunik gabe egotea eta lagun eta senideen sufrimendua ikustea gogorra izan zelako gazia».



Imanol Iturria Almandoz arantzarra.

«Soldaduska ez egiteko arrazoiak sobran genituen»

Soldaduskarako abisua ailegatu zitzaionerako «erabakia nahiko garbi» zuen Imanol Iturriak (Arantza, 1974) eta intsumiso egin zen, «arrazoiak sobran» zeudelako: «harrotasun eta herri identitate indartsua genuen eta soldaduska horren aurkako zen, eta da». Uko egin ondotik, sorterrian atxilotu zuten, baina ez zuten espetxeratu, «ez zituztelako kartzelak gaztez bete nahi, legimitatea galduko zutelako». Ordurako, «borroka irabazia» zegoela dio. Lortutakoa «sekulakoa» izan zela ere aipatu du, «armadari uko eginez zerbitzatzeko derrigortasuna kendu zuten. Gero profesionalizatu zuten, baina egoera gehiago zabaldu aitzinetik hartutako neurria izan zen, ez nahi izan zutelako». Halere, «azken garaipena» falta da bere ustez: «gure sakelatik ordaintzen ari garen etsaiaren armada hor dugu».



Mikel Altzuart Zaldain arizkundarra.

«Faktore aunitz daude derrigorrezko soldaduska kentzearen gibelean»

Intsumiso egiteko erabakia ez zuen «berehalakoan» hartu Mikel Altzuartek (Arizkun, 1971). «Jarrai erakundean militatzen» zenean, «soldaduska honi ez» erraten baitzioten. Gerora bat egin zuten. Umoretsu oroitzen da epaiketaz, «katxondeo hutsa» izan baitzen: «Epaileari bertsotan erantzun nion». Kartzelara aurkezteko deia «kasurik egin ez» eta Iruritan atxilotu eta San Roken akitu zuen: bigarren graduari lau egun eta hirugarrenean 14 hilabete egin zituen. Beretako «derrigorrezko soldaduska intsumisioarekin bakarrik desagertu zela erratea ez da zuzena» eta «faktore aunitz» izan zirela dio; tartean, «armadan teknologiak izandako garapena» eta «Europaren mesedetan Espainiako abertzaletasunak izandako galera». Armadaren «indar handiaz» ere ohartarazi nahi izan du: «ez dakigu noraino ailega daitekeen».

Positibo bakarria atzeman dute baheketan

Herriko gazteak, eta batez ere helduak, masiboki joan ziren Covid-19aren antigeno testa egitera ilbeltzaren 30ean

IZASKUN REKARTE

Ilbeltzaren 30ean Covid-19aren probak eginen zizkietela jakinarazi zieten beratarrei eta Alkaia gako eta Zalain Zokoko bizilagunei. 12 eta 29 urte bitarteko gazteen eta 60 urtetik goitiko helduen artean, guztira 1.079 herritar deituak zeuden COVID-19aren antigeno testa egitera. Udalak adierazi zuenez, jasotako datuen arabera, 1.029k egin zuten proba. Proba egin eta emaitza negatiboa zutenek, 15 minututan hartu zuten berri onaren mezua sakelako telefonoan. Positiboa izanez gero, berriz, osasun-langile bat arduratu zen telefonoz deitu eta emaitzaren berri emateaz. Goizean atara zen egun guztian zehar atzemandako positibo bakarria.

Txertaketaren operatiboa 16 osasun langilek osatu zuten. Kopuru horri 20 boluntarioen lana gehitu behar zaio. Boluntarioak antolaketa, logistika, informazioa ematen eta mugimendu zailtasunak dituzten herritarrei laguntzen aritu ziren, hain zuzen. Borzna la-

guneko lau txanda osatu zituzten. Talde bakoitzak bi orduko lanaldia izan zuen eta, tartean, 15 minutuko atsedenaldia izan zuten. Udalak herritarren «parte-hartzea eta lana» eskertu nahi izan ditu.

Baheketatik kanpo utzi zituzten azkeneko hamar egunetan PCR bat egin zutenak, bai eta azken hiru hilabeteotan PCR edo antigeno test batean emaitza positiboa izan zutenak ere. Ilbeltzeko azken igandeko baheketez gain, ikastetxeko inzidentzia kontuan hartuz, ilbeltzaren 28an Toki Ona institutuko 60 irakasle eta langileri egin zieten antigeno testa eta guztiek negatibo eman zuten.

40 positibo azken bi asteetan Ilbeltzaren 15etik 30era, 40 positibo atzeman zituzten herrian, egunero gutienez kasu bat eta gehienez bortz kasu artean. Intzidentzia horrekin larrituta, Osasunbideko agintariak udalarekin harremanean jarri ziren baheketa hau egiteko eta hedapena lehenbait lehen kontrolatu ahal izateko.



Kiroldegian egin zituzten probak. IZASKUN REKARTE



Hamasei osasun langile eta hogeit hamar boluntario aritu ziren lanean. IZASKUN REKARTE



Mila bizilagun baino gehiagotik bakarrik eman zuen positibo. IZASKUN REKARTE

Osatzuz
Psikologia- Psikoterapia Haurrak-helduak
Garbiñe Goia Irazoki
GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA BIKOTE ETA FAMILIA PSIKOTERAPEUTA
BAKARKAKO TERAPIAK: haurrak, nerabeak, helduak
619 343 755 Altxate 1 BERA

Jauztena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Antenak

Sukaldeak, etxetresnak
eta orain sukaldeko diseinua 3D

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa
Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Potentzia handiko laserra. Allyane metodoa

Logurak
www.logurak.com

gauko konfort-kuxina

Centro Prim
regina tolosaechebare

Txakurren gorotza ez biltzeak zigorra izanen du herrian

Ordenantzaren arabera, nahitaezkoa da animaliak mikrotxip homologatuaren bidez identifikatzea eta txertaketak egitea

IZASKUN REKARTE

Etzeko animaliekin, batez ere txakurrekin, herrian dauden arazoak ikusirik udalak, Lesakakoak urrian adostu zuen bezala, Nafarroako Gobernua- ren legedian oinarrituz, erabilerara arautzea erabaki du. Honela, ilbeltzaren 17an burutu- tako udal batzarrean, behin- behineko ahobatez onartu zuen EH Bilduk proposatutako ordenantza, etzeko animaliak, bereziki txakurrak, edukitzea arautuko duena, «animalia horiek babesteko, ongi egote- ko eta arduraz edukitzeko».

Ordenantzaren xehetasunak

Ordenantzaren arabera, nahitaezkoa da animaliak mikrotxip homologatuaren bidez iden- tifikatzea eta alta eta baja guz- tiak udaltzeko erroldan ins- kribatzea. Txakur guztiei eman behar zaie txertoa eta odotik, jabeei identifikazio- eta txer- taketa-txapa emanen zaie, animalia- ren lepoan jar dezaten. Modu berean, animalia bat albaitari batek bakarrek hil dezake, «indarrean dagoen legeriaren arabera justifika-

tutako eta baimendutako egoeretan».

Herri barneko arauak

Udalerrian debekatua egonen da lepokorik gabeko txakurrak ibiltzea eta herrigunean, txakurrek arduradun bati lotuta ibili beharko dute nahitaez, gehienez bi metroko luzera duen uhalaren bidez. Era be- rean, debekatuta dago txaku- rren gorotzak parkeetan, lo- rategietan edo erabilerara pub- likoko bertze edozein ere- mutan uztea.

Arau-hausteak eta isunen zenbatekoa

Arau-hausteak arinak, larriak edo hagitz larriak izan daitezke eta horren arabera, isunak ere 200 eurotik 1.000 eurorainokoak (arinak), 1.001 eurotik 6.000 eurora bitartekoak (larriak) eta 100.000 euro artekoak (hagitz larriak) izan daitezke.

Azkenik, udalak katuei karrikan jaten ematea «debekatu- ta» dagoela oroitarazi nahi izan du, hau egitekotan «uda- lak arautua eta kudeatua izan behar da».



UTZITAKOA

120 lagun, aldarrikapen bakarra

Lehendik Berruet bentan eta Izpegiko lepoan egin bezala, ilbeltzaren 30ean 120 lagun inguru elkartu ziren Lizuniagako lepoan mugako pasabideak ixtea eta indar armatuen presentzia salatzen. Elkarretaratzean, bertaratuen artean hesiak kendu eta bi herrien arteko elkartasuna adierazi zuten.



ARTXIBOKOA

Larunbatean bertako ekoizleen merkatua

Otsailaren 13an 10:00etatik 13:30era Beralandetan bertako ekoiz- leen merkatua egingen dute. Eguraldi ona eginez gero, atarian bertan, eta txarra eginez gero, barrenean. Merkatuan eskualdeko ekoizleak egonen dira beraien produktuak saltzen: gasna, ezti- a, ukenduak, arroltzeak...

BRANDONEA s.l.
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
 Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

ALBERTO RETEGI
 abokatu
 abokatu
 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

LABE ZAR
 Astelehenetik ortziratera:
 07:15etik aitzinera
 Larunbata eta igandea:
 08:00etatik aitzinera
 948 631 076 • BERA

F. LANCHAS
 Akutxiladorea eta bernizatzailea
 Parket eta parket flotatzailea jartzea
 Mota guztietako zolak
 Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

MARITX
 · INGENIARITZA ELEKTRIKOA
 · PROIEKTU ELEKTRIKOAK
 · BOLETIN INDUSTRIA
 · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
 T. (0034) **636 617 450**
 Legia, 23 - BERA

'Egia ur azalera' torturaren aurkako ekintzak asteburuan

Ortizirale arratsaldean solasaldia izanen da Harriondoan eta larunbat eguerdian oroitzapen ekitaldia frontoiko parkinean

AITOR AROTZENA

Otsailaren 13an 40 urte beteko dira Joxe Arregi Espainiako Poliziak egindako torturak eragindako zaurien ondorioz Carabanchelgo kartzelan hil zenetik. Ordutik, data hau erreferente bihurtu da torturaren aurkako borrokan.

Gure eskualdean, 80ko hamarkadan Mikel Zabalzaren kasua izan zen sonatuena. Duela 13 urte, berriz, Igor Portu eta Mattin Sarasolaren atxiloteta eta torturak izan zuten oihartzun handia. Baina bi kasu nabarmen hauez gain, zabalagoa eta isilagoa izan da urte luzez torturak Bidasoaren inguruan utzitako arrastoa.

Otsailaren 13a Torturaren Aurkako Eguna dela eta, aste-buru horretarako, bi ekitaldi antolatuta dituzte Lesakan, eskualdeko errealitatea azalera-

tu asmoz, *Egia ur azalera* goiburupean.

Otsailaren 12an, ortziralean, 19:00etan, Harriondoa Kultur Etxean solasaldia izanen da, *Aitortzaren bila* izenburupean. Bertan, alde batetik, Igor Portu eta Mattin Sarasolaren kasuak, eta bertzetik, emakume torturatuen testigantzak izanen dituzte mintzagai Amaia Izko abokatuak eta Izaskun Rekar-te antropologoak.

Otsailaren 13an, larunbatean 12:00etan, frontoiaren gibelko aparkalekuan, Unai Ruiz margolariak eginiko muralaren oinetan, oroitzapen ekitaldia egingen da. Bertan, Mikel Zabalza, eta Mattin Sarasola eta Igor Porturen kasuak lotuta, Bidasoa ibaiak zeharkatzen duen gure bailara honetako torturatu guztiak gogoan izanen dituzte.

Lehen mailako osasun arretaren egoera moldatzea eskatu dute bortz udalek

A. AROTZENA

Zerbait mugitzen hasi bada ere, Bortzirietan lehen mailako osasun arretari dagozkion hainbat lanpostu oraindik hutsean edo erdizka beteak direla azpimarratu nahi izan du Ruth Gonzalez Santo Tomas Bortzirietako Osasun Zentroko zuzendariak. Hain zuzen, Osasun Zentroko langileen eskakizuna biltzen duen mozioa onartu berri du udalak, Bortzirietako bertze herrietan bezalaxe.

Lesakako medikuaren lanpostua %50ean bete da, eta

lehen lanpostu hori zuen medikua ari da landa eremuko larrialdi taldeko medikuaren lanpostuan. Medikua errehabilitatzaile bat hasia da Iruñetik etortzen, «baina oraindik ez dakigu zer maiztasunarekin etortzen hasiko den. Oraingoz behin etorri da». Bertze horrenbertze gertatzen da Bera-ko pediatria lanpostuaren hutsunearekin, «medikuetakotek beteketen du lan hori, jardunaldi erdian, baina laster aitatasun-baja hartzekotan da eta, beraz, berriz hutsean geldituko da 16 astez bederen».



UTZITAKOIA

Jon Madariaga eta Urko Telletxea finalera

Arkupe elkarteko Jon Madariaga lesakarra eta Urko Telletxea igantziarra Malerrekako eskuz binakako XIX. pilota txapelketako benjamin mailako finalean izanen dira otsailaren 20an Donezteben. Oberenako Mauleon eta Remirez izanen dituzte arerio.



UTZITAKOIA

Motorzale batzuen jarreraz kexu

Bertze behin, autoek suntsituta agertu dira mendiak. Kasu honetan, Agiñan ateratako argazkia da, baina honelakoak ikus daitezke nonahi. Mendian ibiltzen direnek horrelakoak egiten dituzten motorzaleei errespetua eskatu diete: «mendiak denonak dira eta ez dira nolnahi ibiltzeko».

Gestel
nuztu optikoa
irratzi-uhinak
4G

TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 - 31780 BERA
andonimabako@gmail.com

DenokBat
guztira

Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

Ainhoa Altzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

Beilatoki berria Beran

San Jose zahar etxean kokatua dago eta Izarraren estilo berritzaile eta hurbila da nagusi. Argia, kolore txuria eta goxotasuna lortzea izan da helburua.



Igantzi eta Arantza

Zaharberritze lanak egin ondotik, Arantzaren eta Igantziaren beilatokiak ireki ditugu.

ZERBITZU INTEGRALA. UTZI DENA GURE ESKU

Bizi arteko zerbitzuak

- ▣ Hil ondorako kontratua.
- ▣ Hil aseguruak.

Hileta-zerbitzuak

- ▣ Utzi dena gure esku.
- ▣ Dokumentuen kudeaketa eta tramitazioa.
- ▣ Pertsonalizatua.
- ▣ Hilkutxa ekologikoak, eskelak, hildakoen egokitzapena, loreak, etab.

Hilerriko lanak

- ▣ Hilerrien kudeaketa.
- ▣ Panteoiak, ehorzketak, errausketak, hobitik ateratzea.

Zerbitzu integrala

- ▣ Doluan laguntza.
- ▣ Alarguntza pentsioen eta herentzien kudeaketa eta tramitazioa.

GIZARTE ERAKUNDEEKIN ELKARLANA

- ▣ **Paris 365** jantoki soziala.
- ▣ **Projecto Hombre** gizakia helburu: droga menpekotasuna.
- ▣ **Txuribeltza** euskarari laguntza eta kultura gutxituak.
- ▣ **Izarra Fundazioa** doluan laguntza.

*Enpatia, hurbiltasuna eta begirunea.
Gure lurra, gure jendea, gure sustriak.*



24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

Baserri auzoetara banda zabala eramateko lanean

Dena ongi badoa, irrati bidez eman nahi den zerbitzua datozen hilabeteetan eskuragarri izatea espero du udalak

AITOR AROTZENA

Herrigunean zuntz optikoa etxe gehienetara zabaldu ondotik, baserrietan eta zuntz optikorik gabe gelditu diren etxeen egoera moldatzea garrantzitsua da udalaren ustez, herriko garapenean aitzinera pausak emateko. Horretarako, Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoa den Naser-tic-en aholkularitzaren eta telekomunikazio munduan esperientzia duen Wikai enpresaren laguntza jasotzen ari da. Telebistako antenak eta existitzen diren bertze azpiegitura batzuz baliatuz, banda zabaleko Internet seinalea, hau da, segundoko 30 mega baino abiadura handiagoko seinalea eskaintzea posible izanen dela espero dute, herriko etxe eta baserri gehienetan.

Gaur egun teknologia honek segundoko 30 megatik segundoko 100 megara doazen ko-

nexio-abiadurak eman ditzake. Bezeroak bi modutara konekta daitezke sare horretara:

- Dagokion errepikagailuarekin zuzeneko ikuspena badute (alegia, errepikagailua ikusten badute), antena hartzaile ttiki bat instala dezakete etxean. Antena hori, aldi berean, router batera konektatzen da etxearen barnean, eta konexioa ahalbidetzen du.

- Batzuetan, zuzeneko ikuspen faltagatik edo komunikazioen kalitatea hobetzeagatik, operadoreak aukera ematen du etxeak zuntz optikoko kable baten bidez errepikagailuarekin konektatzeko, telebista-seinalearen telebanaketa-sistemen antzera.

Azken urteotan, irrati-teknologia hedatu egin da, eta, neurri handi batean, landeremuen Interneterako isolamendua gainditzen lagundu du.

'Iluntzen' antzezlana otsailaren 27an estreinatuko dute

Mairu Antzerki Tailerrak urtarrilaren 30ean Harriondoa Kultur Etxean egin behar zuen *Iluntzen* antzezlanean estreinaldia gibelatu behar izan zuen, taldekideetako bat konfinaturik zegoelako. Emanaldia otsailaren 27an egingen dutela jakinarazi dute. Lehendik erositako sarrerek balioko dute emanaldi honetarako, baina, nahi izanez gero dirua itzuliko zaie erosi dutenei salmentan puntuetan.

Arbolaren Eguna otsailaren 20an eta 27an egingen dute

Azken urteetan bezala, Arbolaren Eguna ospatzeko asmoa du aurten ere Beti Gazte elkarteak. Otsailaren 20an eta 27an egitekoak dira landaketa-lanak Gardelkobagoeta inguruan, baina Covid-19ari begira segurtasun-neurriak errebisatzen ari da Beti Gazte elkarteak, dena modu seguruan egin ahal izateko. Arbolak ezagutzeko unitate didaktikoa ere bidalia dute herriko bi ikastetxetara.



UTZITAKOAK

Jarrera desegokiak salatu ditu udalak

Irain eskolan hainbat kalte egin dituztela salatu du Udalak «berriki paratutako hesia hautsi, suarekin *jolasean* ibili eta asteburuan ataka bortxatu dute». Hortaz gain, «herrian hainbat tokitan zaborra agertzen» ari dela azaldu du alkateak. «Herria denon artean zaindu» behar dela oroitarazi dute.

denboraldi bukaerako

LIKIDAZIOAK

OTSAILAREN 15ETIK 20RA

bixkiak

Arretxea Karrika, 9, 31770 Lesaka

@bixkiak 948 638 110



SOSTENIBILIDAD RURAL LANDA IRAUNKORTASUNA

Energia onean parte hartuz Participando de la buena energía

Nafarroako hiru lurralde elkarlanean aritu dira, 2020ko uztailetik, aholkularitza eta akonpainamendu proiektu batean. Landa-eremuan aurreztera, energia-efizientziara eta energia berriztagarrien promoziora bideratutako ekintza kolektiboek eskaintzen dituzten ekonomia, gizarte eta ingurumen arloetako hobekuntzetarako aukerak lantzen ditu proiektuak.

Erdi Aldeko, Mendialdeko eta Lizarraldeko Tokiko Ekintzarako Taldeak garatzen ari diren Landa Iraunkortasuna proiektuak, beste batzuen artean, "Alkatetzen Itunak Klimarako eta Energiarako" ekimenera atxikitako entitateei laguntza teknikoa bermatzea du helburu. Entitate horiek 2030 baino lehen CO2 emisioak % 40 murrizteko konpromiso boluntarioa hartu dute, nola eta energia-efizientzia hobetuz, beren lurraldeetan energia berriztagarriko iturriak erabiliz eta klima-aldaketaren ondorioetara moldatzeko neurriak ezarritik.

Laguntza tekniko horrekin batera, proiektuak aurrezteari, energia-efizientziari eta energia berriztagarrien ezarpenari buruzko neurri berriak bultzatu nahi ditu landa-lurraldeetan, tokiko entitateei zein herritarrei eskainiko zaien aholkularitza eta akonpainamendu zerbitzu baten bidez. Talde-lan

horrek ekintza iraunkor horien bultzada errazten du.

Beste helburuetako bat sentsibilizazioa da, energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko neurrien beharren ingurukoa; halaber, tokiko erakundeetan energia berriztagarriak sustatu nahi dira, eta lurraldeetako tokiko biztanleengan enpatia sortu ere, energia-eredu berri jasangarriago baterantz elkarrekin joateko.

Hiru lurraldeetako Tokiko Ekintzarako Taldeak joan den uztailean hasi ziren proiektu horretan lanean, eta ekimenak jarraipena izango du 2021ean; beraz, eskaintzen dituen aukera guztiak ezagutu nahi dituzten erakundeek eta pertsonak tokiko talde bakoitzera jo dezakete informazioa biltzeko eta neurri horiek ezartzeko laguntza lortzeko.

Zein ekintza eskaintzen dira?

Tokiko entitateak

- Aholkularitza eta akonpainamendua Alkatetzen Itunak Klimarako eta Energiarako ekimenean (NASUVINSAK kudeatzen du ekimena).
- Aholkularitza energia-kontsumoen kontrola eta murrizketa egiteko eta energia berriztagarriak ezartzeko.
- Akonpainamendua energia kontsumitzen duten instalazio publikoen (argiteria publikoa eta eraikin publikoak) inbentarioa egiteko.
- Energia-kontratu berrikuspena, instalazioetara bisitak energia hobetzeko eta hori lortzeko neurriak proposatzeko.

Herritarrak

- Zerbitzu teknikoa aurrezteko neurrien inguruan eta aholkularitza etxebizitzeko energia-efizientzian eta energia berriztagarrien promozioan.
- Aholkularitza argiaren eta energiaren fakturei buruz eta bonu sozialaren tramitazioan.

Erdialdea

- * Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoak dimentsionatzea, eraikinen kontsumoaren arabera, tokiko entitateentzat eta herritarrentzat.
- * Aholkularitza eta akonpainamendua SIE plataforman datuak kargatzeko, atxikitako udalentzat.
- * Prestakuntza-tailerrak aurreztearen eta energia-efizientziaren, energia berriztagarrien eta elektrizitate-fakturazioaren inguruan, herritarrentzat.

Nafarroako Mendialdea

- * Komunitate energetikoak sortzeko interesa duten kontzejuen azterketa.
- * Prestakuntza-tailerrak aurreztearen eta energia-efizientziaren, energia berriztagarrien eta elektrizitate-fakturazioaren inguruan, herritarrentzat.
- * Lurraldeko energia-instalazioak ezartzeko azterketak (baso-biomasa, minihidraulikoa eta eguzki-autokontsumo fotovoltaikoa), eraikinen benetako kontsumoaren arabera, tokiko entitateentzat eta herritarrentzat. Bero eta energia-sareetarako bideragarritasunaren azterketa (energia-komunitateak).

Lizarraldea

- * Lurraldeko energia-instalazioak ezartzeko azterketak (baso-biomasa eta eguzki-autokontsumo fotovoltaikoa), tokiko entitateentzat eta herritarrentzat. Energia-sareen azterketa (beroa eta elektrizitatea).
- * "Infoenergia antenak" zerbitzua: tokiko entitateen, oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta elkarten arteko hitzarmenak, zerbitzua lurraldeko pertsona guztiengana hurbiltzeko.
- * Prestakuntza-tailerrak aurreztearen eta energia-efizientziaren, energia berriztagarrien eta elektrizitate-fakturazioaren inguruan, herritarrentzat.



Telefona: 948 74 07 39
energia@navarramedia.org
www.navarramedia.es



cederna garalur

Telefona: 697 65 56 64
infoenergia@cederna.es
www.cederna.eu



Telefona: 948 55 65 37
infoenergia.teder@montejurra.com
www.teder.org

Inauteriak bertan behera gelditu dira aurten

Ortzegun Gizen egunaren seinalea eginen du Landagain eskolak eta balkoiak apaintzeko gonbitea egin dute

IRUNE ELIZAGOIEN

Bizi dugun osasun egoera dela eta, bistakoa da aurten ezin izanen direla aitzineko urteetan ezagutzen diren Etxalarko inauteriak ospatu.

Otsailaren 11an, Ortzegun Gizen egunean, aurten ezin izanen da karrikako antzerkirik egin, baina hala ere, egun handi horretarako hainbat ekintza prestatu dituzte. Kanpo ekintzak izanen dira guztiak, bertsoak, dantzak eta herri kirolak herriko hainbat txokotan. Aurten, gainera, etxalartarrei balkoiak apaintzeko gonbita luzatu die Landagain eskolak, haurren inauterietako egun berezi honetan



Ortzegun Gizen, duela bi urte.

parte hartzeko. Ortzegun Gizenerako guztia prest egon dadin, ilusio handiz mozorroi azken ukituak ematen ari dira ikasle, irakasle eta haurren familiak.

Feminismoaren izeberga sortzeko tailerra eginen dute otsailaren 19an

I. ELIZAGOIEN

Etxalarko talde feministak antolatuta, otsailaren 19an, hurrengo larunbatean, 18:00etatik 20:00etara Etxalarko feminismoaren izeberga

sortzeko tailerra izanen da kultur etxean. Hurbiltzen direnen artean erreflexio txiki bat eginen dute gaiari buruz gehiago ikasteko eta ideiak elkarbanatzeko.



ETXALARKO TURISMO BULEGOA

Antsolokueta auzoan lanak

Antsolokuetako Arrosegaren parean, mendia finkatzeko eta lur jauziak ekiditeko, pareta egin dute. Lan hau Antsolokueta auzorako espaloia sortzeko proiektuaren lehen lana izan da. Honela, auzotarrek, batez ere Lizarietako bidean bizi diren bizilagunek, ez dute errepidetik ibili beharko.



UTZITAKOA

Itsaso Elizagoienek bira bukatu du

Aurten ere Eguberrietako bira egitea lortu du Itsaso Elizagoien trikitilariak, Carlos Nuñez Galiziako gaitariaren taldearekin. Azken emanaldia otsailaren 7an egin zuten Madrilén. Etxalarrera etortzerik izan ez badute ere, Aian (Gipuzkoa) eman zuten kontzertua abenduaren 12an.

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

KAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBUR EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Inauterien seinalea egiten ari dira neska-mutikoak

Otsailaren 6an haur jokoak egitekoak zituzten eta hilaren 11n, Ortzegun Gizeneko etxez etxeko eskea eginen dute

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Urtero, sasoi honetan inauterietan murgilduta egoten gara. Aurten ez da horrelakorik, baina nolabaiteko seinalea izaten ari da. Joan den larunbat arratsaldean frontoian haurren jokoak izan zituzten.

Ortzegun Gizen egunean berriz, otsailaren 11n, urtero eskolako ekintza gisa egiten den bezala, haurrak etxez etxeko eskea egitekoak dute. Indarrak berreskuratzeko, arratsaldean berendu goxoa izatekoak dute frontoian guraso elkarrearen eskutik.



Ez dira ohiko inauteriak izanen aurten.

Bi ekintzetan, beti bezala, eskolako burbuilak eta behar diren neurriak errespetatze-koak dituzte.

Bertzalde, guraso elkarteak herrietako balkoiak inauteri giroan aipatzea eskatu du.

Bortzirietako nobiliariorari buruzko liburua aurkeztua

Abenduan izandako Kultur Astean, Andoni Esparzak bere hitzaldian aipatu zuen bezala, Iñaki Gabilondok eta Carlos Rilovak *Bortzirietako nobiliariora* liburua aurkeztu zuten otsailaren 5ean Baratzondon eta Andoni Esparzak berak egin zuen sarrera aurkezpena.

Urko Telletxea Malerrekako pilota txapelketan

Malerrekako eskuz binakako pilota txapelketan, benjamin mailako finalean izanen da Urko Telletxea, Lesakako Jon Madariagarekin bikote eginez. Elite mailan finalerdia jokatzeko zuten otsailaren 3an Oihan Canabalek eta Joseba Aldabek, bikote eginez.



ARTXIBOKOA

Hasiak dira dantzariak entsaioekin

Azkenean hasi dira herriko dantzariak entsaioekin. Otsailaren 3an hasi ziren eta asteazkenean izanen dute hitzordua frontoian. 18:00etan gaztetxoek txanda izanen da eta ondotik mutil eta neska nagusienak. Ttikienak momentuz ez dira entsaioekin hasiko.



ARTXIBOKOA

Moldaketak igerilekuan

Aspaldixko ari dira igerilekuan lanak egiten. Igerilekuko putzu tikiak gaur egungo araudia betetzen ez duenez, egokitzen ari dira. Joan den udan ez genuen erabiltzeko aukerarik izan eta ea heldu den udan probatzeko modurik ote dugun. Eguraldi ona baino zerbait gehiago beharko dugu horretarako!


www.caserresidencial.es

Laguntza zerbitzuak

- Medikua • Farmazia
- Erizaintza • Psikologoa
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia

Ostalaritza

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

- Animazio soziokulturala • Nutrizioa
- Podologia • Odontologia eta dentista
- Logopedia • Audioprotesista

Bestelakoak

- Ile-apainketa
- Jostuna
- Erijiro zerbitzuak-Meza
- Kanpora laguntzea
- Laguntza teknikoan kudeaketa

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780

BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA

Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

Txotx denboraldiaren irekiera

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317

LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212



Eskolatik Txolberroko atakara bitarteko bidea oinezkoentzat moldatu du udalak.

Oinezkoentzako bideak egokitu ditu udalak

Dirulaguntza bati esker, eskolatik Txolberroko atakarako eta Larreta aldeko bideak egokitu ditu

NEREA ALZURI

Europatik etorri den dirulaguntza bat probestuz, oinezkoentzako bideak egokitu ditu udalak herrian. Alde batetik, eskolatik Txolberroko atakara doan bidea moldatu du, garai batean herritik Bortalarrera joateko bidea zena, eta bertetik, Larreta aldekoa ere egokitu du, Azkilarra joateko lehenagoko bidea, hain zuzen.

Jende helduari zelaian oinez ibiltzeko aukera emateko helburuarekin abiatu zuen udalak proiektua, baina behin eginda, helduek ez ezik nahi dutenek izanen dute hor ibiltzeko aukera, baita eskolako lagunek ere, klasea kanpoan eman nahi badute. Bidean atsedean hartzeko bankuak ere paratu dituzte, baita atakak ere, aziendak ibiltzen diren eremua delako.



Informazio panelak paratu dituzte.

Hain zuzen, baserritarren aziendak ibiltzen direlako, «oinezkoentzat egokitutako bidetik bakarrik ibil daitekeela» ohartarazi du udalak, eta aziendak errespetatzeko eskatu du: «ez egin animaliak ikartzeko ekintzarik».

Bide horietan bizikletarekin, motoarekin edota lasterka ibiltzea debekatua dago eta zakurrarekin pasatzekotan, zakurra sokatik lotua dela ibil daiteke.

Herriko pilotari gaztetxoak Nafarroako Kirol Jokoetan ari dira

N. ALZURI

Eskualdeko hainbat gaztetxo Nafarroako Kirol Jokoetan parte hartzen ari dira, eta horien artean, herriko bortz neska-mutiko. Bortzirietako Pilota Elkartearekin herriko lau lagun ari dira: Amets Madariaga umeen hirugarren mailan; An-

der Etxegarai umeen lehenbizi-ko mailan; Kattin Madariaga haurren mailan eta Ekai Madariaga kadeteen bigarren mailan. Oberena taldearekin, berriz, Oinatz Madariaga ari da, haurren bigarren mailan. Martxoaren akabaila arte izanen da txapelketa



ARANTZAKO HERRI ESKOLA

Mundua edertzea, zein lan ederra!

Joan den hilabeteen, adin guztietako ikasleak aritu ziren inguruaren edertasunerako lanetan. Batetik, inguruak garbitzen aritu ziren eta bertetik, eskola apaindu zuten, patioan margotutako palet birziklatuak zintzilikatuz. Lan bikainaren adierazle dira eskolako blogeko irudiak.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

2022ko inauterien esperoan

Zuzen bidean joan den astean eginen ziren herriko inauteriak, baina osasun egoeratik, ezin izan ditugu ospatu. Herriko eskolan, joan den ortzegunean seinalea egitekoa zuten. Baina gainerakoan, ohiko inauteri giroa berreskuratzeko itxaropenarekin gelditu beharko dugu, heldu den urtekoen esperoan.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Basilio Sarobe zena hizpide izan dute 'Senez' aldizkarian

61 urtez herriko apaiz izan zenari buruz idatzi dute Euskal Herriko Itzultzaile Elkarteko agerkarian

MAIDER PETIRENA

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE) argitaratzen duen *Senez* aldizkariaren 51. zenbakian, 61 urtez herriko apaiz izandako Basilio Sarobe zenari buruzko artikulua idatzi du Eustasio Etxezarretak.

Lesakan 1929an jaioa, 23 urterekin Bartzelonan apaiz ordenatu zuten Don Basilio Nazioarteko Eukaristia Kongresuan. 61 urtez aritu izan zen Sunbillako parrokiaren apaiz-lanetan. 83 urte zituela erretiroa hartu eta adineko

apaizentzako Iruñeko Artzain Ona egoitzan (azken sei urteak igaro zituen). 2019ko abenduaren 1ean hil zen. Basilioaren bizitzako jardueran, bi ekintza dira bereziki aipagarriak: apaiz gisa parrokiari bere bizia eskaini izana, eta euskararekiko zaletasunaren eraginez euskarazko liturgiaren zerbitzuan egindako lana. Aitortza berezia merezi du euskarazko liturgiaren alorrean egindako lanak, Vatikanoko II. Kontzilioak argitaratu emandako *Ira-kurgaiak* liburua itzuli baitzuen euskarara.



ESKOLAK UTZITAKOAK

NILSArekin tailerrak eskolan

NILSAtik bi begirale eskolara etorri ziren ilbeltzaren 27an, uraren garrantzia azaltzeko. HHn *Zaindu gure ura*, LH 1. zikloan *Erabiltzen dugun ura*, LH 2. zikloan *Uraren bidea* eta 3. zikloan *Argi ibili urarekin* tailerrak egin zituzten, bakoitzaren oinarri teorikoarekin eta ekintza praktikoarekin.



UTZITAKOAK

Inauterien ordezkoko etxe apainduak

Inauteririk ez dugu izan, baina seinale ttikiren bat egin da. Ortziralean altxaferoa bota zuten eta herriko hainbat etxe apaindu zituzten. Jaliskok musikaz alaitu zuen ortzirale arratsaldea. Horrez gain etxetik ere bakoitzak bere moduan ospatzeko aukera izan zuen. Heldu den urtean bikoitza!



UTZITAKO ARGAZKIA

Zuhaitza eroria Bide Berdean

Denbora luzea daramagu euririk eta haizeak lasai utzi gabe. Honen ondorioa mendietan eta trenbidean izaten ari diren erortzak dira. Igantzi aldera joaterakoan, Espelosingo iturriaren eta Larrakaitzeko tunelaren artean arbol eder bat erori zen eta bidea hiru egunetz itxi zuten.

«Erremonteak segida izateko borrokan ari gara»

JOSETXO EZKURRA AROZENA DONEZTEBEKO ERREMONTISTA

Gaur dena Doneztebeko erremonte eskolari zor dio Josetxo Ezkurra. Berak izan zuen aukera hura ondorengoek ere izatea nahi duelako, herriko eskolan ari diren gaztetxoak entrenatzen ditu egun

N. BAZTERRIKA

Hamalau bat urte zituela, herriko eskolan hasi zuen bere erremonte ibilbidea Josetxo Ezkurra Arozenak (Doneztebe, 1992). Bertan urte pare bat aritu ondotik, Euskal Jai eskolan eman zion segida eta hortik profesioalera egin zuen salto. Egund, erremontista ez ezik, Euskal Jai fundazioak Erreka kirol elkartearekin batera sustaturiko erremonte eskolako entrenatzaile ere bada, eta ortziraletan 12 urtetik goitiko gazteak entrenatzen aritzen da. Harrobi lan hori erremonteak irauteko «ezinbertzekoa» da Ezkurraren ustez: «profesionalak erretiratzean zaleek lekua hartzeko eskolak behar dira». **Erremonte eskolan hasi zenuen ibilbidea. Hasiera hartako nolako oroitza eman dituzu?**

Normalean ostiraletan laxoa entrenamenduak egiten genituen. Halako entrenamendu batean, frontoian geundela, Lander Erkizia etorri zitzaigun eta erremonte eskola ireki behar zutela eta ea izena eman nahi genuen galdetu zigun. Zortzi-hamar batek eman genuen izena. Ilusioz hasi ginen. Eskolak entrenatzeko aukera eman zidan, profesioalera aritzera ailegatu banaiz Doneztebeko erremonte eskolari esker izan da.

Orain entrenatzaile aritzen zara, Julen San Migelekin batera.

Bai, 2019an hasi nintzen. Julen San Migel eta biok txandaka aritzen gara. Erremontea gaur



Erremontista eta erremonte entrenatzailea da Josetxo Ezkurra. UTZITAKOIA

egun ez dago egoera onenean. Hala ere, Donezteben afizioa badago eta horri eutsi behar zaio. Profesioalera ailegatzeko afizionatuak behar dira, jendea erretiratzen denean segida izateko.

Zenbat pilotari dituzue eskolan?

Iaz 14 pilotari genituen eta lauk debutatu zuten eta hamarrek gelditu ginen. Aurten bertze

«BI ENPRESA IZATEAK ERREMONTIARI ON EGITEN DIO»

lau hasi dira, eta 14 gaude berri. Eskola irekita dago eta gero eta jende gehiago animatzen ari da, kontent gaude. Ortziraletan entrenatzen dute, 16:00etatik 19:00 arte frontoia hartu dugu eta egia erran arront gustura aritzen dira. Ahal izanez gero egun gehiagor ariko liratekeela erraten dute... hori seinale ona da.

Erremonte Fundazioaren laguntzarekin txapelketa ere abiatu duzue...

Bi txapelketa dira bi kategorian direlako. Gazteak Nafarroako Kirol Jokoa txapelketa jokatzeko ari dira eta seniorrak Nafarroako txapelketa. Erremonte Fun-

dazioak antolatutako txapelketak dira, lehen ere egin izan dira baina azken urteetan alde batera utziak ziren. Eta, egia erran, motibatzeke balio dute. **Noiz abiatu zenuen txapelketa eta noiz arte luzatuko da?**

Urtarrilaren 30ean abiatu genuen, Donezteben. Sei larunbatez izanen dira, martxoaren 6ra arte. Jardunaldi bakoitzean gazteen mailako eta senior mailako partida bana jokatuko dira. Otsailaren 13an, 10:00etan, Donezteben azkena izanen da eta ondoko hirurak Agoitzen izanen dira. Finala 13an edo 20an izanen da, Labriten. Hori bukatzean bi kategoriak nahasita bertze txapelketa bat egiteko asmoa dugu. Kluben artekoa izan beharrean denak denekin elkartu nahi dugu, adin guztietakoak. Baina hori oraindik ez dugu pentsatu nola egin, aitzinerago erabakiko dugu.

Bertzean entrenamenduak eta txapelketak segitzeaz gain, zureak ere hor izaten dituzu...

Bai, ortziraletan 20:00etatik 21:00etara profesioalera ari garenok entrenatzen dugu. Eguberrietan banakako txapelketa jokatu genuen eta ondotik etenaldi bat egin dugu. Urtarril erditsuan hasi ginen entrenatzen eta otsail-martxo aldera berri ere martxan hasteko asmoa dugu. Ez dakigu txapelketa edo partidak izanen diren baina...

Nola ikusten duzu zeure burua momentu honetan?

Azken urteetan momentu onenetako batean nagoela erranen nuke. Lesio bat izan arren, konfinamendutik bueltan ongi hasi nintzen...

Eta erremonteak zer-nolako egoera bizi du?

Azken urte hauetan nahiko pata egon da: telebistak esku pilotari erreparatzen dio, egoera ekonomikoa ere ez da onena... Hala ere, bi enpresa izateak erremonteari onura eragiten diola erranen nuke. Ekainetik abendura Nafarroako herri dezentetan jokatu genuen... Aitzinera segitzeko borrokan ari gara.

Emozioak eta familia gatazkak solasgai astelehenean

Edukiera mugatzeko eta segurtasuna bermatzeko otsailaren 12a baino lehen izena eman behar da

MARGA ERDOZAIN

Askin haur eskolak eta Male-rrekako Mankomunitateak antolatuta, emozioen kudeaketari eta familia elkarbizitzari buruzko solasaldia izanen dute heldu den astelehenean, otsailaren 15ean, 17:30ean, zineman.

Emozioak kudeatzeko baliabideak eskainiko dituzte

Lourdes Diez Hernandez familia eta orientatzailearen eskutik, gurasoek seme-alabak laguntzeko gakoak eskuratu ahal izanen dituzte. Izan ere,

solasaldiaren helburu nagusia familiei egoera emozionalen aurrean hauek modu egokian kudeatzeko baliabideak ematea da. Umeen amorrua, frustrazioa, tristura, errua, larritasuna, kezka... nola kudeatzen dituzten jakitea arras garrantzitsua da horiei aurre egiten eta gaintitzen laguntzeko baliabide eta tresnak izateko.

Izen-ematea

Bertaratu nahi dutenek 948 45 17 46 zenbakira deitu edo 638 52 97 85 zenbakira Whatsapp bat bidali beharko dute.

Euskaltegiak bigarren matrikulazio epea zabalik du

M. ERDOZAIN

IKA euskaltegiak ikasturtearen bigarren matrikulazio epea otsailaren 12ra, ortzirralera, arte zabalik du.

Dagoeneko martxan diren aurrez aurreko jarduerak duten taldeetan izena ematen ahal da: A1, B2 eta C1 edo EGA

titulua prestatzeko ikastaroak daude aukeran.

Informazioa eta argibideak 948 45 15 55 telefonora deituz edo mallerreka@ika.euskaltegiak.eus helbidera idatzita jasotzen ahal dira. Inoiz ez da berandu euskara ikasten edo lantzen hasteko...



ARTXIBOKOA

Aurten ez da inauteriarik izanen

Otsailaren 11n hasi beharreko inauteriak ez dira ospatuko. Mozorroak, mantalak, pelukak, karrozak... dena-dena gure ganbaretan gorde beharko dugu. Ilusioari, berriz, eutsi egin beharko diogu... Heldu den urtean berriz dena aterako dugu eta!



UTZITAKOA

Erremonte eskola indarberritua

Erreka elkartearen harrobiko kideak ortzirralero Josetxo Ezkurra (Ezkurra II.a) eta Julen San Miguel kirolarien laguntzaz aritzen dira. Eskola zabalik dago 12 urtetik goitiko gazteentzat eta interesa dutenak Ezkurra pilotalekura hurbiltzen ahal dira. Animatu!

Pandemia egoeran ere, datu onak izan dituzte liburutegian

M. ERDOZAIN

2020an liburutegiak 3.000 erabiltzaile inguru izan ditu. 1.780 ale inguru apaletatik atera dituzte eta bi urtez 355 bazkide egin dira. Digitalizazioari dagokionez, 10.700 ale digitalizatu dira eta 300 bat falta dira lana akitzeko. Iaz

liburutegiak gobernutik eta udaletik 4.600 euro jaso zituen lan hori egiteko eta, horri esker, erabiltzaileak berrikuntzez gozatsen ari dira. Zailtasunak zailtasun ipuin txokoa, irakurle taldea eta idazketa tailerrak aitzinera egiteko modua izan dute.

EDERKI tailerra

CITRÖEN

ZERBITZU OFIZIALA

‘Latigillo’ hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

Andaluziara bidaia udazkenera gibelatu dute momentuz

Aurtengo urte hasieran egoera ez denez hobetu, udaberrian ezin izanen dute bidaiatzeko momentuz

PABLO IRASTORTZA

Iazko martxoaren 14tik 21era Andaluziako hainbat hiriburu bisitatzeko bidaia iragarria zuen elkarteak. Zoritzarreko Covid-19a tarteko, elkarteak kideek aitzinetik zituzten ilusioak alde batera utzi behar izan zituzten, bidaia batzuk bertan behera utzi eta bertze batzuk dataz aldatu behar izan zituztelako.

Udaberritik udazkenera gibelatu dute

Andaluzia bisitatzeko aurreikusita zuten ateraldia, erra-

«ELKARTEKO KIDEEI GORABEHERA GUZTIEN BERRI EMANEN ZAIE»

terako, urte bat gibelatzea erabaki zuten. Oraingoz, ordea, 2021ak ere burua lehengo lepotik darama eta egunerokoari ez zaio aldaketa positibo apurrik ikusten.

Egoera guztiak bezala hau ere pasatuko delakoan, pazientzia lagun eta txertoak eta bertzelakoak lehenbailehen ailegatuko direlakoan, argi izpien zain daude elkarteak. Bertze oztopo nagusirik ezean, eta animoak gorantz egingo duten itxaropenarekin, bidaia hau datoren udazkenean burutzeko asmo irmoa du elkarteak.

Dena den, lasai denok, honi eta bertze edozein gairi buruzko gorabeherak, bai lerro hauek, baita herri bakoitzeko ordezkariaren eskutik edo Whatsapp bidez jakinaraziko zaizkizue.



Pakita Mikelarenaren eskutik jaso zuen oparia Konsuelok. UTZITAKOA

Konsuelo Mutuberriak irabazi du urtarrileko produktu sorta

PABLO IRASTORTZA

Hagitz erantzun ona izan du aurtengo Arkupeak elkarteak abiatu duen lehiaketak. Urte hasieran aipatu bezala, hila-betero galdera bat egingen dute eta erantzuna asmatzen dutenen artean produktu sorta bat zozketatuko dute. Urtarrileko galderari hogeita hamar

bazkidek zuzen erantzun zioten eta elkarteak esker ona adierazi nahi izan die parte hartu duten guztiei. Jakinarazi dutenez, aldi honetan, Lodosako Peron kontsebak produktu sorta lgantzin bizi den Konsuelo Mutuberriaren zuzendaritzan izan da. Zorionak!

Otsaileko galdera

Zenbat herriz dago osatua Baztango Udala edo bailara? Erantzuna 618 56 78 37 telefonora bidali behar da Whatsapp bidez otsailaren 25a baino lehen.

Asteartean Legatera joanen dira mendizaleak

PABLO IRASTORTZA

Lurraldeen arteko joan-etorriak debekatuak izaki, urtarrilaren 19an Hondarribin egitekoa zen urteko lehenbiziko mendi irteera Labaienera lekualdatu behar izan zuten elkarteak mendizaleek.

Arkupeakeko 26 bazkide egundaino zapaldu gabeko lurretan ibili ziren: plazatik abiatu eta Beintza, Burgegaina eta Bonozorroztik 1.060 metro dituen Soratxipi mendira igo ziren. Han gorputzak indarberritu ondoren, kaskoz kasko, Ello eta Urradiko lepoan

barna, Gora bazterretik Labaienera jaitsi ziren, Maritxu eta Pello anai-arrebak gidari, bortz ordu eta laurdeneko buelta osatuz. Ikuspegi ederrez gozatu zuten, urteko bertze aro batean paraje eder horietara itzultzeko gogoaz azaldu zuten ibiltariekin.

Otsailaren 16an Lekarozen

Buelta gustagarri horren ondoren, hurrengo hitzordura begira daude. Hilaren 16an, asteartean, Lekarozen bilduko dira eta Legate mendira joan-etorria egingen dute.



26 mendizale Soratxipin izan ziren urtarrilaren. UTZITAKOA

Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Gidabaimen guziak ateratzeko aukera eskaintzen dugu»

KARLOS SEMPER IGARZABAL
SEMPER AUTOESKOLA - BORTZIRIAK



Semper autoeskola orain dela 50 urte jarri zen martxan Karlosen aitaren eskutik. Geroztik, gauzak izugarri aldatu dira, adibidez, «gidabaimena ateratzeko egin behar diren teorikoa, maniobrak eta zirkulazio frogak» dio Karlosek. Adin kontua ere aldatu da. «Lehen adineko jende gehiagok ateratzen zuten karneta, orain 15-20 urte arteko gazteak dira aurkezten direnak. Ziklomotorraren hasi eta gidabaimen profesionalera ere bideratzen ditugu ikasleak, nabarmen igo baita lanerako gidabaimenaren beharra». Azken aldi honetan, bertze hirietan bezala, Donostian ere aztertzaile gutti daudenez, «arazo larriar aurkitzen gara azterketak egiteko eta, ondorioz, 15 eguneko epean 2-3 ikasle joaten ahal dira eta, horrek, atzerapen izugarria sortzen du» dio Karlosek.



«Covid-agatik antolaketa berria dugu kiroldegian»

MARIA PLAZA AZKARATE
GILTXAURDI - ELIZONDO



Neguko denboraldian web orria estreinatuta zuten eta, geroztik, hori erabiltzen dute erresebak eta izen-emateak egiteko. Ikastaroen funtzionamendua ere bertze gisara dute orain. «Pandemiarekin dena aldatu zaigu» dio Maria Plazak, kiroldegiko kudeatzaileak. Eta egia erran, erraztasuna eta praktikotasuna bilatuz, aitzinera egin dute ikastaro eta jarduera gehienekin. «Jardueretan apuntatzeko gehienez aste bat lehenago izena eman daiteke, eta tokia izanez gero, klasea den egun bera arte apunta daiteke. Klaseak banaka ordaintzen dira, hau da, bakoitzak egiten dituen saioen arabera ordaintzen du». Hori bai, taldea osatzeko gutienez 5 pertsonak eman behar dute izena, (5-10eko taldeak dituzte) astean behin edo bitan. Info +: www.giltxaurdi.eus edo 948452301 telefonoan.



«Hilabetero arropa berriak ekartzen ditut dendara»

MAITE ZOZAIA MARIEZKURRENA
MAITE MODA - DONEZTEBE



Doneztebeko Maite Moda bisitatzera sartzen denak, emakumeendako arropak eta osagarriak aurkituko ditu, markako arropak, neurri guztietakoak eta prezio doitueta.

«Jendea lasai sartzea gustatzen zait, –dio Maitek– liberekin osoarekin gauzak ikustea, presiorik gabe. Eta gero arropa etxean lasaigo probatu nahi izanez gero, lasai uzten diet eramaten» gaineratu du. Eta ez hori bakarrik, Maitek «hilabetero-hilabetero arropa berriak ekartzen» ditu dendara. «Jendeari gustatzen zaio berritasuna eta nobedadeak ikustea». Azken finean, horixe baita herriko denda batek duen armarik hoberena jendeari konfiantza irabazteko, «goxotasuna ematea eta hurbileko tratua eta zerbitzua eskaintzea».



Fisioterapiaz gain, dietetika eta elikadura zerbitzua

ANE EGIZABAL LLATA
FISIOETXEA - LEITZA



2002an Leitza Fisioetxea ireki baino lehen, hasita zegoen Ane Egizabalen ibilbide profesionala (Osakidetzan lehenik eta Osasunbidean gero). Baina bizitzak Leitzara eramaten zuten eta «oso gustura» dagoela esan digu berehala. «Urteekin jendeari konfiantza» lortu duela sentitzen du eta agerikoa da horrela dela. Orain bi fisioterapeuta eta dietista bat aritzen dira Fisioetxean, eskaintzen dituzten zerbitzuak asko baitira: fisioterapia eskuz, osteopatia, akupuntura, bizkortze ariketak (zentroan baita etxean ere), erditze aurretik eta ondotik egiteko ariketak, gimnasia abdominal hipopresiboa, K-STRETCH metodo posturala... baita fisioterapia zerbitzuekin erabat osagarria den dietetika eta elikadura zerbitzua ere.

Joare hotsez bete dute inauteriek eragindako hutsa

Ezohiko inauteriak izan dituzte aurten Zubietan, Aurtitzen eta Iturenen

TTIPI-TTAPA

Inauterietako astelehen eta asteartea egun handiak izan ohi dira herritarrentzat. Aurten, ordea, joaldun eta mozorro gehienek etxean gelditzea erabaki dute. Gutxi batzuk izan dira plazara atera direnak eta birusa uxatzeko joare kolpeak inoiz baino ozenago aditu dira karriketan. Ezohiko egoera honek herritarrengan eragin duenaz aritu dira Egoitz Gorosterrazu, Jabier Bereau, Igor Babaze, Gorka Fuentes eta Josu Santesteban TTIPI-TTAPAREKIN.

Jabier Bereau

Inauteriak gabeko egunak pena handiz bizi izan dituzte Iturenen: «gazteek pena izan dute joareekin ezin direlako ibili, baita besta ez dutelako egin ahal izan. Guri joareekin ezin ibiltze horrek eman digu min gehien».

Hala ere, alkateak argi zuen «instituzio bezala lan hori egin beharra» zutela: «jendea kontzientziatu behar izan dugu, erraz kutsatzen den birusa delako eta ezin dugulako jende-pilaketarik sustatu. Zaindu beharra dugu. Horixe da tokatu zaiguna».

Egoitz Gorosterrazu

Egoitz Gorosterrazu «hamasei urtera arte» mozorro atera izan da «baina geroztik, inauterietako astelehenean behintzat beti joaldun. Bertze egunetan tokatzen dena, umorearen eta lagunartean arabera».

Aurten, inauteririk gabe, «tristura handia» sentitu du iturendarrak. Joaldun atera-

tzeaz aparte, «herrian sortzen den giro berezia» falta izan du: «zahar eta gazte, neska eta mutil, denak batera... kuadrillarekin ez bada bertze batekin ibili eta igual-igual zaude, dantza, karrozak, besta... Inauteriak joareak baino aunitz gehiago dira eta aurten dena falta izan dugu».

Igor Babaze

Errege bezpera batean, lau urterekin, jantzi zituen lehen aldiz joareak Igor Babazek eta geroztik urtero atera da joaldun, baina baita mozorro ere: «Niri biak gustatzen zaizkit eta mozorroek ere garrantzi handia dute Zubietan. Normalean, astelehenean joareekin ateratzen naiz Iturenera eta asteartea mozorro-eguna izaten da Zubietan».

Inauteriek zubietarrei sortzen dien sentimendua hitzez esplikatzea zail egiten zaio Babazeri: «Joareek zerbait berezia daukate. Guretzat garrantzitsuak dira eta kanpora begira ere ikusmin handia sortzen dute...».

Josu Santesteban

Joaldun ateratzek «sentimendu handia» sorrazten dio Josu Santestebani, «ttiki-ttikitatik egin dugun zerbait da, beti jo ditut joareak, aitek ere jotzen ditu, etxean betidanik ikusi dugun zerbait da, betetzen gaituena...».

Inauteririk gabeko urterik ezagutu gabea zen Santesteban eta huts handia izan du. «Eguerdi partean sortzen den zalaparta eta jende pilaketa hori» ez ezik, estalpeko giroa falta izan du: «egun horietan



Egoitz Gorosterrazu eta Jabier Bereau iturendarrak. ONDIKOL



Igor Babaze, Gorka Fuentes eta Josu Santesteban zubietarrak. JM ONDIKOL



Aurtitzen ere bildu ziren joaldun batzuk. UTZITAKOEA

gure etxea hori izaten da, familia haundi bat bezala gara, otordu guztiak, gosari, bazkari eta afari hor egiten ditugu, jende askorekin egoten zara, akordeoilaria ere hor izaten dugu, giro espeziala da...».

Gorka Fuentes

Inauterien inguruan eta batez ere joaldunen inguruan dena berezia iruditzen zaio Gorka Fuentesi. Aurten ezin izan ditu sentsazio horiek bizitu:

«aspaldi bagenekien ez genuela inauteririk izanen, joan den azarorako hartu zuten erabakia bi udalek eta hasieran pentsatzen genuen erraz pasatuko genuela, baina inauteri garaian pena handiagoa izan da».

Hortaz, heldu den urtean, «hau dena bukatzen bada» inauterietarako gogo handia izanen dela uste du Fuentesek, «baina doble egitea zaila izanen da, topera egiten ditugu eta».



Oihangintza

loreak eta landareak



Baratzezaintza
Lorezaintza eta Abeltzaintza
Albaitaritza Produktuak
Maskotentzako Osagarriak
Ehizarako eta Arrantzarako
ekipamendua

ZELAI

DANTXARINEA +34 848 478 881 · ARNEGI +34 948 790 070



Leku-Eder, Bustitz - 31791 SUNBILLA
altzurisl@gmail.com - Tel. 948 450 504
M. 659 867 287 - 699 461 394

MENDI LANAK
EGUR ATERATZEAK
ESKABAZIOAK
GARRAIOAK
GARBITZE MEKANIKOAK
ITXITURAK

SU EGURRA ETA
PIKITEAK SALGAI

Neguko loalditik udaberriko loraldira

LARRETXEAK EGURRAK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri.
Pikiteak eta sutarako egurra.



Pio Baroja, 15 | Bera | T. 617 981 427



"TELLETXEAK" Lorazaintza

Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak | Paisajismoa



T. 619 418 683

Otxangoko Ind. 18 | LESAKA
johntellexea@hotmail.com
www.telletxealorezaintza.com



Martxoan udaberriari ongi etorria emateko gure balkoi eta lorategiak txukun izatea ezinbertzekoa da. Hona hemen etxeko landareak landatzeko eta zaintzeko zenbait gako:

- Landarearen ezaugarrien hobekien egokitzen zaion leku bat bilatu behar da. Kokapen egokiena landareak behar duen eguzkiaren araberakoa izan da. Behin landarea paratu dugun lekuan egokitu denean, ez da bertatik mugitu behar. Izan ere, landareek, animaliak eta pertsonak bezala, egokitzapen prozesu bat igarotzen dute eta behin hau eginda ez mugitzea gomendatzen dute.
- Landarea etxera ailegatzean loreontziz aldatu behar da eta bertan, landarearen ezaugarrietarako egokitzen den lurra paratu behar zaio.
- Loreontzia lurrez bete aitzinetik, loreontziaren oinarrian zuloak eginak daudela egiaztatu behar da. Zulo hauetatik landareak behar ez dituen ur soberakinak ateratzen dira. Hortaz, landarea altzairu edo zikindu daitekeen zerbaiten gainean kokatzen badugu, ur soberakinak biltzeko oinarria paratu behar da.

30 urtez zuen
baratzetan!

JARDINERIE
ANIMALERIE
LAFITTE



Udaberria heldu da!

Zuhaitzak eta fruitu landareak
landatzeko garaia da!

Bertako motak, hemen egoiztuak.

Loreak, tresnak, lore huntziak, kanpoko altzariak, maskotak.

Aukera handia et hainbeste eskaintza!

LAFITTE
Jardinerie

84, 1945 maiztaren 8ko etorbidea

64100 Baiona

tel: 00 33 5 59 42 24 42

www.lafitte.net



Berria!

Erlezaintzarako
tresnak eta
beharrezkoak
hemen salgai!

UDABERRIA DATOR, PRESTA ZAITEZ!

Aukera paregabea

Landiflor lorendan

Eskaintza zabala
denboraldiko loreetan,
landareetan...

Eta baita fruta arboletan ere.

Lore ontzi, lur ongarri
eta lorategi osagarriak
zuen esku.

Landiflor-en ere
Venta Peio
fideltasun
txartela
erabili daiteke.



Landiflor

Landiflor zure lorendan egunero irekia: 9.00 - 12.30 / 13.30 - 19.00 Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@ventapeio.com



Dantxarinea Ibarin Valcarlos Behobia
www.venta-peio.com ☎ 0820 562 267 (fr) ☎ (+34) 902 210 800 (es)

2021.02 | 11 | 775k | ttipi-ttapa 31



- Landareek adieraziko digute zenbat eta zein maiztasunekin ureztatu behar ditugun. Ez da komeni behar baino ur gehiago botatzea, zainak usteldu eginen baitira, ezta gutiegi ere, landarea idortu eginen baita. Gainera, noizean behin, landareak garbitu behar dira.
- Landareak hosto idorrek edo lore ximelak baditu, moztu edo kendu behar dira.
- Landareak berogailu eta bero iturrietatik urrun kokatu.
- Landareak etxeko animalietatik, batez ere katuetatik, urrun mantendu. Izan ere, katuek landareen hostoak ausikitzeko joera handia dute eta honek landareari kalte handiak sor diezaioke.
- Ongarri naturalak erabili landareak indartzeko. Ongarrien artean, egokiena eta merkeena etxeko animalien gorotza da.
- Lur azpian bizi diren animalien eta intsektuen kontrako neurriak hartu, dagozkien tratamenduak emanaz, edota harrapatzeko gailuak erabiliz.



LOREAK ETA LANDAREAK

Fruta-arbolak, kameliak,
azaleak, zuhaixkak,
arrosa landareak...

Otxango, 6 · LESAKA · T. 948 637 826

«Loreontziak, ontziak
eta landareak landatu
aitzinetik garbitu»

«Hostoa galtzen duten
zuhaitzak, igokariak,
fruitu zuhaitzak eta
zuhaixkak dagoeneko
landa daitezke, baina
adi hormarekin»

HUSQVARNA® MARKAKO PRODUKTUAK BATERIAREKIN



BATTERY
EXPERIENCE
SINCE 1973
HUSQVARNA GROUP



Husqvarna®

Husqvarna® banatzaile ofiziala



C/ Santiago 85 | ELIZONDO
T 948 580 898

www.biokbat.com



BERTAKO
SAGARRONDOAK

Oina basatidun sagarrondoak
bertako barietatekin txertatuak

www.zubialdepatxakak.com

Bengoarretxea etxea
Beintza-Labaien
T. 646 635 524



- Ilargiaren arabera momentu bakoitzean zer erein, zer landatu edota zer uzta jaso jakin dezakegu.
- Ilgoran eta ilargi berrian, lurretik goiti ateratzen diren baratzeak landareak erein behar dira. Ilbeheran eta ilargi betean berriz, lur azpian sortzen direnak. Fruta landareak ilgoran landatzen dira.

Sagar txertaketak

Gaur egun, txertoak ia urte guztian zehar egiten dira. Hala ere, bi txertaketa mota nagusi bereizten dira: negukoak eta udakoak.

- Udakoa azalean egiten den txertoa da.
- Neguan, berriz, adarreko txertoak egiten dira.

Azaleko txertaketak egiteko sasoi egokiena uztailetik eta abuztura bitartean izaten da. Neguan, berriz, adarreko txertaketa egiten da eta honen tenorea otsailetik eta apirilera bitartean izaten da. Zuhaitzen artean lehen loratzen direnak udareondoak edo makatzak eta muxikak izaten dira eta, orokorrean, fruitu zuhaitzetan loratzen azkena sagarrondoak izaten da, bere izerdia berantiarrena izaten baita. Txertaketa izerdia mugitzen denean egin behar da, izan ere, izerdiak txertoa gehiago itsasten du, eta ongi txertatu daitezen itsaskortasun hori beharrezkoa da. Txertoak, beti, ilbeheran egin behar dira. Txertaketa egurrarekin eta azalarekin egiten dugun lana da eta egitura sendoa eta indartsua izateko ilbeheran egitea komeni da.



**STIHL POTENTZIA
OSOAK, ORAIN
BATERIAREKIN**

ESKAINZA BEREZIAK ONLINE DENDAN !!

Aurki itzazu eskaintza onenak,
zure Stihl Denda espezialistan



STIHL

SEAL
MAQUINARIA

IRUÑEKO STIHL DENDA

MUTILOA

www.sealmaquinaria.com

948 24 80 00

SEAL
MAQUINARIA



Espezialistak eremu guztietan

profesionaletik profesionalera!

STIHL

AGRICOLA BIDASOA

Lorezaintza eta nekazaritza makinaren salmenta eta konponketa
Auzolan, 16 – Irun – 943 627 331 – agribidasoa@gmail.com

Eskola zaharreko leihoak eta solairua berrituak Ezkurran

Aurrera begira Erabilera Anitzeko Areto izan daitekeen gunea prestatu dute

TTIPI-TTAPA

Ikasle eskasia tarteko, 1999an itxi zuten Ezkurrako eskola. Eraikina baliatzeko, pixkanaka, zaharberritzen aritu da udala. Orain lau zapabortz urte, teilatua berritzearekin batera, ludoteka eta biltegia egin zituzten behealdean eta gaur egun gunea hori erabiltzen dute adinekoek.



Eskola zaharra.

Leihoak, zola eta sabaia

Azken hilabete honetan, berriz ere, lan horiei heldu diete. Batetik, eraikin osoko leihoak aldatu eta PVC materialez egindakoak paratu dituzte. Eta, bestetik, lehenbiziko solairuko zola eta sabaia zaharberritu dituzte.

Koronabirusak eragindako egoera honetan, segurtasun distantzia bermatuz biltzeko gunea dute biztanleek, aurre-

ra begira «beharra izanez gero, horren arrakastatsu gertatzen ari den jubilotekako kideak han biltzeko edota herritarrekin bilerak egin ahal izateko erabiliko dugu, baita ikastaroak egiteko ere» dio alkateak.

Udalak jakinarazi duenez, lan horiek guztira 19.714,32 euroko aurrekontua dute eta ordaintzeko dirulaguntza eskatuko dute.



UTZITAKOIA

Ezkurran ere ez dute inauteriarik izanen

Eskualdeko hondarreko inauteriak izan ohi dira Ezkurrakoak, eta etxez etxeko eta baserriz baserriko eskeak eta bertsoekin eta trikitixa doinuekin alaitutako afaria izaten dira inauterietan hutsik egiten ez duten hitzorduak. Aurten, ordea, Covid-19agatik ez da halakorik izanen.



Urrozko udaletxean astearte eta ortziraletan izaten da idazkaria. ARTXIBOKOIA

Idazkari-laguntzailea kontratatuko dute Donamaria, Oiz, Urroz eta Beintza-Labaienen

TTIPI-TTAPA

Donamaria, Oiz, Urroz eta Beintza-Labaiengo udalek idazkari-laguntzaile lanposturako deialdia zabalduko dute. Idazkari-laguntzaileak lau herrietan ari den idazkari nagusiarri lagundu beharko dio. Deialdia Nafar Lansarek kudeatuko du eta bertan izenemateko Malerrekan errol-datua egon beharko da. Lanaldi osoko lanpostua eskainiko dute eta eskakizunen artean euskara maila ona izatea nabarmendu dute.

Egun, idazkariaren egutegia modu honetan banatzen da:

astelehen eta ortzegunetan lau orduz Donamarian eta bertze lau orduz Beintza-Labaienen; astearte eta ortziraletan lau orduz Urrozen eta bertze lau Oizen; eta, asteazkenetan Donamarian. Udal ordezkariak adierazi dutenez beraien helburua «zerbitzu ona» ematea da. Zoritzarrez, denboraldi batez idazkaririk gabe egon dira eta, momentu honetan bi laguntzako «lana badela» ziurtatu dute.

Orain, sede elektronikoa instalatzen ari direnez, «ezinbertzekoa da bertze lagun bat kontratatzea».

Ilbeltzean 30 langabetu gehiagok eman dute izena Doneztebeko Bulegoan

TTIPI-TTAPA

2020. urteko langabetu kopururik handienak eman zuen izena abenduan Doneztebeko Enplegu Bulegoan, 912k. Aurtengo urte hasieran datu hori makurragoa da eta bertze 30 batu dira zerrendara, 942 dena. Joan den urteko ilbeltzean baino 182 gehiago dira.

Adinari dagokionez, 55 urtetik goitiko 229 langabetu daude (+8). 35 eta 44 urte arteko 228 lagun daude langabezian (+4). 45 eta 54 urte arteko 210 langabetu daude (+12). Gazteen artean, 30 eta

34 urte arteko 95 langabetu daude (+2), 20 eta 24 urte arteko 83 (-5), 25 eta 29 urte arteko 81 (+11) eta 16 eta 19 urte arteko 16 (-2).

Zerbitzuen arloak segitzen du langabetu gehien izaten, eta ilbeltz hondarrean 705 ziren (+10). Industria arloan ere nabarmen goiti egin du, 129tik 152ra (+23). Eraikuntzan berdin mantendu da (39), nekazaritzan abenduan baino bi gutiago (27). Aitzinetik lanik egin ez dutenen artean, 19 lagun daude langabezian, abenduan baino bat guttiago.

Inauterien seinalea egin dute eskolako eta guraso elkarteko lagunek

Lagun Artekoek bideo ederra osatu dute aurreko urteetako inauterietako argazkiekin



Inauteriei keinu eginez kalejira egin zuten urtarrilaren 29an. ENERITZ IRAOLA

TTIPI-TTAPA

Inauteriak behar bezala ospatzetik izan ez zuten arren, Nazabal eskolakoek urtarrilaren 29an egin zuten seinalea. Ipuinetako pertsonaien azalean sartu eta antzerki emanaldia egin zuten: erregelehoia, Edurnezuri eta zazpi ipotxak, txerrikume eta otsoen istorioak... Guraso elkartekoek ere festa-ekin bat egin eta 101 dalmaten mozorroa jantzi zuten soinean eta herrian barna kalejira egin zuten.

Bestalde, etxean gelditu beharra goxatzeko, aurreko urteetako inauterietako argazkiak bilduz bideo ederra osatu zuten Lagun Artekoek eta herritarren artean zabaldu zuten. Ea datorren urtean ospatzeko modua dugun.

Udalak aurtengo baso lanak esleitu ditu

2021eko baso lanak Imanol Mendilanak enpresak hartu ditu. Ateratako mendi bateko zaborren biltzea, beste zati bat itxi eta landaketak egitea izanen dira egin beharreko lanak. Bestalde, eskolako garbiketari buruz, berri, garbiketa egiten zuen pertsonaren gaixotasuna dela eta, zerrendan zegoen bigarrenari eman zaio aukera, honekuko egin dio eta hirugarren zegoena izango da zerbitzu hau emango duena. Gaixotu den pertsona osatzen denean berri berari aukera emateko asmoa du udalak.



Ane FAGOAGA MORENO, Bera >

«Jarduera ezberdinen bitartez ikasten dugu, modu oso praktikoan»



Ane Fagoaga Moreno (Bera, 20 urte) Lehen Hezkuntza graduako hirugarren maila egiten ari da Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI), Eskoriatzako campusean.

Zeintzuk dira zure hobby edo zaletasunak?

Mendira joatea eta lagunekin egotea.

Zergatik aukeratu zenuen Lehen Hezkuntza gradua?

Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Txikitatik garbi izan dut irakaste izan nahi nuela, betidanik gustatu izan zait hurrekin lan egitea. Behin gradua aukeratuta, unibertsitate ezberdinetako ate irekietan egon nintzen eta HUHEZI izan zen gehien erakarri ninduen, gehien bat bertako metodologiagatik.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Esperientzia ezin hobea izaten ari da. Egiten ditugun lanak hagitik praktikoak dira eta jende anitzekin egiten dugu lan, elkarte ezberdinak, gai ezberdinetako adituak, ikastetxeak... Horrekin gure lana hurbilago sentitzen dugu.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

HUHEZIn proiektua egiten dugu lan. Modulu desberdinak izaten ditugu eta modulu bakoitzean hainbat proiektu egiten ditugu. Normalean, bi aste irauten dute proiektuek eta beti taldean egiten dugu lan. Bukatzerakoan, proiektua modu desberdinetan aurkezten dugu: antzerkiak, bideoak, jolasak...

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Bertako giroa erranen nuke. Klaseria gustura joaten gara; eskolak ez dira magistralak izaten, teoria modu hagitik praktikoan erakusten digute eta jarduera ezberdinen bitartez ikasten dugu: irteerak egiten ditugu eskolara eta hezkuntza erakunde ezberdinetara, adituen hitzaldiak jasotzen ditugu, role playing-ak... Gainera, ebaluatze modua ere anitz gustatzen zait. Prozesua ebaluatzen dute eta ez da kalifikazio kuantitatiborik ematen, beti hobekuntzara bultzatzen zaituzte.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Momentuz, hurrengo urtean, ikasketak atzerrian bukatu nahi ditut eta gero geroak, daukagun egoerarekin egunerokoa bizi behar dugu eta.

www.mondragon.edu/prest

Herri Aretoan eta Atekabeltzen hainbat hitzordu

Dokumentala, hitzaldia, herri kirol saioak, olerki musikatuak eta kontzertua izanen dira hilabete honetan

JUAN MARI BARRIOLA

Abenduan Herri Aretoa ireki zutenetik, kultur eskaintza zabaldua izan da herrian. Joan den astean, esaterako, Miren Fagoaga herriko artistaren lanak ikusteko aukera izan zen *Dolua, barne hutsaren kolorea irudietan* erakusketan. Aste honetan eta ondokoetan izanen dute hitzorduek segida, baina Herri Aretoan egiten ari direnei, Atekabeltz Herriguneak antolatutakoak gehitu behar zaizkie.



Hilaren 26an errezitaldia egingen dute.

Saharako egoera hizpide

Larunbat honetan, esaterako, otsailaren 13an, Saharako egoerari buruzko mahai-ingurua eta *Haizearen egia* dokumentala ikusgai izanen dira Herri Aretoan, 18:00etan. Sarrerak bi eurotan eskura daitezke Astizen eta Maimurren.

Osasunaz hausnartzen

Osasunaz beste begirada bat formakuntza zikloaren barne, laugarren saioa otsailaren 18an izanen da Atekabeltzen. Goiuri Alberdi Arestik *Zer da bizitza osasuntsua? Elikaduratik gure interdependentziak arakatzen* hitzaldia emanen du, 19:00etan.

Herri kirolak

Herri kirola maite dutenek gozatzeko aukera izanen dute otsailaren 21ean, 12:00etatik aurrera. Batetik, Urrezko Harrijasotze Txapelketako hirugarren eta azken finalerdia jokatuko dute Mikel Lopetegui *Urrak*, Gorka Etxeberriak eta Jon Gisasola *Zelai Vak*. Bestetik, Binakako Aizkolari Txapelketako hirugarren finalerdia jokatuko dute Joxean Etxeberria eta Unai Otaegik, Hodei

Ezpeleta eta Goizeder Beltzak eta Luis Polanco eta Jon Telletxeak. Trontzan ere ariko dira baina lerro hauek idazterakoan zehaztu gabea zen zeinek parte hartuko duten.

Olerki musikatuak

Mikel Illarregi eta Ione Gorostazu izanen dira otsailaren 26an egingen den *Bi(zi)hotsak* errezitaldiko protagonistak. Alfabetotik aukeratutako hizkiekin abiatuta hitz bat sortu eta horri lotuta olerkiak egin dituzte eta musika lagun, jendaurrean aurkeztuko dituzte Herri Aretoan, 19:00etan. Sarrerak bi eurotan Astiz eta Maimurren eskura daitezke.

Kontzertua

Otsailaren 27an, *Akelarre* pelikulan egindako lanagatik Goya sarietarako izendatu duten Maite Arroitauregi *Murseg*o musikaria Atekabeltzen izanen da. *Lapur(ari)ketak* izenburupean kontzertua emanen du, 19:00etan.

Karrape irratia berriz ere antena uhinen bidez entzun daiteke

TTIPI-TTAPA

Udaletxeko teilatuko berritze lanak egiteko Karrape irratiko antena kendu behar izan zuten eta aste batzuez Internet bidez bakarrik aditu ahal izan da. Lanak bukatuta, antena berriz ere martxan paratu dute eta, ilbeltzaren 29az geroztik Internetez –*www.leitza.eus* atarian sartu eta 'zuzenean entzun' irudian klik eginda– eta betiko irratia seinalearen bidez entzuten ahal da, 107.8 zenbakian. Zuzeneko saioak 10:30etik 14:00etara izaten dira.

Herri lurren aprobetxamendurako ordenantza

TTIPI-TTAPA

Herri lurren aprobetxamendurako ordenantza aldatzen ari da udala. Gaiaren harira, dagoeneko herritarrekin hainbat bilera egin dituztela jakinarazi du Mikel Zabaleta alkateak eta haien ekarpenak jaso eta aztertu ondotik, ordenantza berria onartuko du laster udalak.

Alkateak aurreratu duenez, ordenantza berriak «zenbait berrikuntza» ekarriko ditu, besteak beste, auzolanari buruzkoak, PAC ziurtagiriari lotutakoak...

'... eta plaza larre bihurtu zen' dokumentala DVD formatuan salgai

TTIPI-TTAPA

Konfinamendu garaiko memoria kolektiboa bilduz, udalak eta Labrit Ondareak urte hasieran estreinatu zuten... *eta plaza larre bihurtu zen* dokumentala. «Herriak konfinamenduan emandako erantzun kolektiboa aitortu» nahi izan zuten gisa

honetara. Orain, berriz, 45 minutuko lan horren 500 kopia salgai jarri ditu udalak DVD formatuan eta gero, udalaren webgunean ere eskuragarri jartzeko asmoa du. Bestalde, egindako azterketa antropologikoaren material guztia udalaren esku utzi du Labritek.



UTZITAKOIA

Santa Agedako ospakizunik ez aurten...

Euskal Herriko toki askotan bezala, otsailaren 4an Santa Ageda opatzen da gure herrian. Aurten, ordea, bizi dugun egoera berezia dela eta, ALKE Kultur Taldeak eta gurasoek iluntzean antolatu ohi zuten kalejira bertan behera utzi zuten, «ez dagoelako horretarako baldintza egokirik».

Heliportuko eta plazako obrak otsail bukaerarako prest

Heliportu berria «oso baliagarria» izanen dela adierazi du Mikel Zabaleta alkateak

TTIPI-TTAPA

Plazaola trenbideko garaileen eraikina zegoen tokian, heliportua eraikitzeko lanek aurrera jarraitzen dute eta Mikel Zabaleta alkateak TTIPI-TTAPAri adierazi dionez, «azken lanak» egiten ari dira eta «hilabete honetan bukatuko dituzte». Heliportu berria «oso baliagarria» izanen dela dio alkateak, «larrialdi kasuetan erantzun eraginkorragoa eta azkarragoa» ematea ahalbidetuko duelako: «osasun etxetik, ambulanzia eta suhiltzaileen parketik hurbilago dago, iristeko bidea

egokiagoa da, baita helikopteroarentzat ere». Lanek 21.414,56 euroko aurrekontua dute eta Nafarroako Gobernuak %100-ean diruz lagundua izanen da.

Bestalde, plazako lanak ere bide onetik doaz. Paretak, harrizko eserlekuak eta frontisa moldatzen ari dira, eta zoruan harrizko eserlekuak bukatzen diren tokiraino hormigoia botatzekoa dute. 78.424 euroko aurrekontua dute eta 50.000 landa garapeneko programatik jasoko ditu udalak. Alkatearen arabera, «plazako obra ere hilabete honetan bukatuko dute».



Ilbeltzaren 23an Miru sorginaren emanaldiaz gozatu zuten Torrean. UTZITAKOA

'Izadi gurasoekin etxera' egitasmoarekin bat egin du Torreak

TTIPI-TTAPA

Torre Herrikoak Burlatako eta Algortako hainbat herritarrek abiatutako 'Izadi gurasoekin etxera' egitasmoari babes adierazi zion urtarilaren 23an. Miru sorginaren emanaldia ikusi eta txokolate beroa dasatu bitartean, Izadiren egoera ageriko egin eta «askatasunean,

bere gurasoekin, bizi behar duela» aldarrikatu zuten. Horrekin batera, hilabetero dinamika bat abiatu dute: «hilabete bakoitzean, hilak 23 ditueanean, ekimen batzuk burutuko ditugu, egoera ezagutzera eman eta indarrak batzeko. Dena mezu argi batekin: Izadi gurasoekin etxean nahi dugul!».

DESKONTUAK

LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!

<p>2019-2021</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Uhartre Gotzaina, 1- behea 4 LEITZA T. 948 51 36 20</p>	<p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Landa Behekoa LEITZA T. 948 51 04 37</p>	<p>%3 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55</p>	
<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Huarte Gotzaina, 19 LEITZA T. 948 51 01 73</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTMEDERM markan ezik</p> <p>Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73</p>	<p>%10 DESKONTUA koltxo, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik</p> <p>Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08</p>	<p>%15 DESKONTUA bainugelako osagarrietan</p> <p>Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76</p>
<p>%10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan</p> <p>Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46</p>	<p>%5 DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan</p> <p>Amazabal, 23 LEITZA T. 948 61 09 74</p>	<p>%5 DESKONTUA gozotegian 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20</p>	<p>%5 DESKONTUA erosketa guztietan</p> <p>Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48</p>	<p>%10 DESKONTUA hamar saioko bonoan</p> <p>Uhartre Gotzaina, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30</p>

Kezka eta haserrea betizuak herrian dabiltzalako

Zenbait etxetan kalteak eragin dituzte eta udalak, bere aldetik, jabeen erretiratzeko deia egin die

TTIPI-TTAPA

Azken aldian, ilunabarretan, betizuak maiz dabiltza herri-gunean eta horrek haserrea eta kezka eragin ditu herritarren artean. Itxura denez, zenbait etxe ataritan kalteak ere egin dituzte, hala nola, loreak jan, kakaz zikinduta utzi...

Egoera zein den ikusita, udalak bere kezka erakutsi du eta argi utzi nahi izan du «aziendak ezin dutela herrian barrena libre ibili». Jabeen betizuak herritik erretiratzeko eskatu die eta «abereen kontrola eta ardura abeltzain bakoitzarena» dela orotarazi du.



Betizuek lorea jana eta lorategian kaka egina.

Zakurrak lotuta

Zakurren harira ere mintzatu da udala eta zakurrek «lotuta eta jabearekin ibili behar dutela» azpimarratu du.

Ez hori bakarrik. «Zakurren kakak bildu behar direla» ere gaineratu du, eta horretarako poltsak udaletxean har daitzekeela adierazi du.

PACerako behar diren ziurtagiriak eskatzeko aukera

TTIPI-TTAPA

Ardi, behi edo txekorren PAC kanpainarako behar diren ziurtagiriak eskatzeko epea zabalik da. Azken eguna otsailaren 17a izanen da, dokumentu hauek aurkeztuta: errolda agiria hiru urteko antzinatasunarekin; herrian, urtean gutxienez beder-

ratzi hilabetez bizi denaren zinpeko aitortpena; udalarekin zorrik ez duenaren agiria; bakoitzak jabetzan edo alokairuan dituen lurren zinpeko aitortpena; azienda kopuruaren agiria eta txosten sanitarioa eta nagusiki abeltzaintzan edo nekazaritzan dabilenaren agiria.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa



Duela zenbait urte, Umore Ona Elkartearen Egunean ateratako argazki bat.

Umore Ona elkarteak bazkide egiteko epea martxoaren 7ra arte zabalik

TTIPI-TTAPA

Umore Ona elkarteak bazkide berrientzako izen-ematea ireki du. Apuntatu nahi dutenek martxoaren 7a baino lehen elkartearen egoitzara joan edo posta elektronikoz goizueta.koumoreona@gmail.com helbidera idatzi beharko dute. Izena ematen dutenek beste

bi bazkideren babes beharko dute. Horrez gain, sarrera gisa, ordainketa bat egin beharko dute: 25 urte baino gehiago dituztenek 510 euro edo 70 euroko kuota bat eta 40 euroko 11 ordaindu beharko dituzte; 25 urte baino gutxiago dituztenek, berriz, 300 euro edo 25 euroko 12 kuota.



Joan den urteko inauterietan zomorro ibili zirenak. FELIX LOIARTE

«Pena handiz» baina inauteriak bertan behera utzi dituzte

TTIPI-TTAPA

Egoerak hala behartuta, aurten ez dugu halako irudirik ikusiko, «Covid-19a dela eta, Mozorro taldeak, guraso elkartearekin eta udalarekin batera, aurten ez direla inauteriak ospatuko» jakinarazi baitu.

Zabaldu duten oharrean, «erabakia pena handiz» hartu

dutela diote, «baina pandemia egoera honetan, neurriak errespikatuz eta arriskuak ekiditeko erabakirik onena dela uste dugu».

Egoerak hobera egingen duen itxaropenarekin, «espero dugu Goizuetako inauteriak berriro ere elkarrekin ospatzeko aukera izatea», gaineratu dute.



Duela bospasei urte auzolanean herrigintza eskola jarri zuten martxan.

Piketeak egiten ikasteko saioa larunbatean

Nekazaritza munduko lanen jakintza elkartrukatzeko asmoz hainbat saio egiteko asmoa dute

AINHOA ANSA

Cederna Garalur Elkartearen eskutik, eskualdeko elikadura sistema lantzeko proiektuarekin lanean jarraitzen dute, eta herriz herri bilerak egiten ari dira. Horietako bat izan zen ilbeltzaren 28an Maisuenean egin zena, Cederna Garalurreko Amaiur Unzueta teknikariaren gidaritzapean.

Landutako gaien artean, eskualdean nekazaritza sektorean eta elikaduran lantzen ari diren hainbat ekimenen berri izan zuten herritarrek, batik bat; eskualdeko base-ritarren elkartearen sortze lanen berri eta Leitzan forma hartzen ari den Mimukai garapen eta transformazio guinea sortzeko proiektuaren berri.

Azoka ibiltaririk ez

Azoka ibiltariaren egutegian Aranon azoka bat antolatzearen aukeren balorazioa ere izan zuten aztergai bileran, eta bertan zeudenen artean erabaki zuten Arano egutegi horretatik kanpo uztea aurtengoz.

Auzolan egutegia

Azkenik, Auzolan Egutegiaz hitz egin zuten. Aurreko bilera batean sortu zen ideari tiraka, baserri munduko egitekoak auzolanean nola egiten diren erakustea eta zabalitzen saiatzea da asmoa. Formazioa eta nekazari munduko lanen jakintza elkartrukatzea izanzen lirateke helburuak eta horretarako, lehen auzolana piketeak egitea izan daitekeela pentsatu zuten.

Piketeak egiten

Beraz, larunbat honetan, otsailaren 13an, piketeak egiten ikasteko saioa antolatu da Plazako Bordan. 10:45ean eginga da hitzordua eta bertan elkartu eta beharrezko materialak eta erremintak eskura izanzen dira lan horretan ikusiz ikasi nahi dutenentzat.

Josu izanzen da piketeak egiten erakusteko saioa prestatzearen arduraduna oraingoan eta, parte hartu nahi duten guztiek berari deitu beharko diote larunbata baino lehen.

Araztegia eraikitzeko obrak udaberrian hasiko dituzte

TTIPI-TTAPA

Araztegi berria eraikitzeko proiektuak aurrera jarraitzen du, eta Joxan Ruiz alkateak TTIPI-TTAPARI adierazi dioenez, «udaberri aldera hastea espero dugu».

Araztegi zaharra egoera txarrean dagoela ikusita, NILSA sozietate publikoak joan den urtean iragarri zuen berria eraikiko duela, 200 biztanle baino gutxiagoko herri guztietan araztegi-estazioak jartzeko duen planaren barne.

Proiektua NILSAK hartua du bere gain eta bost bat hilabe-

teko lana izanen dela esana du. Araztegia jartzeaz gain, bi hustubide berri egiten dira eta lehendik dagoen kanal batera konektatuko dituzte.

Proiektu honi lotuta, dirulaguntzak erabiliz, udalak saneamenduko hoditeriak berri-ritu zituen iaz, Ruizen hitzetan, «teknika berriak erabiliz». Hurrengo urratsa araztegia eraikitzea izanen da eta «hori izanen da aurten Aranon egiten den proiektu nagusia».

Bestalde, kamera iluna eguraldi ona hastean inauguratuko dutela azaldu du.

Desfibriladorearen inguruko azalpenak emateko ikastaroa egingen dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak emandako dirulaguntza tarteko, udalak desfibriladorea jarri du medikuaren kontsultategiaren kanpoaldean.

Itxura denez, erreferentzia-zentroa 20 minutura baino gehiago den herri txikietan desfibriladorea beharrezkoa da, eta horixe izan da Aranon kasua, Goizueta 20 minutu baino gehiagora dagoelako.

Joxan Ruiz alkateak argitu duenez, «oraingoz, desfibriladorea instalatu baino ez dute



Desfibriladorea kontsultategi atarian.

egin. Aurrerago nola erabili behar den jakiteko eta bestelako azalpenak emateko ikastaro bat ematera etorriko dira. Herritarrei horren berri jakinaraziko diegu».



Bizikleten salmenta eta konponketa.

- 📍 Kanttonberri, 1 | BERA
- ☎️ T. 948 631 218
- ✉️ joxemi@kateabike.com
- 🌐 www.kateabike.com













'Futbolistok' bakarrizketa saioa otsailaren 21ean

Zuhaitz Gurrutxaga aurkezle ezagunak bere bizipenak eta anekdotak azaleratuko ditu

TTIPI-TTAPA

Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, Zuhaitz Gurrutxaga telebista aurkezle ezagunaren *Futbolistok* bakarrizketa saio umoretsua izanen da otsailaren 21ean, igandean, Iruritan. Arratsaldean, 19:00etan, hasiko da emanaldia, Gizarte Bilgunean (gonbidapenak 18:30etik aitzinera eskuratu ahal izanen dira).

Sinopsia

Emanaldi horrek Gurrutxaga Real Sociedad futbol taldeko jokalaria zeneko garaira eramaten ditu ikusleak eta bere lehen



bakarrizketako zenbait pasarte berreskuratzeaz gain, denbora hartako beste hainbat bizipen eta anekdota azaleratuko ditu: umoregintzan, telebistan, antzerkian eta musikan izandako esperientzia, erraterako.

Baztan Kantuz otsailaren 21ean Elbeten

Otsailaren 21ean, eguerdian, plazatik abiatuta, Baztan Kantuz egitasmoa izanen dute Elbeten. 12:00etatik 13:00etara karrizak karrizka ibiliko dira eta nahi duen orori parte hartzeko gonbidapena luzatua diote: «etor zaitez, zain gaituzu!».

Klaustrofilia erakusketa ikusteko hondarreko egunak

Arte Garaikidea Nafarroan zabaltzeko Uholdeak erakusketa programaren barne, otsailaren 13ra bitarte *Klaustrofilia* erakusketa ikusgai dago Arizkunenea kultur etxean. Informazio gehiago www.centrohuarte.es atarian dago eskuragarri.

Osasunari buruzko formakuntza saioak otsailean Elizondon

TTIPI-TTAPA

Osasuna osotasunean aztertzeko jardunaldiak izanen dituzte otsailean Elizondon. Heldu den ortzegunean, otsailaren 12an, abiatuko dira Arturo Vinuesa medikuaren *Xertoa zu zeorre zara* solasaldiarekin. 18:00etan dute hitzordua Arizkunenea kultur etxeko goitiko solairuan.

Otsailaren 19an, ordu eta toki berean, biologia molekularrean doktore den Asier Galanekin *Oinarri zientifikoak biomedizinan* goiburupen bilduko dira.

Biharamunean, 11:00etan, Nekane Jurado ekonomilariak Gaurko egoeraren gakoak izanen ditu solasgai. Azkenik, zikloa borobiltzeko, Asier Arregi ingeniari agronomoa eta geobiologoa 5Gaz, osasunaz eta elektromagnetismoaz ariko da. Hondarreko saio hori otsailaren 26an izanen da.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, koronabirusak eragindako egoeraren aitzinean, osasuna bermatzeko, segurtasun neurri guztiak bete eta edukiera mugatuz eginen dute formakuntza zikloa.



JM ONDIKOL

San Anton zozketan sarituak

San Anton Eguneko zozketaren irabazle batzuk agertu dira dagoeneko: aratxea Javier Pinorentzat izan da, txerria zahar etxeko langileentzat; eta bildotsak Mertxerentzat. Magra 4.403 zenbakiari egokitu zitzaion eta otsailaren 17ra arteko epea du saria jasotzeko. Zorionak irabazleei!

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...

konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

«Herritar guztien beharrak asetzen saiatuko gara»

PELLO SARRATEA SANZBERRO ALMANDOZKO ALKATEA

Azken 20 urteetan alkate izan den Luis Roldani Pello Sarrateak hartu dio lekukoa. Taldekideekin batera, «sortzen diren arazoak konpontzeko eta herria hobetzeko» lan egingen du almandoztarrak

N. BAZTERRIKA

«Bizimodua herrian egiten duen Almandozko gaztea» da Pello Sarratea Sanzberro. Abeltzaintza du ogibide, eta egunerokoan inguruko mendietan ibiltzen da harat-honatean, «behi, zerri eta behorren bueltan». Orain arte bitoki eta lantoki izan duena langai bihurtuta, ilbeltz hasieratik, alkate karguak dakarren ardura bere gain hartua du Sarrateak: «Luis Roldan izan da hondarreko hogeitau urteetan Almandozko alkate eta hark ez zuela segituko erran zuelarik bertze herritar batzuekin solas egin nuen. Kargua hutsik ez gelditzea inportantea zela ikusi genuen...».



Pello Sarratea izan den Almandozko alkate ondoko urteetan. UTZITAKOIA

Taldea «herriaren irudia»

Baten eta bertzearen konpromisoak lagunduta, talde bat osatu zuten eta «laguntzarekin alkate izateko erabakia hartzea ez zitzaidan zail gertatu». Orain artean udal kontuetan ibili gabea da Sarratea, eta horretan «Jeronimo Jauregiren esperientzia lagun» izan du: «orain arte kargudun izan da eta badu honen berri».

Gainerako alkate lagunekin, berriz, «taldea herriaren irudia» izaten saiatu dira, herritar guztien beharrak antzemateko: «Jabier Sanzberrok seme-alabak ditu eta gurasoen ikuspegia du; Beatriz Etxeberria Mendiola auzoan bizi

da, eta ongi da hangoren bat taldean izatea; eta Gorka Altzuarte eta biok gazteon iritzia biltzen ahal dugu».

Auzolana eutsi eta indartu

Taldez gain, «bertze herritar aunitzek ere laguntzeko borondate handia» dutela nabarmendu du: «herriko bestak, erraterako, gazteok antolatzen ditugu eta horretarako batzorde bat dago. Batzorde hori bezala, uraren horretan ardura nork duen argitu beharko da...». Bai alor horietan, baita azpiegiturak hobetzeko eta inguruak txukuntzeko ere elkarlana izaten dute oinarri herrian:

«pistetako sasiak mozteko, hormigoia botatzeko eta herriko bertzelako mantentze lanak egiteko auzolanak ere egiten ditugu eta hori indartu nahi dugu, gazteok gehiago inplika gaitezen».

Ura, saneamendua eta segurtasuna lehentasun

Hitz guttitan «herriko dirua kudeatzen, batzarrak antolatzen eta herriko bertze aferak konpontzen» ibili beharko du Sarrateak, «baita Baztango Udalarekin hartu-emanen ere». Horretarako «denen artean erabakitzen dena» izan du gidari. Gainerako herrietako alkateekin batera, funtzionamendua ikasteko lehen-

biziko bilkura izan zuen urtarilaren 21ean eta abiapuntua markatuta, lanean hasiak dira: «herrian etxeetara ailegatzen den urarekin arazoak daude, ez du presiorik. Hor dagoen arazoa aztertu eta irtenbidea ematea izanen da helburua». Eta ondotik, «2011z geroztik alde batera utzita dagoen eta beharrezkoa den karrika nagusiaren saneamenduarekin hasi nahiko genuke». Aunitz dira ikusten dituzten beharrak eta segurtasun aldetik ere «zer hobetua badagola» uste dute. Batetik, «baserrietara doazen errepideetan bazter-babesak» paratzea gustatuko litzaieke eta, bertzetik, «herrian parrik jarriz lasaitasuna irabaziko» dutelakoan daude: «Almandozen herrira datozen bideek ez dute inongo ateka edo parrilarik eta aziendak bidez bide N-121-A errepide-raino irten daitezke». Horrekin, abeltzainon lasaitasuna eta hemen pasatzen den ororen segurtasuna lortuko genuke». Aldaketa horiek guztiak, ordea, ez dituzte egun batetik bertzera lortuko eta hori arrasgarbi dute: «herriotan Baztango Udalaren menpe gaude eta pixkanaka egingen dugu lan...».

Aurreikusitakoaz harago, «momentuan sortzen denari erantzuten eta lan ona egiten» saiatuko dela dio taldeak eta bide horretan lan egin duen alkate ohia eta taldea eskertu nahi izan du Sarrateak: «20 urtez hainbat lan egin dituzte herrian: Iturriotzeko iturria konpondu, hilerria txukundu, eskola berria egin, frontoian beirateak paratu...».

Herria biziberritzen

Zaintzeko egin den lanari esker, «herriak duen edertasunak eta kokapenak erakargarri egiten du Almandoz» alkatearen ustez. Eta, izan horregatik edo bertzelako arrazoiengatik, «azken urteetan gazte dezentek herrian gelditzea erabaki du. Orain sei-zazpi urte baino haur gehiago daude eta bizitasuna sumatzen da».



Miren Gorrotxategirekin bilduko da irakurle taldea. UTZITAKOIA

'Sotoan gordeak' lanaz solasaldia otsailaren 25ean

Baztango Euskara Zerbitzuak Facebook erabiltzaileen artean liburuaren zozketa egingen du

TTIPI-TTAPA

Miren Gorrotxategik, (H)ilbeltza bekaren III. edizioaren irbazleak, plazaratutako *Sotoan gordeak* lanaz solastatzeko aukera izanen dute otsailaren 25ean, Elizondon. Irakurle taldeak antolatutako hitzordu irekia Arizkunenea kultur etxean izanen da 18:30ean.

Horrez gain, Baztango Euskara Zerbitzuak idazle azpeitiarrak argitaratu berri duen liburuaren zozketa egingen duela iragarri du. Parte hartu nahi dutenek euren Facebook atarian argitaratu duten berria otsailaren 15a baino lehen partekatu bertzerik ez dute egin beharko.

Europako isuna saihesteko tuneletako obrak aurten hasi beharko dituzte

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuari duela bi urte akitu zitzaion epea Belate eta Almandozko tune-lak Europako Segurtasun Arauetara egokitzeko eta, obrak oraindik hasi gabe daudenez, edozein momentutan jaso dezake Europako agintarien zigorra.

Hori horrela, Lurralde Kohe-sioko kontseilariak, Bernardo Zirizak, tunelen bikoizketa lanak aurten hasteko milioi erdi euro baino gehiago aurreikusiak dituela adierazi zuen urtarrilaren 27an Parlamen-

tuko lan-batzordean. «Milioi erdi euro baino gehiago ditugu aurten bi tunelen obrak hasteko eta beste ehun milioi euro hurrengo urteetarako».

Bi tunel hauek arazo larriak dituzte Europako txostenaren arabera. Sute edo istripu larri bat gertatuz gero, ez dute larrialdi-irteerarik, ezta airez-tapen egokirik ere. Horregatik, «arriku handiko» tunelak direla diote europar agintariek. Istripuez gain, aski ezaguna da azken urteotan maiz itxi behar izan dituztela konponketa lanak egiteko.

Javier Ayerrak Baztan futbol taldea utzi du

Baztan futbol taldearekin, hirugarren mailan ari zen Javier Ayerra Urtegak taldea utzi du, formakuntzarekin segitzeko Nafarroatik kanpo joanen delako. Taldekideek atek irekita dituela erran eta zorte ona nahi izan diote.



OTEIZA
ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

[oteizaarquitectos](https://www.instagram.com/oteizaarquitectos)

MARMOLES SOULE

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN S.L.
VALLES DE CAJASTERIA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Ostatu turistikoak arautzeko azterketa hasiko dute

Arautu artean «denbora puska»joanen denez etxejabeei «ardura soziala» eskatu die

TTIPI-TTAPA

Baztango EH Bilduk apartamentu-turistikoko alokairuko bizitegiaren izaten ari diren ondorioez ohartarazi du. Ildo horretan, «Baztango Udalak ostatu-turistikoko arautzeko sektorearen azterketa hasi duela» iragarri du eta, diotenez, «badaiteke arauketa berriarekin gaia bideratu ahal izatea».

Hala ere, «arauketa egin orduko denbora puska» bat joanen dela diote eta, «alokairuko bizitegiak apartamentu turistikotarako aldatzeak gelditu gabe segitzen duela» ohartarazi dute. Horregatik, «baztandar guztien eta bereziki etxejabeen ardura sozialari dei egin nahi» dio EH Bilduk, «herritarrek bizitegia edukitzea duten beharra eta eskubidea» kontuan hartuz.

Prentsa-oharrean diotenez, «bizitegia izatea aunitz zailtzen

ari da Baztanen». Etxetzarrekin gertatzen ari denaz gain, «apartamentu turistikoak han-hemen agertzen ari direla» salatu dute. Apartamentu hauetako aunitz alokairuko bizitegi gisa erabili izan dira, jabeak iritzia aldatu eta ostatu-turistikoa izatea erabaki duen arte.

Baztango EH Bilduren iritziz, batetik, «hutsik dauden bizitegi aunitz» daude eta, bertetik, «etxe aunitz bigarren bizitegia gisa erabiltzen» dira. Eta horrek «bi ondorio ditu: bizitegia alokairuan ezin hartu ahal izatea eta, hartzekotan, alokairuaren prezioa garestitzea».

Guzti honek segituz gero «bailara biziartzatzen duten gazteak, profesionalak, migratzaileak... lekutuko direla» ohartarazi dute eta horrek «zerbitzuetan, lanetan, demografian... ondorio handiak» izanen ditu.

Alokairuko etxebizitza publikoa sustatzea onartu du Udalak

TTIPI-TTAPA

Baztango Geroa Baik eskualdeko herritarren etxebizitza eskaerari erantzuteko, moziobat aurkeztu zuen urtarrilaren 28ko osoko bilkuran. Zehazki, alokairurako etxebizitza publikoak bultzatzea eta horretarako, «udalaren jabetzakoa den etxebizitzetarako edo dotazioarako lurra Nafarroako Gobernuaren esku» uztea proposatu zuen «etxebizitza publikoa sustatzera bideratzeko». Ahobatez onartu zuen Udalak.

Geroa Baik «eskaintza urria eta prezio handien ondorioz etxebizitza alokatzeko dagoen zailtasuna dela eta» bultzatu zuen ekimen hori. Horrekin batera, azken borts urteetan Nafarroako Gobernuak alokairuko etxebizitza eskuragarria sustatzeko tresnak aktibatu dituela gogorarazi zuen, hala nola, *Navarra Social Housing* sustapen publikorako plana martxan jartzea, 500 etxebizitza baino gehiagorekin, edo partikularrek Alokairu Poltsaren programari utzitako erabilerarik gabeko etxeen alokairua, etxebizitza sozietate publikoak kudeatzen du eta gaur egun 700 etxebizitza baino gehiago ditu bere baitan.

Geroa Baik gogorarazi zuenez, politika hauek Iruñerriatik haratago hedatzea proposatu zuen Nafarroako Gobernuak, lurralde osora zabalduz.

«Etxe hutsak herritarren esku»

Joseba Otondo alkateak aipatu zuenez, «udalek, normalean, lurzoru publikora irits daitezke hirigintza-sustapen pribatuaren bidez, hirigintza-proiektuaren %10 horretara bideratu behar baita. Baina urtetan, udalak lursail horien dirua jasotzearen alde egin zuen». Horrela, gaur gaurkoz, ez dago herri-lurrik sustapen publikoak egiteko. Otondok adierazi duenez, azken urteotan udala lurzoru publikoa lortzeko lurren hirigintza sustapenen %10 eskuratzen saiatu da eta honela, «lehen aldiz eraikuntzarako herri-lurrak baditugu». Alkatearen erranetan, «lur horiek uzteko prest dago udala, jabetzari uko egin gabe, alokairu sozialeko bizilekuak egiteko», baina, horren aitzinetik, «komeniko litzateke Gobernuak dituen etxeak herritarren eskura jartzea, gehienak hutsik dauden Oronozko bidezainen etxeak bezala» eta, beraz, «hortik has liteke, etxebizitza berriak eraiki baino lehen. 4.472 etxebizitza kontabilizatu dituzte Baztanen; horietatik 2.869 lehen etxebizitza dira eta 1.603 bigarren mailakoak edo hutsik daude, horietatik 400 Elizondon. Beraz, «lehenik etxebizitza hutsen parkea erabili beharko litzateke, eta osagarri gisa, etxebizitza berriak eraiki litezke».

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatu



Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

Suteia-Zaldain
instalazioak
IGOGAILUAK



PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

1 KANPOKO IGOGAILUAK

Kanpoko fatxadaren guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.



2 BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpil-aulkian daudenentzako egokituak.



3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.



Erdizen meategia egiteko proiektua berrartu du Magnak

Herri lurren kontrako erasoen aitzinean mobilizazioak izanen direla jakinarazi du Erdiz Bizirik Plataformak

TTIPI-TTAPA

Magnesitas Navarra (Magna) enpresak Erdiz inguruan meategia egiteko proiektuari ekin dio berriz. Duela aste batzuk udalari bilkura egiteko eskaria egin zioten enpresako ordezkariak, Erdizeko bazkalekua buruz prestatu duten proposamena aurkezteko, baina Erdiz herrilurra denez, aurkeztekotan Batzar Nagusiko kideei egin beharko ziela erantzun zien udalak. Ilbeltzaren 25ean egin zuten bilkura hori Batzar Nagusiko kideekin.

Bilkuran jakinarazi zuten, 2021eko lehendabiziko sei hilabetetan aurkeztuko dute proiektua Nafarroako Gobernuan. Bilkuran, Batzar Nagusiko kideek hirutan galdegin zieten PSIS edo Udalez Gaindiko bezala tramitatuko ote zuten, «eta Magnako ordezkariak ez zuten ezetik erran». Magnaren proposamena eusten duten azterketak eta aldeko txostenak aurkeztu zizkieten batzarkideei.

Ageri denez, 20 milioi euroko inbertsioa egitea da Magnaren asmoa, eta «proiektua Erdiz baliatzen duen abeltzaintzarekin eta balleko bizimodu tradizionalarekin bateragarria izatea» nahi dute.

Magnari «memoria ariketa» egiteko eskatu dio Erdiz Bizirikek

Horren aitzinean, Magna enpresari «memoria ariketa bat egiteko» eskatu zion Erdiz Bizirik plataformak eta Baztango herriak «zer nahi duen eta, batez ere, zer nahi ez duen» oroitara dio, Baztanek «behin eta berriz Erdizen meategirik nahi ez» duela adierazi dutelako.

Plataformaren ustez, Magnaren proposamena onartzeak «mendez mende Baztango ekonomiaren euskarria izan den eta den Erdizeko bazkalekua desagerraraztea» ekarriko luke. Beraien iritziz «inongo lotsarik gabe sinistarazi digute Natura 2000 eremu babestua gainean meategi bat erakitzeak Baztango nekazari zein herritarrentzat onuragarria» izanen dela. Baina, plataformako kideek ez dute bat egiten asmo honekin eta Magnari oroitara nahi diote Baztango herriak «memoria» duela eta «otsoa ikusteko gai» dela «ardi larruarekin moztortuta» heldu bada ere. Izan ere, bileran «kolaborazio» eta «elkarlana bezalako hitz politikak» erabili bazituzten ere «azpijokoan maisu» direla aldarrikatu dute.

Ez dute ahantzi «herri honetako ordezkari politikoen zein eragileen borondatea behin eta berriz diruarekin baldintzatzen saiatu» direla, ezta «legez kontrako proiektuak bultzatu» dituztela edo «proiektua legez kontrakoa dela jakinda ere Baztanen zatia den Kintoko mankomunitateko lurra UGPS/PSISaren bitartez desjabetu» zituztela. Gainera «beren trikimailuak» erabiliz Baztan eta Esteribarren arteko muga «beren alde mugiarazi» zutela ere salatu dute.

Azkenik, Baztango herri-lurren «kontrako eraso honen aitzinean hurrengo hilabeteetan antolaketa eta mobilizazio lanetan arituko» direla jakinarazi nahi izan diote Magnari eta «baztandarren lurra, osasuna eta bizimodua» arriskuan paratu nahi duten guztiei.

Orakunde Egunean balkoiak apaintzeko deia egin du Elizondoko Herriak

TTIPI-TTAPA

Koronabirusak eragindako egoera dela eta, Elizondoko Herriak otsailaren 11n ospatuko litzatekeen Orakunde Eguna eta ortzirale eta larunbatean (otsailaren 12an eta 13an) izanen liratekeen inauteriak bertan behera gelditu

direla jakinarazi du. Oharrean, aurtengo inauterietako ospakizunak ez direla izanen argitzearekin batera, «egun berezi horiek pixka bat alaitzeko» herritarrei euren etxeetako leiho eta balkoiak apaintzeko gonbidapena luzatu diete.



JM ONDIKOL

Herrietako alkateekin bilkura

Baztango herrietako alkate hautatu berriak urtarril hondarrean Xabier Maiarekin, Baztango alkateordearekin, bildu ziren Arizkunenea kultur etxean. Karguari buzuzko azalpenak ematearekin batera, Batzar Nagusiaren funtzionamendua eta eskaerak bidertzeko prozesua izan zituzten solasgai.



JM ONDIKOL

Kexu dira zahar etxeko langileak

Enpresak langileen aldarrikapenei «lan erregulazio mehatxuekin eta Eguberrietako ordainsaria ez ematearekin» erantzun dienez, zahar etxeko langileek salaketa IDEAK Zizurren dituen bulegoetara eramatea erabaki zuten. Jarrera aldatu ezean, «bizi dugun egoeraren salaketa behar den leku guztietara eramateko prest» daude.

Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

774

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

- Donostiako aquariuma - 2 sarrera**
Juli Jaimerena Garaikotxea | ELIZONDO
- Buatxabal - Kamiseta bat**
Cristina Saralegi Arribillaga | LEITZA
- Okille - Eguzkilore bat**
M^a Jesus Etxeberria Agesta | ARANTZA
- Karting - Sarrera bat**
Jon Agesta Almandoz | SUNBILLA
- BKZ abenturak - 2 sarrera**
Olatz Babaze Urroz | SARDIAS
- Zugarramurdi lezeak - 2 sarrera**
Bittori Martin Irigoien | LIZARRA
- Ttarttalo - Liburu bat**
Ainhoa Berrueta Arburua | ETXALAR
- Ttarttalo - Liburu bat**
Jose Miguel Altzuart Oteiza | ARRAIOZ

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

MARTIKO


www.martiko.com



Lote bat

Galaxy Park

www.galaxypark.eus



2 sarrera

LESAKA

www.lesakakoudalkiroldegia.com



2 sarrera

ARKUPE

www.arkupegozotegia.com



Lote bat

MUSIKA



- Tremenda Jauria
- Arkada Social



www.maukamusik.com

LAGUNTZAI LEAK



www.maukamusik.com



www.aquariumss.com

**TTIPI-TTAPAREN
eta ERRAN.EUSen**

**laguna izan
nahi dut!**

- 1 Bertako informazioa eduki nahi dudalako.
- 2 Euskaraz bizitzen lagunduko didalako.
- 3 Gure lurraldean hedabide euskaldunak behar ditugula uste dudalako.
- 4 Tratu zuzen eta hurbilekoa eskaintzen didalako.
- 5 Nire aportazio ttiki batekin TTIPI-TTAPAREN eta ERRAN.EUSen iraupena segurtatzen dudalako.



→ **erran.eus/bazkidetu**
T. 948 63 54 58



**Ttipi Txartelarekin
abantaila handiak;
deskontuak eta zozketak**

**MEKNari esker nire donazioak
%80ko desgrabazioa duelako
Errentaren Aitorpenean**



ttipi-ttapa

erran.eus



Inesa Ganexen kontrako epailetaren antzezpena, 2011n Hondarribiako Arma Plazan.

Gezurra oinarri dute akelarreak eta sorginak

Sorgin-bilkurarik ez zen egin batean eta natura ezagutzen zuten emakume jakintsua bertzerik ez zen bigarrena

MARIFA ETA KORO

Gure herria bi hitz hauengatik ezaguna da: *sorgina* eta *akelarrea*, eta azkeneko ikerketak diotenez, bai bata eta bai bertzea, gezurretan oinarrituak dira.

Akelarrea akerra egoten den larrea da, baina sorgin-bilkura bezala ez omen zen behin ere existitu (inkisizioaren asmakizuna izan omen zen).

Sorgina, berriz, andre jakintsua, natura ezagutzen duena, eta sendatzeko erremedioak prestatzen dituen pertsona

baliosoa da, ez, ordea, deabrua agurtu eta gaiztakeriak egiten dituen pertsona.

Gaur egun gure herritik bi kontzeptu horiek argitzen saiatzen ari gara hainbat modutan (antzerki lana, museoa) eta orain, Asisko Urmenetaren *Sugarren mende* liburua ere hor dugu.

Sorgin ehizak herri aunitz kolpatu zituen, eta orain lan polita egiten ari da Asisko herriz herri afera hau azalduz, eta argi utziz gure arbaso haiek jasan zuten injustizia.

Pikatxarreko bordako Migel Daintziart Dantxarineko Olako azken errotaria hil da

Urtarrilaren 27an hil zen Pikatxarreko bordako Migel Daintziart, Dantxarineko Olako azken errotaria. Olako errotak, artoa xehatzeaz gain, elektrizitateaz sortzen zuten, eta Zugarramurdi eta Alkerdiko argindarra hornitzen zuten.

Kudeaketarako Elektra Zugarramurdi elkarteak sortu zen eta bazkideak hauek ziren: Dan-

txarineko Errekaldenea (lur eremuaren nagusia), Alkerdiko Mihura, eta Zugarramurdiko Domitenea, Etxeberria, Iriarte eta Etxenikea. Ez dakigu noiztik hasi zen hornidura hau, baina 1960ko hamarkadaraino erabili zen. Olako errota eta bere kanalak ere desagertu ziren, Dantxarineko azken urbanizazioa egin zutenean.

Gazteen bestetako komiteak berdin segituko du

Urtero tadearen erdia aldatzen bada ere, aurten mantentzea erabaki dute, antolakuntza errazte aldera

ARANTXA ETA IRAIA

Salbatore bestak antolatzeko komitea urtero aldatzen da gure herrian. Urtero taldearen erdia atera eta bertzea mantentzen da, antolakuntza hobetzeko asmoz. Aurten, urte berezia tokatu zaigunez, taldea dagoen bezala mantentzea erabaki dute gazteen artean, ondorengo urteko antolakuntza errazte aldera.

Hortaz, joan den urtean bezala geldituko da besten komitea: Maddi, Estitxu, Ion, Angel eta Jaione izanen dira bestez arduratuko direnak.



Ea horrelakoak ikusterik badugun.

Iaz herriko bestak bertan behera uzteko erabakia hartu behar izan zuten. Ea aurten egoera aldatzen den eta ez den hala korrik errepikatu behar.

Kandelaria eta San Blas otsailaren 6an ospatu dituzte

Otsailaren 2an eta 3an izan ziren Kandelaria eta San Blas egunak. Usaia denez, kandelak eta janaria bedeinkatzen dituzte eliztarrek. Aurten, bi egun horietako hitzordua otsailaren 6rat aldatu zuten eta larunbatean 19:00etako mezan bedeinkatu zituzten.

Manex Erneta udal langile berria otsailaren 2tik

Aitzineko herriko langilearen laguntzaileari kontratua finitu eta berri baten bilat hasi zen udala. Honela, beharrezko azterketak egin ondotik, Manex Erneta da postu horretan dagoen langilea. Eneko Eskuderoen lekua hartuta, otsailaren 2an hasi zen.

«Zer pasatzen da, terroristak ez direla plastikozko hesiengatik pasatu behar?»

TTIPI-TTAPA

Mugan gasolindegia eta garraio enpresa ttiki bat du Txomin Iribarrenek. «Bai nik baita nire bezeroek ere maiz pasa behar izaten dugu Hego eta Ipar Euskal Herriko muga» eta mugen itxierak eragin handia du bere egunerokotasunean. Izan ere,

«nik eta nire langileek, batez ere, Iparraldeko bezeroentzat lan egiten dugu». Bideari dagokionez Iribarrenentzat «aldaketa handia» izan ez dela adierazi du, nahiz eta bere langileentzat oztopo handia den «niretzat lanean ari den arizkundarrak sekulako itzulia



ARANTXA ETA IRAIA

Dantxarinea kolapsatua ilbeltzaren 30ean


Ilbeltzaren 30ean goizetik nabaritu zen jende anitz zebilela Dantxarinean. Larunbat arratsaldean auto ilara ikaragarriak izan ziren, errepidearen bi aldeak guztiz blokeatuak gelditu ziren arte. Azkenean, trafikoko poliziak agertzean, aspaldian ikusitako kolapsorik handiena arintzea lortu zuten.



ARANTXA ETA IRAIA

Dantxarineko bentetan neurri berriak

Nafarroako Gobernuak ostalaritzako lokalen barreneko aldea hestea erabaki zuen koronabirus kasuengatik. Neurri berri hauen aitzinean, Dantxarineko bentek egoera berrira egokitu behar izan dute. Benta anitzek karpak muntatu dituzte terraza modura jatetxeekin aitzinerat segitu ahal izateko.



Txomin Iribarren.

eman behar du lanera etortzeko. Lehen egiten zuen bidearen bikoitza eginarazten dio Izpegiko pasabidea itxia egoteak». Orain, «bide bakarra» utzi dute eta «kasualitatez heretsiena da». Ez da lehen aldia gai honen inguruan hausnartzen duela, eta «zalantza egiten dut Frantziak gainerako mugekin berdin jokatzeko ote duen: hemen bizi garenoi tokatzen zaigu beti zati okerrena».



Urtarrileko hondar astelehenean egin zen elkarretaratzea. FRANCK DOLOSOR

Ostalariek aldarrikapenekin segitzen dute

'Kasu, kasu ostalariak kexu!' kolektiboak Ipar Euskal Herrian ostalaritzak bizi duen egoera salatu du

GANEX

Zazpi hilabete hetsita darar matzaten ostalariak haserre azaldu ziren urtarrilaren 25ean, Pleka trinketean egin zen elkarretaratzean.

Kasu, kasu ostalariak kexu! kolektiboak beraien egoeraren berri emateko kolektiboaren aurkezpena egin zuten urtarrileko azken astelehenean. Elkarretaratzea hainbat aldarrikapen egiteko ere baliatu zuten. Pandemia hasi zenetik zazpi hilabete hetsita egon direla adierazi eta «egoera zail honetan hautetsien laguntza» behar dutela aldarrikatu zuten.

Kolektiboak gaineratu zuenez «pandemiaren hedakuntza saihesteko hartutako neurriek ostalaritza gogor zigortu dute». Etorkizunera begira «ateak berriz edekitzeko perspektibarik ez» dutela adierazi eta ostalarien arteko «elkartzea eta mugitzea baitezpadakoa» dela azpimarratu zuten.

Azkenik, Saran elkartutako ostalariek «Ipar Euskal Herri mailan duten eragiteko ezintasuna eta informazio eza» salatu eta «laster ekintza gehiago» egingen dituztela eta horien berri jakinaraziko dutela iragarri zuten.

Duela 30 urte baino 606 lagun gehiago bizi dira gaur egun herrian

Biztanleria goiti doa herrian, datuek argi erakusten dute. Izan ere, 1990ean 2.061 lagun zituen herriak; 2000an 2.193; 2005ean 2.262, 2008an 2.262, 2010ean 2.314, 2017an 2.596 eta azken neurketaren arabera, 2018an 2.667 biztanle zituen herriak. Horrela,

1990etik 2018ra 606 lagun gehiago daude herrian.

2020an 19 sortze, 18 heriotza eta 18 ezkontza izan ziren. Heriotza kopuruetan ez dira zahar etxeko egoiliarak zenbaitu, soilik herrian erroldatutako bizilagunak hartu dira kontuan.

75 urtetik goitikoek txertaketa kanpaina martxan da

GANEX

75 urtetik goitikoak eta eritasun larriak dituzten herritarrak dagoeneko Covid-19a eritasunaren kontra txertatu daitezke. Txertoa jaso aitzinetik herriko osasun etxera deitu behar dute herritarrek eta bertan bete beharreko izapi-

deen eta bertze xehetasunen berri emanen diete.

Saratarrentzat txertoa emateko osasun etxe hurbilena Donibane Lohizuneko da. Hitzordua www.doctolib.fr webgunean edo Sarako Herriko Etxera deituta (05 59 54 20 28) har daiteke.



UTZITAKOAK

Aldarrikapenak Lizuniagako lepoan

Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko zortzi pasabideren hestea «aste batzuetan» luzatuko dela adierazi du Eric Spitz Pirinio Atlantikoetako prefetak, eperik eman gabe. Egoera horren aitzinean, inguruko 120 herritar elkartu ziren urtarrilaren 30ean Lizuniagako lepoan.



Traktorearen orde z behorra erabiltzen da hondartza garbitzeko eta ingurumenari kalte gutiago sortzen dio. UTZITAKOIA

Hondartza garbitzeko behorra traktorearen orde z

Jean Mixel Susperregik mementoan entseguak egin ditu herriko lakuan 'Zaldi-Lana' egiturarekin

JEAN-LOUIS BESSONART

Horra zer xederekim muntatu duen Jean Mixel Susperregik *Zaldi-Lana* egitura, honen bitartez nahi luke parte hartu

hondartzen garbiketetan. Lan horretarako eraiki du tresna simple bat, non aurkitzen den are bat sare batez osatua, zeta-baharen gisa, behorrek ti-

ratzerakoan sablea azalean harrotzen du eta ber denboran hondarkinak biltzen. Tresnaren barnatasuna nahi den neurrian ezar daiteke. Modu honetan, traktoreak baino kalte gutiago ekarriko dio ingurumenari.

Mementoan ari da ezker eskuin bere ekimenaren erakusten kostaldeko herriko etxeetan, Senpereko lakuan ere egin ditu entseguak. Oron buru, udari buruz nahi lituzke kontratu batzuk finkatu bere proiektua gauzatzeko, ea zer segida izatzen duen.

Herburuko bidegurutzean eta Zuraideko bidean obretan ari dira

JEAN-LOUIS BESSONART

Dantxarineko eta Sarako bidegurutzea bertze modu egoki batean ezarriko dute, biribilgune bat eginez, Herburu auzoan. Erran behar da azkeneko moldaketa, duela 4 urte, ez zela soberarik eroso, jakinez Dantxarinetik heldu ziren autoek lehenatasuna zutela, bertzeek, aldiz, gelditu behar. Departamenduak urtarilaren 18an obrak hasi zituen eta sei edo zortzi aste inguru iraun dezakete. Ontsalaz, auto eta kamioien trafikoa erraztu behar luke denen atseginetan.

Bertze aldetik, otsailaren 1etik abian dira Zuraideko bideko obrak, ur banaketaren sarea eraberritzeko kariatara. Aintzira sarrerako biribilguneetik Txikitoneko bidera arte, erran nahi baita Amezpeticuko mugaraino. Bi hilabetez trabak sortuko dira eta zirkulazioa aldizkatuz ezarria izanen da. Euskal Elkargoak du kudeatzen eta Etchart enpresak egingen ditu lanak. Entseutuko dira xoko horretako auzo bidea libro mantentzea, eta hauei galdegina zaie beren ur-kontagailuko helbidea erraztea.


Etixeratze neurriekin mediateka 17:45ean hetsiko dute

Etixeratze neurriengatik, mediateka hetsiko da 17:45ean. Aldaketa honekin, horra beraz noiz idekia izanen den: astelehen eta ostiraletan 15:00etatik 17:45era; asteazkenetan 09:30etik 13:00etara eta 15:00etatik 17:45era; larunbatetan 09:30etik 13:00etara. Xehetasun gehiago: mediathèque@senpere64.fr. Sartzea libre da eta bakarrik Postako aparkearen aldetik egingen da. Neurriak errespetatzeko, mediatekan ez da 15 lagun baino gehiago sartzen ahalko, mediatekako taldea barne.

«Prefeturak herritarrengan pentsatu gabe hartu du neurria»

TTIPI-TTAPA

«Astean bi edo hiru aldiz pasatzen naiz hegoaldera mediku kontsultetara joateko edota familia ikusteko. Azken finean, Beran gauza anitz ditut oraindik». Honela mintzo da Senperen bizi den Jaione Iriarte Baleztena, hiru haurren ama. Muga pasatzeko arrazoi nagusienetariko bat «mediku kontsultara» joateko izaten da. Lehen normalki Lizuniagako pasabidea erabiltzen zuen, baina orain, hau hetsita dagoenez, Ibarinetik pasa behar du. Honek egunerokotasunean «lehen 20 edo 30 minututan egiten nuen bidea, 40 minutu edo gehiagokoa» izatea eragin du. Muga 18:00ak baino beranduago edo 06:00ak baino lehenago pasatzeko «prefeturak eman duen agiri bat erakutsi behar dut, mugaren bertze aldera zer egitera noan zehazten duena». Hala ere, agiri honek ez dizkio muga pasatzeak dakartzan buruhauste guztiak kentzen. Denbora eta deserosotasunaz gain, kotxeko erregaian ere «dirutza utzi» behar izaten duela gaineratu du. Azkenik, kontrol polizialean sentitzen duen ezinegona adierazi du, baita behin edo behin bizi izan duen egoera desatsegina ere.



Senperen bizi da Jaione Iriarte.



laz zazpi kategorietatik bortzetan lortu zuen txapela Beti Gaztek. ARTXIBOKOA

Euskal Herriko sokatira txapelketa osoa martxoan

Getxoko Fadura pilotalekuan eginen dituzte jardunaldi guztiak eta Beti Gazte izanen da eskualdeko ordezkari bakarra

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko Herri Kirol Federazioak jakinarazi duenez, 2021eko goma gaineko sokatira txapelketa osoa martxoan jokatu da. Ohikoa baino laburragoa izanen da, pisu bakoitzeko egun bakarra eta sei jardunaldiak Getxoko Fadura pilotalekuan jokatu

dira atea itxita, ikuslerik gabe. Lesakako Beti Gazte izanen da kategoria eta pisu guztietan zortzikotea aurkeztuko duen talde bakarra. Larunbatetako jardunaldiak 17:00etan hasiko dira (pisaketak 14:00etatik 15:30era) eta igandetakoak 11:30ean (pisaketak 08:30etik 10:00etara).



UTZITAKOA

Aldabe eta Elizalde Garferen txapelketan

Garfe pilota enpresak eta Tafallako Valsay enpresak antolatutako eskuz binakako pilota txapelketa ilbeltzaren 24an abiatu zen Zentronikon. Joseba Aldabe igantziarra (Labakarekin) eta Ugaitz Elizalde iturendarra (Bergerarekin) dira eskualdeko ordezkariak. Zuzen bidean, finala ekainean jokatu dute.

Txapelketa martxoaren 6an hasiko da. Emakumezkoak 540 kilotan (Beti Gazte, Badaiotz eta Ibarra) eta gizonezkoak 680 kilotan (Beti Gazte, Ñapurak, Murueta eta Ibarra) ariko dira.

Martxoaren 7an gizonezkoen 640 kilokoa jokatu da (Beti Gazte, Ñapurak, Txantrea, Murueta eta Ibarra).

Martxoaren 13an emakumezkoak 500 kilokoa ariko dira. Lesakarekin batera, Txantrea, Badaiotz, Berriozar, Antsoain eta Ibarra lehiatuko dira.

Martxoaren 20an gizonezkoen 600 kiloko txapela erabakiko da Beti Gazte, Ñapurak, Txantrea, Berriozar eta Ibarraren artean.

Martxoaren 27an txapelketa mistoa jokatu dute, 580 kiloko kategorian. Beti Gazte, Txantrea, Berriozar, Antsoain eta Ibarrako neska-mutilak ariko dira.

Martxoaren 28an, azkenik, gizonezkoak pisu arinenean ariko dira, 560 kilotan. Beti Gazte, Txantreak eta Antsoainek bakarrik aurkeztuko dute zortzikotea.

Joan den urtean zazpi txapelketatik bortz lortu zituen Beti Gaztek.

Aritz Zubiri eta Oskar Urrutia Oriamendi txapelketan

TTIPI-TTAPA

Master txapelketako finalaren pilota aukeraketaren atarian Oriamendi txapelketaren berri eman zuten ilbeltzaren 26an Hernaniko Galarretan. Hain zuzen, master txapelketa jokatuz ez duten enpresako erremontista guztiek izanen dute binakako txapelketa hau jokatzeko aukera, hiruna bikoteko bi taldetan, tartean Oskar Urrutia saldiastarrak eta Aritz Zubiri goizuetarrak. Denera sei bikote izanen dira, bi taldetan banatuak. Txapelketa ilbeltzaren 28an hastekoa zen, baina Galarreta pilotalekuko hezetasuna tarteko, otsailaren 2an jokatuz zituzen lehen partidak. Talde bakoitzeko lehen bi bikoteek lortuko dute otsailaren 18an jokatu diren finalaurrekoetara sailkatzea. A taldeko lehena B taldeko bigarrenaren kontra ariko da eta B taldeko lehena A taldeko bigarrenaren kontra. Irabazleek finala jokatu dute otsailaren 25ean.



UTZITAKOA

Xabi Ibargarai buruz buru palan

Bederatzi palista hasiak dira buruz buruko pala txapelketan, tartean Xabi Ibargarai. Erratzuarrak otsailaren 13an jokatu du final-laurdenetako partida Gordonen kontra. Irabazleek finalerdietako ligaxka jokatu dute eta finala eta hirugarren posturako lehia martxoaren 13an jokatu dituzte.



Baztango BKT eskubaloi taldeko emakumeak ilbeltzean hasi ziren lehia eta Elizondon garaipena lortu zuten. UTZITAKOA

Kontaktu kirolean konpetitzeko aukera izanen da guttika

Nafarroako Kirolaren Institutuak baimena eman badu ere, zalantzez beterik daude oraindik eskualdeko kirol taldeak

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 12tik aitzinera hasiko dira, modu mailakatuan, kontaktu- edo aurkaritza-kiroleko Nafarroako lehiaketa ofizialak. Nafarroako Kirolaren Institutuak baimendu du lehiaketa horiek hasia, eta COVID-19 pandemiaren bilakaeraren menpe egonen dira. Horiek antolatzen dituzten Nafarroako federazioek, aitzinetik eta nahitaez, osasuna babesteko neurri guztiak biltzen dituen protokoloa aurkeztu beharko dute.

NKlko zuzendari kudeatzaileraren ebazpenean jaso dituzte kontaktu- edo aurkaritza-kiroleko modalitateen lehiaketak abian jartzeko bete beharreko baldintzak. Taldekakoen artean, futbola, areto-futbola, saskibaloia, eskubaloia, errugbia, hockeya, patinetako hockeya eta waterpolo sartzen dira; banakoe-tan, berriz, borrokakoak eta arte martzialak.

Hasteko egunak aldatu edo bertan behera utzi ahal izanen

dira, egoera epidemiologikoa-ren eta Nafarroako Gobernu-ko osasun agintariek har ditzaketen neurrien arabera. Hori dela eta, lehiaketak hasi ondotik, aldi baterako edo behin betiko eten ahal izanen dira.

Kategorien arabera, taldeko modalitateetarako baimendutako egunak hauek dira: senior, junior edo baliokideak otsailaren 12tik aitzinera; kadeteak otsailaren 19tik aitzinera; haurren kategoria otsailaren 26tik aitzinera; eta gainerako kategoriak martxoaren 5etik aitzinera.

Banakako kirolei dagokienean, kategoria absolutuak otsailaren 12an hasi ahal izanen du; juniorrak 19tik aitzinera; kadeteak otsailaren 26tik aitzinera; haurren kategoriak martxoaren 5etik aitzinera; eta gainerakoak martxoaren 12tik aitzinera.

Eskualdeko taldeek zalantzak Pixkanaka baimena izanagatik, denboraldi honetan berriz

ere konpetitzen hasteari buruzko zalantzak dituzte eskualdeko kirol taldeetan.

Normal xamar ari den talde bakarra hirugarren mailan ari den Baztan futbol talde nagusia da. Urrian abiatu eta astero jokatu dute, hasieran ikuslerik gabe eta orain, gehiengo edukiera errespetatuz. Kategoria ttikiagoetan ere hastea espero dute, «protokoloak ikusi ditugu eta betetze-ko modukoak» direlako.

Ilbeltzean hasi zen jokatzeko Baztango BKT eskubaloi talde nagusia. Iruñean Anaitasunaren kontra galdu ondotik, Elizondoko kiroldegian lehen garaipena lortu zuten aurten Izaskun Danborienaren agindupean ari diren emakumeek. Kategoria ttikiagoetako taldeak ere hastekotan dira, egoerak uzten duen neurrian. Erreka-ko eskubaloi taldeek, aldiz, ez dute denboraldi honetan konpetituko.

Gipuzkoako ligetan ari diren taldeen egoerak oraindik zalantza gehiago sortzen ditu, herrialdeen arteko itxiera perimetrara dela eta. Beti Gazteko eta Gure Txokoako futbol talde nagusiek urrian jokatu zuten denboraldi honetako lehen jardunaldia eta geroztik ez dira berriro zelairatu. Eta oraindik ez dute argi berriz zelairatzeko aukerarik izanen ote duten. Aitzinera begira ere, bertze arloetan bezala, pandemiak aginduko du.

Malerrekako XIX. pilota txapelketako finalak otsailaren 20an Donezteben

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 17an abiatu zen Doneztebeko Erreka elkarteak hemeretzigarren urtez antolatutako Malerrekako eskuz binakako pilota txapelketa. Covid-19aren eraginez, Nafarroako pilotariak bakarrik ari dira eta, ondorioz, pilotari guttiago ari dira. Kategoria ttikienetako finalaurrekoak ilbeltzaren 31n jokatu zituzten Donezteben eta Lesakan eta hauek izanen dira Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan otsailaren 20an jokatu diren finaletan izanen direnak:

Benjaminetan, Arkupe elkarte-ko Urko Telletxea igantziarra eta Jon Madariaga lesakarra, Oberenako Mauleon eta Remirezen kontra; **alebinetan**, Oberenako Rekalde eta Laso, Buruzgaingo Barbarin eta Iribarrenen kontra; **infantiletan**, Txarutako Prim eta Goienetxe, Irurtzungo Igoa eta Oberenako Nazabalen kontra; **kadeteetan**, Erreka-ko Apezetxea eta Agesta, Oberenako Sanchez eta Garcaren kontra; **jubeniletan**, Iriarte (Larraun) eta Peñalver (P.P. San Sebastian), Oberenako Ibarra eta Murilloren kontra.

Kategoria nagusietako finalerdia ere jokatu zituzten, otsailaren 3an elite mailakoak eta 4an senior mailakoak. Beraz, hau idazterakoan ez, baina hau irakurri orduko jakinak izanen dira finalisten izenak. **Elite mailan**, Oberena eta Buruzgain elkartetako bikoteen arteko lehia izan da bi finalerdietan. Oberenako bikoteetako bat Oihan Canabal eta Joseba Aldabe igantziarrek osatzen dute. **Senior mailan**, finalerdietako zortzi pilotarietatik sei Oberena taldekoak ziren (tartean Hegoi Txopereña leitzarria) eta bana Larraun eta Txarutakoa (Oier Ariztegi).

OTSAILAK 11-25

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



BALEIKE.EUS

LEITZA 'Haizearen egia' dokumentala

Saharako egoerari buruzko dokumentala eta mahai-ingurua.
Herri Aretoan, otsailaren 13an. 18:00etan.

KONTZERTUAK

LEITZA

Bi(zi) hotsak

Mikel Illarregi eta Ione Gorostazurekin.
Herri Aretoan, otsailaren 26an, 19:00etan.

Lapurket(ari)ak

Maite Arroitauregi musikariaren eskutik.
Atekabeltzen, otsailaren 27an, 19:00etan.

SOLASALDIAK

ELIZONDO

'Xertoa zu zerorre zara'

Arturo Vinuesa medikua hizlari.
Arizkunenean, otsailaren 12an, 18:00etan.

'Oinarri zientifikoak biomedizinan'

Biologia molekularrean doktorea den Asier Galan hizlari.
Arizkunenean, otsailaren 19an, 18:00etan.

'Gaurko egoeraren gakoak'

Nekane Jurado ekonomilariariak emanen du hitzaldia.
Arizkunenean, otsailaren 20an, 11:00etan.

'Sotoan gordeak' lana solasgai

Miren Gorrotxategi idazlearen eskutik.
Arizkunenean, otsailaren 25ean, 18:30ean.

'Osasuna eta elektromagnetismoa'

Asier Arregi ingeniari agronomoa eta geobiologoa hizlari.
Arizkunenean, otsailaren 26an, 18:00etan.

LESAKA

Aitortzaren bila

Igor Portu eta Mattin Sarasolaren kasuak eta emakume torturatuen testigantzei buruzko solasaldia. Amaia Izko abokatuarekin eta Izaskun Rekarte antropologoarekin.
Harriondoan, otsailaren 12an, 19:00etan.

LEITZA

Saharako egoerari buruzko mahai ingurua eta 'Haizearen egia' dokumentala

Sarrerak Astizen eta Maimurren.
Herri Aretoan, otsailaren 13an, 18:00etan.

'Zer da bizitza osasuntsua? Elikaduratik gure independentziak arakatzeko hizketaldia

'Osasunaz beste begirada bat' zikloaren barne, Goiuri Alberdirekin.
Atekabeltzen, otsailaren 18an, 19:00etan.

DONEZTEBE

Emozio erregulazioa eta gatazka familiarren elkarbizitzan

Lourdes Diez Hernandez familia-orientatzailea eta psikoterapeutaren eskutik.
Zineman, otsailaren 15ean, 16:30etan.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Klaustrofilia erakusketa

Xehetasunak: www.centrohuarte.es webgunean.
Arizkunenean, otsailaren 14ra arte, astelehenetik larunbatera.

IKASTAROAK

ELIZONDO

Kantu herrikoikiak

Kalakan taldeko Thierry Biscaryren eskutik.
Arizkunenean, martxoaren 17ra arte, asteazkenetan, 18:30etik 20:30era.

Musikoterapia ikastaroa

Haizea Loira gidari.
Arizkunenea kultur etxean, martxoaren 12ra arte ortziraleroko, 10:00etatik 11:30era bitarte.

ARIZKUN

Kirikoketa eta txalaparta ikastaroak

Iraupena: 12 ordu. Informazio gehiago: 676 20 44 30.
Gamioxarrean, astearte eta ortzegunetan 16:00etatik goiti.

BAZTAN

Mutildantza erakusleendako ikastaroa

Ortziraleetan 19:00etan eta larunbatetan 11:00etan. Iraupena: 20 ordu. Informazio gehiago: 676 20 44 30.

Mutildantza ikastaroa

Ortzegunetan, 19:00etan. Informazio gehiago: 676 20 44 30.

KIROLAK

LEITZA

Herri-kirolak

Aizkora, arpana eta harri-jasotze txapelketa.
Otsailaren 21ean, 12:00etan.

Nire aukera

«Betiko gazta egungo osasun baldintzetara egokituz egiten dugu»

AINHOA GOÑI ORMART GAZTAGILEA



Idiazabal gasnen merkatu zabalean, Ainhoa Goñik (Elizondo, 1978) eta bere familiak mimoz landutako Agorleku etiketadun gazta izanen da aukeran martxotik aitzinera. Orain arte «etxerako» egiten zutena merkaturatzeko prestatzen aritu dira hondarreko bi urteetan eta plazarako pausoa emateko prest daude dagoeneko.

Familiaren sustengua

Baserri mundua ez da arrotza Ainhoa Goñi eta bere inguru-koentzat: «nire amak ahuntzak ditu, eta senarraren familiak ardiak». Azienda etxeko atarian izanagatik, Goñik, berriki arte, abeltzaintzarekiko lotura handirik ez du izan. Enpresa batean 20 urtez lanean aritu ondotik, «aldaketarako beharrak» bideratu zuen baserri mundura elizondoarra: «orain bi urtera arte, hau da, artaldea handitu genuen arte, lan horietan ez nintzen gehiegi ibiltzen». Pixkanaka artaldea handitu eta 160 buru inguru zituztelarik,

hasi zen hurbiltzen: «ordura arte esnea saldu egiten genuen eta momentu horretan familian gazta egiteko aukera aztertzen hasi ginen». Lanbidea aldatzerako momentuan «familiaren babesa» erabakigarria izan zen berarentzat eta lanean hasi direnetik zutabe garrantzitsutzat ditu: «senarrak, koinatak, gurasoek... denek laguntzen didate».

Lesakako Agorleku baserrian dute gaztandegia eta bertan ekoizten dute gazta. Hortaz, egunerokoan Baztandik Bortzirietara eta Bortzirietatik Baztanera ibiltzen da Goñi: «egunaren arabera familia-koekin moldatzen naiz baina goizetan zein ilunabarretan ardiak jetzi, belarra eman, baserriko lanak egin behar

«FAMILIAKO PROIEKTUA DA ETA ILUSIOZ EGINEN DUGU AITZINERA»

izaten dira eta nik bakarrik ezin izanen nuke familia, ardiak, gaztak... dena egin. Hau familia osoaren proiektua da».

Inbertsiotik salmentetara

Mundu horretan sartu denetik, urtea ardien arabera antolatzen hasia da: «azaro-abenduan ardiak erditzen hasten dira eta horiek kontrolatzen izan dugu lan gehien. Abendu aldera zaintzen, jezten eta gaztak egiten aritu gara eta martxoan zaintzen eta jezten segitzeaz gain, gazta saltzen ere hasiko gara».

Ondoko hilabeteak ere halatsu izanen dira, «maiatzean larrera» eraman arte: «orduak belarrak egin beharko ditugu, negurako izateko. Belaiak mantendu, txukundu...». Baserri munduan lanik ez da falta izaten eta hori argi du Goñik: «lana lotua da, astelehenetik igandera, jaiegunik gabe eta ordu aunitzez lan egin behar da». Hori «gustuko izatea» behar-beharrezkoa da eta bere kasuan bada: «paperak, kontu burokratikoak ez, baina ingurumenarekin eta naturarekin lotutako lana izatea ederra da».

Egindako apustua ez da makala izan, baina hasteko ilusioz daude: «inbertsio eta lan handia egiten ari gara eta oraindik ez gara salmentekin hasi. Abiapuntu bezala, 200-250 bat gazta egin ditugu eta martxo aldera hasiko gara merkaturatzen». Hasieran «salmenta zuzena» egiten saiatuko dira, «azoketan ibiliko gara eta bertako denda eta harategietan jarriko dugu». Gero, «izaten duen erantzunaren arabera» bere bidea egingen du eta «orduak eraba-

«NEKAZARION LANA GARAI BATEAN BAINO GEHIAGO ESTIMATZEN DA»

kiko dugu zenbat egin eta non saldu».

Ettxeko baliabideak kalitatea bermatzeko gakoa

Prozesu tradizionala dute ardatz baina gaur egungo osasun baldintzetara egokituz egiten dute lan, ahal den guztian etxeko baliabideak erabiliz: «gure ardiak etxeko larrean egoten dira eta neguan gure etxeko belarra jaten dute. Gure baliabideak erabiliz kalitateko esnea lortzen dugu, gazta onak ezinbertzeko duena. Horrez gain, ingurugiroa mantentzen saiatzen gara, energia berriztagarriak erabiliz berotzen dugu ura...». Legez eta ikuskatze guztiekin egiteko, Artzai Gazta elkartearen eta INTIAN ikastaroak eta aholkularitza jasotzen dute.

Idiazabal jatorri izendapenaren baloreekin bat eginez, «ardi latxaren esne gordina dute lehengai eta betiko mane- ran egiten dugu». Horrekin guztiarekin, «kalitatea eta zaporea» bermatu nahi izan dute.

Bertakoa jan, bertakoa lagundu

Arditik gaztarako prozesuan gogo eta ilusio guztia paratua dute, eta bezeroegana ailegatzeko gogotsu daude, gaur egun lana estimatzen dela uste dutelako: «gero eta nekazari gutiago dauden honetan, egiten den lana estimatzen dela iruditzen zait» dio Goñik.

Gehiago ere bada. Herrian herrikoa kontsumitzearen aldeko joera hartua dute aunitzek eta gure aitzinekoen bizimodua eta inguruak zainduduz bizi diren familiek egiten duten lanaren alde egiten hasiak dira. Horrekin denek irabazten dute: «bezeroak kalitatea bermatzea eta osasuntsu jatea lortzen du eta nekazariontzat gure produktuen alde egitea aitzinera egin ahal izateko ezinbertzekoa da».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

LESAKA. Bittiriko plazan pisu ederra salgai. ☎687 33 00 17.

BERA. Kanttonberri karrikan, 6. zenbakian, pisua salgai. Sukaldea, egongela, bainugela, 3 logela eta bi balkoi ditu. ☎610 77 54 48.

DONEZTEBE. Merkatariaren karrikako 22. zenbakian, 1. solairuan etxebizitza salgai edo errentan emateko. 100 m². 3 logela, balkoi handia, trasteleku. Dena kanpora begira eta dena ongi paratua eta berriua: lurra berriua, komuna berriua, bigak bistan, leiho berriak, teilatua berriua... Etxebizitza bi sarrera ditu. Komunitateko gasturik ez du. ☎617 79 24 01.

EROSI

LEITZA. Herrigunean etxebizitza bat erosi nahi dute, lur eremuarekin. ☎615 70 47 28.

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Pertsona batentzako logela bat errentan emateko. Erretzaila ez dena. ☎678 85 50 56.

BERA. Pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Mobleztatua, igogailua eta berogailuarekin. ☎666 38 80 63.

ERRENTAN HARTZEKO

MALERREKA, BAZTAN edo BORTZIRIEN bikote gazte batek pisu bat errentan hartu nahi du, zakur batekin. ☎638 91 46 94.

KONPARTITZEKO

DONOSTIA. Amara auzoan konpartitzeko den pisu batean ikasle baten tokia libre dute. ☎618 96 33 90.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. 150 m²ko pabiloia salgai. 130.000 eurotan. ☎648 26 56 63.

ZERBITZUAK

DENETARIK

Ingeniari tekniko batek jarduera sailkatuak, proiektuak eta ikerketak egiten ditu. 688 60 99 05 / joxebe1@gmail.com.

LANA

ESKARIAK

IRUN eta INGURUAN sortzez nika-raguarra den emakumezkoa lan bila, adinekoak eta haurrak zaintzeko edota etxeak garbitzen aritzeko. Externa eta interna gisa lan egiteko

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakian eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

prest. Erreferentziakin. ☎677 24 93 27.

Eskualdean adineko jendea zaintzen aritzeko lan bila. ☎632 56 00 52.

ELIZONDOn lan bila. ☎644 54 14 23.

BAZTAN, MALERREKA eta BORTZIRIAK inguruan emakume bat lan bila. Pertsona helduak edo haurrak zaintzeko prest. Esperientzi handia duena. Interna edo externa moduan aritzeko prest. ☎602 49 37 58.

ESKAINTZAK

BERA. Sukaldaritzan esperientzia duen pertsona bat behar dute Larungo benta batean. Ez da jatetxea. Frantsesez pixka bat jakitea garrantzitsua da. Martxo hondarretik irail hondarrera arte, sei hilabete. ☎607 56 60 22.

BERA. Ibardinen Beola etxean arropa-dendan aritzeko neska bat behar

dute. Frantsesez dakiena eta moda gustuko badu hobe. Urte bateko kontratua. Bidali kurrikulumak: beolaetxea@gmail.com

ANIMALIAK

SALGAI



GOIZUETA. Betizuak salgai, oso go-gorrrak. ☎655 70 60 73.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 3,99
- 1.koa 3,87
- 2.koa 3,72

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,10
- 1.koa 3,96
- 2.koa 3,82

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,00/4,10
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,10/6,70
- 8-10 kilokoak: 5,10/5,60

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 47 €

Zerri gizona 1,100 €

Zerramak 0,370€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua urtarrilaren 22tik 29ra bitarteko prezioak)

MOTORRAK

TAILERRAK

SANTESTEBAN TAILERRAK

SANDERO berria

Gasolina - Aire-girotua - Radarra kamararekin
Lantak - Led argiak - Nabigatzailea
(sustapen finantziarioel lotuta)

www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

DENETARIK

SALEROSKETAK



90 cm-ko **bi ohatze** eta **armairu** salgai. Guztia 200 eurotan. ☎673 54 87 67.



Sukaldeko txokorako jarleku (*rinconera*) salgai. ☎676 38 94 81.



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 451 426 (Joxean.)

GALDU-AURKITUAK

LESAKA. Lesakako igerilekuaren eta Igantzi aldera dagoen Kattu osatuaren arteko bidean Jeep markako auto baten giltzak galdu dira. ☎666 41 90 45.

Bulatxiki inguruan mendiko goretex **eskularruak galdu** dituzte. ☎686 54 46 45.

KONTATU KONTUAK



Nafarroako erremonte txapelketa. Erremonte Fundazioak antolatuta, Nafarroako txapelketa jokatzeko ari dira Doneztebeko eta Agoizko erremonte eskoletako erremontistak. Sei larunbatez jokatuko dute eta hain zuzen, larunbat honetan, otsailaren 13an, Doneztebeko azken saioa egingen dute Ezkurra frontoian.



Berako musika eskolako sei ikaslek bigarren mailako ikasketak bukaerako diplomak hartu dituzte. Ilbeltzaren 26an, Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolan, 2. mailako ikasketak bukatu izanaren diplomak banatu zituzten. Ainhoa Elgorriaga (pianoa) Aiala San Juan (klarinetea), Oihan Pikabea (klarinetea), Nora Moncalvillo (klarinetea), Josu Altzugarai (perkusioa) eta Enaitz Erkizia (perkusioa). Ekitaldian, Aitor Elempuru Berako alkatea, Maria Jose Bergara piano irakasle eta zuzendaria, Aitor Mitxelena klarinete eta saxofoi irakaslea eta Igor Teiletxea perkusio irakaslea izan ziren.



Belateko zohikaztegiak babesteko aukera. Nafarroan gaur egun 23 hezegune dira Nafarroako Hezeguneen Inbentarioan sartuta daudenak eta Nafarroako Gobernuaren izendapen horretan bertze 30 bat gune gehiago sartzea aztertzen ari da, tartean Belateko Kontserbazio Eremu Bereziko zohikaztegiak. Hala jakinarazi zuen otsailaren 2an, Hezeguneen Nazioarteko Egunean.

URTEBETETZEAK



Amaiurko **Eider Ariztia Garmendiak** 3 urte beteko ditu otsailaren 23an. Aunitz urtez familia guztiaren partetik!! Muxu haundi bat!!




Amaiurko **Enara Ariztia Garmendiak** urte bat beteko du otsailaren 21ean. Zorionak eta aunitz urtez familiaren partetik!!!



Mila kilo zorion etxeko printzesari! **Maren Goñi Oteitzak** 3 urte beteko ditu otsailaren 15ean. Xarmanki pasatu eguna eta kandela guziak itzali! Oronozko familia.



Zorionak etxeko ttikiari! **Iker Oteitzak** Jauregiak urte bat beteko du otsailaren 12an. Ongi pasatu eguna eta kandelari haize ederki eman! Oronozko familia.



Iturengo **Garazi** eta **Aritz Iñigo Lujanbiok** 10 urte bete dituzte urtarrilaren 29an. Zorionak!



Aunitz urtez Arraiozko **Urko Arraztoa Agerrebereri** otsailaren 7an 2 urte bete ditu eta. Zorionak eta 2 muxu haundi familia guztiaren partetik eta bereziki Aiora eta Oinatzen partetik.



Gure **Kattalin Pinillos Auzmendik** 9 urte bete ditu otsailaren 4an. Zorionak, *prexoxa*, urte askoz! Muxu haundi bat zure familia guztiaren partetik.



Laida Puyadena Obandok otsailaren 25ean 2 urte beteko ditu. Zorionak atabxi, *apabxi* eta Yakoren partetik.



Silbia Galtzagorri Iribarrenek otsailaren 26an urteak beteko ditu. Zorionak Berako familiaren partetik.



Elizondoko **Alaia Arteta Mikelperezak** otsailaren 8an 4 urte bete ditu. Zorionak gure etxeko bizipozari. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta; **Ttiki-Ttapa**ren **bulegora** etorrita edo **postaz** argazkia eta testua gutun-azal batean helbide honetara bidalita: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Ordaintzeko: 5 € argazki ttikiari eta 10 € handia. Bulegoan eskudiritan edo ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA webgunean sartuta: kreditu txartelarekin, transferentzia eginaz edo Bizum bidez.

SORTZEAK

- **Leire Oskariz Gainza**, Etxalarkoa, ilbeltzaren 17an.
- **Ezekiel Jose Augusto Gartzia**, Etxalarkoa, abenduaren 11n.

HILBERRIAK

- **Hermenegildo Telletxea Elizondo**, Igantzikoa, urtarrilaren 20an, 93 urte zituela.
- **Andres Aleman Saharrea**, Iruritakoa, urtarrilaren 21ean, 88 urte zituela.
- **Jose Luis Olaetxea Albistur**, Lesakakoa, urtarrilaren 25ean.
- **Miguel Dainziart Irigoien**, Amairukoa, urtarrilaren 27an, 88 urte zituela.
- **Maria Dolores Zestau Zabaleta**, Leitzakoa, urtarrilaren 27an, 92 urte zituela.
- **Clara Bikondoa Bikondoa**, Elizondokoa, urtarrilaren 28an.
- **Antonio Perez de la Cruz**, Berakoa, urtarrilaren 28an, 77 urte zituela.
- **Carmen Aldazabal Gorria**, Berakoa, urtarrilaren 28an, 94 urte zituela.
- **Micaela Iturralde Etxeberria**, Zigakoa, urtarrilaren 29an, 91 urte zituela.
- **Luis M^a Bidegain Jaurena**, Iruritakoa, urtarrilaren 29an, 63 urte zituela.
- **Jon Vera Rodriguez**, Almandozkoa, urtarrilaren 30ean, 21 urte zituela.
- **Joshe Ariztegi Bengotxea**, Elbetekoa, urtarrilaren 31n, 88 urte zituela.
- **Pedro M^a Eizagirre Indakoetxea**, Elgorriagakoa, urtarrilaren 31n, 80 urte zituela.
- **Itziar Iribarren Saldias**, Berakoa, otsailaren 2an, 53 urte zituela.

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
 948 63 54 58, 744 48 43 61 edo info@ttipi.eus

Hil-ondorako kontratuarekin, aukeratu nahi duzun agurra
 Doluan laguntza eta herentzia tramitazioa

IZARRA
 HEMEN, ZURE ONDOAN AQUI, A TU LADO

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan, Bertizaranan eta Malerrekan
 T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

OROIGARRIA

Tiburcio APEZTEGUIA SALDIAS
 Aurtitzen, 2021eko urtarrilaren 17an, 83 urterekin

Aurtizan sarri entzun genuen
 Zure joare kolpea
 Artzai lanetan ezagutua
 Itxasoaren bestalde
 Eskulanetan, egurra lantzen
 Nahiko abildadea
 Senar, atxa ta atafaxi zinen
 Benetan paregabea
 Mendaur azpian atseden hartu
 Gure Tiburtxio maitea.

ZURE FAMILIA



OROIGARRIA

Manuel TELLETXEA GOIKOETXEA
 Ezkurran, 2021eko urtarrilaren 29an

Zure begien dizdira eta zure ezpainetako irria beti gurekin egongo dira Manolo maitagarria. Muxu handi bat.

ZURE FAMILIA



BB
 BAZTAN BIDASOA
 Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
 BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokia
 MALERREKA: **DONEZTEBEN** Aparan ind. 1-3
 web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
 365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
 tanatorioak

Zuen ondoan, betidanik


- Nafarroako hileta zerbitzuetan aitzindariak eta eskualdean zerbitzua ematen lehenak gara.
- Konfiantzazko taldea osatzen dugu, errespetuz eta profesionaltasunez lan egiten dugu.
- Liderrak gara Nafarroan, zuen esanetara gaude.
- Zerbitzu integrala. Norberaren nahietara egokitutako agurrak.
- Aseguru etxe guztiek lan egiten dugu. Zuk aukeratu eta guk kudeatuko dugu.
- Etxe etxe zerbitzuetan adituak.
- Hilerrietako lanetan espezializatuak (partikularrak eta instituzionalak)
- Prezio lehiakorak.

948 63 74 04 / 948 19 70 70 ELIZONDO (Santiago, 52)







HITZ GEZIDUNAK

	Fruituaren zatia	Gipuzkoako udalerria	Ele	◆ Jaioterría	Nafarroako udalerria
	Jabe elkartuak	◆ Deitura	Potasioa	Alfabetoko letra	Poztasuna
	Galdetzaille bat		Teilatuko pieza		
			Herri hizkeran, eta		
Fusilarina	◆ Izena			Jatorri atzizkia	
Esnea gatzatzeko gaia	Karta iragarie			Ihesaldia	
				Izu	
				Txakur	Eskumutur
Musika estilo bat		Zintzo	Ohean etzan		
Amerikako itsaso bat		Oso-oso ilun	6. hilabete		
			Baita		Aktaren hasieran
			Lehen bokala		Arabako udalerria
Txapelak				Txanpona, dirua	
Niri, du				Manganesoa	
		60. erromatarren arabera	Baztango herria		
		Euskal interjekzioa	Modu atzizkia		
Nitrogenoa	Mozkin, irabazi			Onuragarria	
Baztango herria	Kontsonantea			Ez eme	
				Gizon izena	

◆ Gure lurraldeko pilotari handia


GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Egiaren kontrakoak.
- [2] Gure lurraldeko udalerria, Malerrekan.
- [3] Aldez aurretik.
- [4] Zura eta metalak ebakitzeko tresna, altzairuzko xafla horzduna duena.
- [5] Lur ilunaren koloreko.
- [6] Modua.
- [7] Gure lurraldeko udalerria, Bortzirietan.
- [8] Irri.
- [9] Albistea, notizia.
- [10] Naziotzat hartzen den sorteria.
- [11] Entzumenaren organoa.


ERANTZUNAK



PLAZAN BAZAN



MARIPURTZIL

PELLOZIRI



MEZU GORDEA

Eman beheko irudi bakoitzari bere hizkia eta esaera zahar bat osatuko duzu.



Marrazkiak: Garbifé Ubeda (Aiuurri)

INTERNETEN ERE BAI !


<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak




HAUXE PAREA



Arrain hauen artetik bi berdin-berdinak dituzu (tira, agian bat bestea baino handiagoa, baina gainontzean berdin-berdinak). Zeintzuk ote dira?

ITZALA



Zein da eskiatzaile traketsaren itzal zuzena?



Elizagibela
Promociones S.L.

www.elizagibelapromociones.com
elizagibelapromociones@gmail.com

T. 643 466 998



- **2, 3 eta 4 logeletako etxebizitzak trasteroarekin Doneztebeko Elizagibela kalean**
- **Lokal komertzialak**

ETXEBIZITZA PROMOZIOA
18 ETXEBIZITZA 8 LOKAL